

# ATZERRIKO MERKATUETAKO BISITARIAK EUSKADIN FRONTUR 2017

## 2018ko Abendua



## EZAUGARRIAK

### Euskadiko behatoki tur

LiNVESTiC, S.L.-k burututako lana, César Legarra Riverok zuzendua

### Erredaktore-taldea

- César Legarra Rivero.  
Zuzendari Orokorra
- Yolanda Manzana Oreja.  
Datu-tratamenduaren arduraduna
- Joxe Mari Urretabizkaia Sacristán.  
Kontsultorea

### Sortze-data

2018ko azaroa eta abenduan zehar burutua.

### Bertsioa

### Iruzkina

“Mugako Mugimendu Turistikoaren eta Bisitari Atzerritarren Gastu Turistikoaren Inkesta” (FRONTUR - EGATUR), estatu mailako estatistika eragiketetatik, ateratako mikro-datuez gero burututako txostena.

## Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak, BASQUETOURL Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, Mugako Mugimendu Turistikoen (FRONTUR) eta Gastu Turistikoaren Inkestaren (EGATUR) etengabeko estatistikaren berariazko ustiapenak emandako emaitzak aurkeztu ditu beste urte batez, eta bi inkesta horiek, 2015eko irailera arte TURESPAÑArenak ziren eta 2015eko urritik aurrera Estatistika Institutu Nazionalarenak (INE). Datu hauekin Euskadin dagoen errealitate turistikoa hobeto ulertzea bilatzen da.

Txosten honetan dagoen informazioa 2017. urtekoa da. Horrela, 1998. urtean, Euskadira etortzen diren atzerriko turisten eskaeraren portaera definitzen duten egiturazko ezaugarriari eta turisten joerei buruzko informazio zehatza izateko egin zuten lehen txostenari gehituko zaio.

2007. urtea baino aurreragoko argitalpenetan, aztertutako entitatea, Euskadi norako nagusitzat aukeratu zuten atzerriko merkatuetako bisitariekin irudikatu da. Norako nagusitzat, ostatu-gau gehien egin den tokia hartzen da (turistak). Txangozaleen kasuan, ostatu-gaurik egiten ez dutenez, ez dago alderik norako eta norako nagusiaren artean.

Serieak haustura puntu bat jasaten du 2007an, urte honetan norako nagusiaren entitate nagusia alde batera utzi eta norakoaren entitatearekin jarraitzen delarik.

Euskadiren ikuspuntutik, askoz interesgarriagoa da Euskadira etortzen diren bisitari guztien informazioa kontuan izatea (norako nagusi edo bigarren mailako norakoa) eta ez beren bidaiaren norako nagusitzat dutenena bakarrik. Gainera, 2007. urtetik aurrera, Euskadi itsasbidetik bisitatzen duten bidaiarien informazioa ere sartzen da. 2017ko analisi honetan trena sarbide bezala erabiltzen duten Euskadira datozen bidaiarien informazioa sartzen da eta honela, garraio mota guztiak kontutan edukitzen dira, bai 2017ko datuekin, bai 2013tik edukitako eboluzioarekin.

Txosten honetako kapituluak ondorengo gaietan taldekatuta daude: Bisitarien ezaugarriak, Turisten ezaugarriak, Txangozaleen ezaugarriak, Bisitarien gastu totalak, eguneroko batezbestekoa eta pertsonako batezbestekoa, Turisten gastu totalak, eguneroko batezbestekoa eta pertsonako batezbestekoa, Txangozaleen gastu totalak eta pertsonako batezbestekoak eta Turisten egonaldien batezbestekoa.

Basquetourrek, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean barneratua dagoena, eskerrak eman nahi dizkio TURESPAÑA eta INEri, testuinguru estatistiko nazionalaren estatistikarik sendoenetako baten datuak eskuratzeko emandako laguntzarengatik.

### *FRONTUR inkestaren fitxa teknikoa:*

*FRONTUR erakundearen estatistika Espainiara, hilabetez hilabete, mugetatik heltzen diren turisten kopurua neurtzeko oinarritzko iturri ofiziala da.*

*Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepedez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.*

### *EGATUR inkestaren fitxa teknikoa:*

*Gastu Turistikoaren Inkesta (EGATUR), muga, etengabe eta hilabetez hilabete, errepede, aireportu eta itsas portuetako muga-pasabideetan egindako lana da. Inkesta, egoiliarak ez diren bisitariari Espainiatik irtetean egindako elkarrizketa pertsonalaren bidez egiten da.*

*Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepedez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.*

## AURKIBIDEA

0. HITZ GLOSARIOA .....	7
1. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIAK (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) .....	9
1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	9
1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak (turistak eta txangozaleak) sarbidearen arabera Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	12
1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak (turistak eta txangozaleak) bizilekuaren arabera Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	13
2. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK .....	15
2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	16
2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, bizilekuaren arabera. 2017. urtea .....	17
2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, bisitaren arrazoiaren arabera. 2017. urtea .....	21
2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2017. urtea .....	22
2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, erabilitako ostatu motaren arabera. 2017. urtea .....	23
2.6.- Euskadira etortzen diren turistak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	24
2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	26
2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea .....	28
2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2017. urtea .....	29
2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta erabilitako ostatu motaren arabera. 2017. urtea .....	31
2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2017. urtea .....	33
2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	33
2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea .....	35
2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta bizilekuaren arabera. 2017. urtea .....	36
2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arabera. 2017. urtea .....	38
2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	38
2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea .....	40

2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta ostatu motaren arabera. 2017. urtea .....	41
2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	42
2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	43
2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea .....	45
<b>3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK .....</b>	<b>46</b>
3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	47
3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	49
3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	50
<b>4. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) GASTUAK .....</b>	<b>53</b>
4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	53
4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), hilabeteko. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	54
4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bidaiari motaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	57
4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	59
4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	61
<b>5. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK .....</b>	<b>65</b>
5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	65
5.2.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, hilabeteko. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	66
5.3.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	69
5.4.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	72
5.5.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, bisitaren arrazoaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	74
5.6.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	76
5.7.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	78
5.8.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	80

6.	EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK .....	82
6.1.-	Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	82
6.2.-	Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, hilabeteko. Urteko bilakaera 2013 - 2017.....	83
6.3.-	Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	85
6.4.-	Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017 .....	86
7.	EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN BATEZBESTEKO EGONALDIA .....	88
7.1.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017 .....	88
7.2.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea.....	88
7.3.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea .....	89
7.4.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea .....	90
7.5.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea .....	91
7.6.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea.....	92
7.7.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa – Euskadi. 2017. urtea .....	92
7.8.-	Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea.....	93

## HITZ GLOSARIOA

OMTeak (Nazio Batuetako turismoan espezializatutako agentzia) "Turismoaren Estatistikarako Nazioarteko Gomendioak (RIET)" dokumentuan, hurrengo definizioak azaltzen ditu:

**Turismoa** gertaera sozial, kultural eta ekonomiko bat da, pertsonak bere ohiko bizilekuetatik arrazoi pertsonal edo profesionalengatik, eta urtebete baino gutxiagoko denboraldi kontsekutibo batean, egiten dituzten mugimenduekin erlazionatua dago

Pertsona baten **ohiko ingurunea**, turismoan kontzeptu erabakigarria, pertsona batek bere eguneroko ohiko aktibitateak egiten dituen inguru geografikoa (ez du aldamenekoa izan beharrik) bezala ezagutzen dugu.

**Bidaia**ria bi herrialde desberdin edo gehiagoren artean mugitzen den pertsona, edo bere herrialdearen barruan, bere ohiko bizilekutik, bi leku desberdin edo gehiagora mugitzen den pertsona bat da.

**Bisitaria**: bere ohiko ingurunetik kanpo, norako nagusi batera bidaiatzen duen pertsona da, urtebete baino denbora gutxiagorako, edozein dela eta bere helburu nagusia (aisia, salerosketak edo beste edozein arrazoi pertsonal), herrialde edo beste leku honetan kokatutako entitate batek kontratatzea bada izan ezik. Bisitarien multzoa turistek eta txangozaleek osatzen dute.

**Turista**: bisitatutako herrialdean ostatu kolektibo edo pribatu batean gutxienez gau bat igarotzen duen pertsona da.

**Txangozalea**: bisitatutako herrialdean ostatu kolektibo edo pribatu batean gaurik igarotzen ez duen pertsona edo egun bakarreko bisitaria da.

**Bidaia turistiko baten norako nagusia** bidaia egiteko erabakigarria den bisitatzen den lekua da.

**Ohiko bizileku edo herrialdea**, pertsona batek ohikoen duen bizilekuaren kokapen geografikoa da. Pertsona bat urtebete baina gehiagorako leku konkretu batean bizi bada (edo bizitzea pentsatzen badu), eta bertan bere interes ekonomikoak baditu (adibidez, bere denbora bertan pasatzen badu gehien bat), pertsona hori leku edo herrialde honetako biztanlea dela esan daiteke.

Bidaia turistiko baten **arrazoi nagusia**, bidaia egiteko arrazoia bezala definitzen da, arrazoi hau gabe bidaia ez litzatekeelarik burutuko. Txosten honetan bidaiaren arrazoi nagusiak multzo ezberdin hauetan banatzen dira: "Aisia", "Lana" eta "Beste arrazoiak". "Aisia"-ren multzoaren barruan, turismo kulturalerako arrazoiak, kirol praktiketakoak, landa eta hondartzakoak eta beste aisi motakoak sartzen dira. "Lana"-ren multzoan, feria eta kongresuetara bertaratzeko arrazoiak, sasoiakako lanekoak (sasoiakako langileak) eta laneko eta negozioetako beste arrazoiak sartzen dira. "Beste Arrazoiak" multzoan ikasketak beren bidaiaren arrazoi nagusia bezala duten pertsonak sartzen dira, baita zerbitzu pertsonalak, borondatezko osasun tratamenduak, arrazoi erlijiosoak eta erosketak.

**Ostatu mota nagusiak**, bere aurreko estatuak 3tara jaisten ikusi ditu, "Hotelak eta antzerakoak", "Merkatuko gainerako establezimenduak" eta "Merkatuz kanpoko establezimenduak" direlarik. "Hotelak eta antzerakoak" hotelak, paradoreak, hostalak, pentsioak eta apartaotelak multzokatzen dituzte. "Merkatuko gainerako establezimenduak" alokairuzko ostatu mota, kanpina, landetxeak, itsas bidaiak eta merkaturako beste ostatu motak multzokatzen dituzte. Eta "Merkatuz kanpoko establezimenduak", berezko etxebizitzek, familia edo lagunentzako etxebizitzek eta merkaturaz kanpoko edozein establezimenduek osatzen dute.

**Pakete turistikoa** modu bakarrean komertzializatzen den produktua da. Turismoaren arloko bi zerbitzu edo gehiagorako osatua dago, adibidez, ostatua, mantenua eta garraioa, eta denagatik prezio bat ordaintzen da. Paketearen barruan kontsumitzaileak ezinezkoa du ematen zaizkion zerbitzu bakoitzari bere bakarkako prezio ezartzea.

**Gastu turistikoa**: Kontsumorako ondare eta zerbitzuengatik, eta objektu baliotsuengatik, nahiz ta opari egiteko edo kontsumo pertsonalerako izan, bidaiaren zehar eta bidaiarako, ordaindutako diruaren gehikuntza da. **Gastu turistikoak** bi gastu mota baneratzeko dituzte, bisitariak Euskadira egindako bidaiaren zehar egindako gastuak, eta bidaia hasi baino lehen egindakoak, hala nola, hegazkin txartela eta pakete turistikoa.

**Gastu turistikoaren konposizioa:**

- ***Pakete turistikoan egindako gastua.***
- ***Ostatuan egindako gastua.***
- ***Joan etorriko garraio gastua***
- ***Norakoan erabilitako garraio gastua.***
- ***Jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua.***
- ***Elikagaietan egindako gastua.***
- ***Txango eta bestelakoetan egindako gastua:*** txangoetan egindako gastuak, opariak eta bestelako gastuak, inbertsioak ez diren bitartean.




## 1. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIAK (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK)

Euskadira etortzen diren atzerriko bisitariak, hazkunde jarraitu bat jasaten datoz ikerketa honen hasieratik 1998an. 2008 . urtean, %3,7ko beherakada arin bat gertatu zen, ondorengo urteetan berreskuratuz. 2011 . urtean, %14,7ko hazkunde garrantzitsu bat egon zen, hamaika milioi eta erdi atzerriko bisitarietara helduz.

2013. urtean, errekor historiko bat lortu zen 11 milioi eta erdi bisitariak gaindituz. Hurrengo hiru urteetan, bisitarien beherakadak jaisten jarraitu du indar handiagoarekin, modu exponetzial batean.

2014ean %0,4 beherakada txiki bat izan zuen, 2015ean berriz ere jaitsi zen, %4,2 moderatu batean 2014arekin alderatuz, 2016ean, noiz atzerriko bisitariak atzerapen handi bat jasaten duten urtea 2015arekin alderatuz, %15,2 eta orain 2017an aldiz, aurreko urtearekin alderatuz bisitari atzerritarren bolumena %3,3 batean berreskuratu da.




### 1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 – 2017

Aurkezpenean aurreratu den bezala, FRONTUR eta EGATUR, estatu mailako estatistika eragiketetatik, 2007tik aurrera ateratako mikro-datuak, aukera eman dute analisisan Euskadira etortzen diren atzerriko bisitari guztien datuak barneratzeko. Norako nagusiaren erabilerak, informazioa, Estatu mailako ikuspuntu batetik aztertzen denean dauka interesa, baina Erkidego baten ikuspuntutik aztertuta, kontzeptu honek bere zentzua galtzen du, Erkidego bakoitzari jasotzen dituen bisitari guztiak ezagutzea baita interesatzen zaiona, bai norako nagusia denean (Euskadi izanik beren bidaiaren ostatu-gau gehien egin dituen tokia), bai bere bidaiaren norako bat soilik denean (aurrekoetan, beste Erkidegoetan gehien bat egon diren bisitariak sartuaz), baina ostatu-gauren bat Euskadin ere egin dutenak.


Euskadi norakotzat daukaten bisitari guztiak gehitzean, Euskadi norako nagusitzat bakarrik daukatenak beharrean, 2017. urte honetarako 450.000 bisitari gehiago azaleratzen dira, Euskadi norako nagusitzat daukaten bisitariak baino %4,9 bat gehiago. Bisitarietan dauden aldaketak turistaren kopuruan gertatuko aldaketak direla eta gertatu dira, eta ondorioz bisitarien kopuruan. 2017an norako nagusitzat Euskadi bisitatu zuten turistak 1.901.387 izan ziren, aldiz, Euskal Herrian, benetan ostatu-gaua egin zutenak aztertzen badira, zenbakia 2.352.201era igotzen da, honek lehenago kontuan hartzen ez ziren 450.813 turistako berreskurapen bat suposatzen duelarik, uste zena baino %23,7 gehiago.

Norako nagusitzat, bidaiaren ostatu gau gehien egiten diren norakoa aintzakotzat hartzean, ezberdintasun honek ez dauka eraginik txangozaleengan.




Txangozaleek, bisitari talde guztiek duten joera berdina aurkezten dute, hauen artean irudikatzen duten pisu handia dela eta (2017ko %75,6aren eta 2013ko %83,3aren artean). 2011.urtean 9.771.500 txangozaleko errekorra lortu zen, aurreko urteko %13,8ko igoera handi baten ondoren.

Urte honetatik aurrera, beherakada jarraitu bat ematen da, 2012. urtean hasita, txangozaleen %0,3 jaitsiera batekin, 2013an gehiago jaisten jarraitzen duena, %1,5 bat, 2014ean %2,4 bat, 2015ean %7,4, 2016ean %17,3 bat, 7.176.004 txangozaleetaraino eta 2017an joera honi itzulia emanez eta %1,6 txangozale berreskuratuz aurreko urtearekin konparatuz. Azken bost urteotan, Euskadin txangozaletasuna 2.429.199 txangozaleetan jaitsi da 2016 urterarte eta aurten 111,889 berreskuratu da, galdutako txangozale guztien %4,6 irudikatzen dutelarik.



Turistek, patroi ezberdin bat mantentzen dute, alderraiagoa. 2008 eta 2009 urteetan, Euskadin atzerriko turismoaren beherakada nabarmenena nabaritzen da. 2010. urtean, aktibitate turistikoa berreskuratzen hasten da (%5,1) eta 2011a da, berriz ere turisten gorakada garrantzitsu bat nabari den urtea, 1.683.295 bidaiarietara iritsiz (%20,3 gehiago). 2012an turismoak gora egiten jarraitzen du, gutxiago, baina garrantzizko %3,8 batekin. Txangozaleek ez bezala, 2013. urtean turistek gora egiten jarraitzen dute, %10,1 bat, 2014ean %9,9 igotzen dira, eta 2015. urtea da, momenturarte, bere maximo historikoa lortu zuten urtea, 2.330.028 turistarekin, %10,2ko igoera eta gero. Azken urteotako joera on hau, 2016ean moztu egin zen %7,5eko beherakada batekin. Azkenik, 2017. urte hau errekor historiko berri bat bezala finkatzen da 2.352.201 turistak lortuaz, 2016aren %9,2 gainera eta ia %1 igoera batekin 2015eko errekoraren aurrean (2.173 txangozale).




Hileroko jokabidea, bai turistetan bai txangozaleetan, urteetan zehar errepikatu egiten da, uda-garaia izaten da bisitari ugarien etortzen den garaia.

Euskadin, urteen joanean, atzerritarren txangozaletasunak pisu handia dauka, gure eskaera turistikoaren ezaugarri esanguratsuenetakoa da. Hau, alde batetik, Euskal Herria eta Frantziaren arteko

mugaren bi aldeen arteko erlazio estua dela eta gertatzen da. Lana, merkataritza, salerosketa, aisia edo afektibitate fluxuak lurralde jarraitutasun bat dagoela frogatzen dute, muga bereizketa kontzeptuaren oso urrunekoa. Beste alde batetik, Estatuako beste alde batzuetan, fluxu turistiko masiboak suposatzen dituen, eguzki eta hondartza opor-ereduaren barneratze urriaren isla da.

Estatuaren eta Euskadiren arteko atzerriko bisiten egitura, ostatu-gauaren izaeraren arabera, oso ezberdina da.




Euskadin, txangozaletasunaren nagusitasuna nabarmena da, aipatu dugun bezala, azken bost urteetan bisiten %76tik %83ra suposatzen duelarik. Aldiz, Estatu mailako txangozaletasuna erdira baino gutxiagora jaisten da, %42ra ez delarik iristen azkeneko bost urteetan.

Turismoarekin kontrakoa gertatzen da, Euskadin %24,4ko bisitak suposatzen ditu eta Estatu mailan %67,3. Euskal Herriko eta Estatuako egiturak, antzeko moduan aldatzen doaz urteen buruan.

Euskadin, Estatuan bezala, urtetik urtera txangozaileen proportzioa jaisten joan da azken bost urteotan, ondorioz turisten proportzioa igotzen joan delarik.

**1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak (turistak eta txangozaleak) sarbidearen arabera Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 – 2017**

Itsas bidetik eta trenbidetik sartutako bisitarien datuen erabilgarritasunak, Euskadira etortzen diren atzerriko bisitarien multzoaren bidaietan, sarbide hauek duten garrantzi gutxia islatzen dute. Azken urteotan, honen pisua %1,2tik behera aurkitzen da, itsas bideko bisitarien kasuan, eta %0,3tik behera trenez datozen bisitarietan. Hala ere, aurten itsabidekoek %17,3ko beherakada nabarmen bat jasan dute, eta tren bidekoek %12,7koa, 2016ean zeuden 105.768 bisitarietatik, aurten dauden 87.465etara pasaz eta 12.445tik 10.864ra.



Euskadira egiten diren atzerriko bisiten eskualdeko izaera dela eta, aurten errepide bidezko sarbidea masiboa da, bisiten ia %88ak erabiltzen dutelarik (8.152.458 bisitari). Bisitarien sarbide hau, 2016arekin alderatuz, %3,7 bat igo da, 300.000 bisitari irabaziz.

Euskadira aire bidez etorri diren bisitariak, turistak direlarik gehien bat, aurten bere proportzioa handitu dute %11,3ra iritsi arte, interurteko %2,9ko hazkunde batekin, 2016arekin alderatuz, ia 31.000 bidaiaritan igoaz eta 1.090.500 bisitarien zifrara iritsiz, errekor berria, urteen joanean hazkunde jarraitu baten ondorioz.

Errepide eta aireportuaren arteko alde hau, txangozaletasunaren pisuari dagokio, hegazkina gutxienekoek erabiltzen baitute.

Urteen joanean Euskadin sarbide ezberdinen erabilerearen banaketaren bilakaeran, aire bidezko bisitarien zifraren hazkundera nabarmentzen da, 2013tik ia bikoiztu delarik eta noski, errepide bidezko bisitarien bi milioi eta erdiko galera.

	Euskadi 2013	Euskadi 2014	Euskadi 2015	Euskadi 2016	Euskadi 2017	Estatua 2013	Estatua 2014	Estatua 2015	Estatua 2016	Estatua 2017
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.528.949</b>	<b>11.493.191</b>	<b>11.010.622</b>	<b>9.330.634</b>	<b>9.640.093</b>	<b>103.230.810</b>	<b>107.144.476</b>	<b>109.927.071</b>	<b>115.561.077</b>	<b>121.717.286</b>
Errepidea	10.934.519	10.753.513	9.985.221	8.152.458	8.451.265	44.671.616	45.547.739	44.820.577	43.770.344	43.315.187
Aireportua	558.328	675.814	926.197	1.059.963	1.090.500	53.242.440	56.228.595	58.947.377	65.480.205	71.878.617
Itsasontzia	26.694	39.605	78.856	105.768	87.465	5.173.499	5.030.781	5.778.694	5.896.828	6.099.499
Trena	9.408	24.260	20.348	12.445	10.864	143.255	337.361	380.422	413.699	423.982

Estatuan egoera oso bestelakoa da. Nahiz eta itsasontziaren erabilera txikiagoa den, errepidea edo hegazkina erabiltzen dutenen aurrean, proportzioa ez da Euskadin bezalakoa. Esanguratsua da, alde batetik, Balear Uharten izaera, errepide bidezko sarbidea itsasontzi bidezkoaz ordezkatzeko duena, eta beste alde batetik, Malaga, Almeria eta Algecirasek Afrikako Iparraldearekin dituzten konexioak, hauek ere itsas sarbidea areagotzen dutelarik. Honi, Mediterraneoan zeharreko itsas bidaiak gehitu behar zaizkio. Kanariar Uharteak itsas sarbidean salbuespen bat dira, sarbide nagusia airezkoa delarik ia osotasunean. Ia ez dago itsas bidaiarik eta oso luzeak dira.

Sarbide hauekin, Estatuan itsasbideko bisitarien kopuruak, 2013tik, %4,7tik %5,3 batera irudikatzen du. 2017. urte honetan pisua ez da urte guztietan handiena, bisitarien zenbakiaren igoera dela eta, nahiz eta termino absolutuetan bai izan, %3,4.

Trenez datozen bisitarien gainean, Estatuan ematen den jokaera, Euskadin ematen denaren kontrakoa da. Euskadin urteen joanean trenaren erabilera behera doan eanean, Estatuan urteetan zehar gora doa.

Errepide eta aireportu sarbideen aldetik, Euskadira datozen bisitarien banaketa portzentuala, oso bestelakoa da Estatura datozenenarekin alderatua. Ikusi den bezala, Euskadin gehien bat errepidea erabiltzen da sarbide bezala (%87,7 aurten), txangozaleen bide honen erabilera dela eta, Estatu mailan ordea, errepidearen eta hegazkinaren erabileraren arteko aldeak ez dira hain esanguratsuak.


Euskadin gertatzen den bezala (2017an izan ezik), Estatuan, azken bost urteetan errepide bidezko bisitariak beherakako joera bat daramate, aire bidezko bisitarien alde. Ondorioz, azken bost urteetan (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017) airezko bidea da erabiliena. Aurten errepide bidezko 43,3 milioi bisitariekin, aire bidezko 71,9 milioi bisitarien aurrean.

### 1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak (turistak eta txangozaleak) bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013– 2017

Bisitarien bizileku nagusiaren gainean, berriz ere txangozaleen pisu handia nabarmentzen da, turistak gaintik, azken hauek bisitarien %24,4 bat suposatzen dutelarik. Aipatu den bezala, Euskadiren mugako izaerak, azterriko txangozale gehienak ondoko herrialdekoak izatea sustatzen du, Frantziarrak.

	Euskadi 2013	Euskadi 2014	Euskadi 2015	Euskadi 2016	Euskadi 2017	Estatua 2013	Estatua 2014	Estatua 2015	Estatua 2016	Estatua 2017
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.528.949</b>	<b>11.493.191</b>	<b>11.010.622</b>	<b>9.330.634</b>	<b>9.640.093</b>	<b>103.230.809</b>	<b>107.144.475</b>	<b>109.927.070</b>	<b>115.561.077</b>	<b>121.717.286</b>
Frantzia	10.175.762	9.988.725	9.310.639	7.603.287	7.760.713	34.070.087	35.230.039	34.875.339	32.650.773	32.031.534
Erresuma Batua	181.001	193.362	253.723	213.786	217.931	15.152.735	16.443.530	16.595.452	19.136.959	20.361.582
Alemania	175.615	179.347	200.295	220.909	281.974	10.659.214	11.482.951	11.680.343	12.267.889	13.051.580
Italia	69.644	72.164	86.552	142.280	87.721	4.018.058	4.754.296	4.938.441	5.311.837	5.434.216
Portugal	223.048	240.992	209.891	106.869	132.271	11.116.611	11.352.256	10.679.801	10.477.216	10.637.434
Belgika	93.493	97.287	101.959	120.445	139.587	2.209.742	2.471.624	5.249.423	2.746.769	2.885.745
Holanda	90.398	98.337	116.762	136.415	149.530	2.900.286	3.058.605	3.112.724	3.726.748	3.997.537
Europako gainerakoak	226.796	250.353	288.747	331.857	436.865	14.628.137	14.432.824	14.156.521	17.545.734	19.571.594
Estatu Batuak	60.286	67.592	108.277	111.389	85.213	1.488.431	1.746.689	2.022.770	2.667.035	3.404.288
Amerikako gainerako estatuak	90.836	145.854	134.262	124.939	162.610	3.415.763	2.913.763	2.909.769	3.948.977	4.629.692
Beste herrialde batzuk	142.068	159.178	199.515	218.458	185.679	3.571.745	3.257.898	3.706.487	5.081.140	5.712.084

Horregatik, Frantziako biztanleak 2017an, bisitarien %80,5a suposatzen dute (7.760.713), eta interurteroko %2,1eko aldaketa indize positibo arin batekin. Gainerako bizilekuetako datuak honela banatzen dira, Erresuma Batua %2,3 (217.931 bisitari), interurteroko %1,9ko gorakada batekin, Alemanian bizi direnak %2,9rekin (281.974 bisitari), interurteroko %27,6ko gorakada batekin, gainerako Europako herrialdeetan bizi direnak %4,5ekin (136.865 bisitari), interurteroko %31,6ko gorakada batekin eta munduko beste herrialdeetan bizi direnak %1,9 batekin (185.679 bisitari), %15eko beherakada batekin 2016arekin alderatuz.



Frantziako bisitarien bilakaera, Euskadiko bisitarien multzo guztiko joera markatze du, turisten artean merkatu honek daukan pisua dela eta, eta bereziki txangozaleen artean.

Hala ere, Estatuarekin alderatuz, ikus daiteke nahiz eta alboko herrialdeko, Frantziako, bizilagunen nagusitasuna bat egon, ez dago urterik azken hauetan, %34 a gaintitu dutenik, beraz gainerako %66 beste bizileku nagusietako bisitaren artean banatzen da: Erresuma Batua %16,7a aurten, Alemania %10,7rekin eta Portugal %8,7rekin, Italia %5era iritsi gabe, Belgika %2,4, Holanda %3,3 eta gainerako Europa %16a baino gehiagorekin, munduko gainerako herrialdeak %4,7koa eta Estatu Batuak %2,8 batekin.



Erresuma Batutik, Alemaniatik, Italiatik, Holandatik eta Estatu Batuetatik, Estatura datozen bisitariak, gorakako joera bat mantentzen dute azken bost urteotan, beste herrialdeetako bisitariak ordea, jokaera alderrai bat erakusten dute, Euskadi norakotzat daukaten bisitarien jatorrizko herrialdeen antzera, Alemaniarrek, Belgikarrek, Holandarrek eta gainerako Europako herrialdeetakoek ezik, gorakada jarraitu bat erakusten dutenak.



## 2. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK

2017an, Euskadik, 2.352.201 turisten sarrera erregistratzen du. Lehengo urtean baino 197.571 gehiago dira (%9,2), errekor historiko berri bat lortzea suposatu duelarik, 2015ean lortutako datu onena 2.330.028 turistetan gaindituz, %1,0 gehiago. Orokorrean, atzerriko merkatu turistikoaren beherakada hasi zenetik, 2008 eta 2009an %16,5 bat uzurtu zen 2007arekin alderatuz, 2017an indarberrituz eta %76,2ko igoera bat jasanez, 2009ko gutxienekoaren gainetik.

Azken bost urteetan, munduko krisiak eragindako beherakadaren ondoren, Euskadin 428.455 turista berreskuratu dira, zifra hau kontuan hartzekoa da Herrialdearen berreskuratze ekonomikoaren erritmoaren harian.



Euskadin eboluzio turistikoak azken urteotan, hazkunde malda parekide bat markatzen du, 2016ean gertatutako beheraldia kenduta.

**2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017**

Atzerriko turismoak Euskadin urtaroko izaera nabarmen bat dauka, uda sasoiko hilabeteen nagusitasunarekin, batez ere uztaila eta abuztua, baita ere udaberri eta udazkeneko hilabeteena ere, negukoan gaineretik.


Izan ere, uztailak, abuztuak eta irailak, eskaera turistikoaren hirurena baina gehiago biltzen dute. Azken bost urteetan, abuztua da sarrera turistiko gehiago biltzen dituen.

Azken urtean, Euskadi bisitatu duten turistak errekor historikoa lortzeaz gain, urteko hilabete batzuetan errekor hau lortu da, 12tik 5 hilabeteetan.

Martxoan bere kota historiko altuena lortzen du 129.057 turistekin, apirilak 225.058 rekin, maiatzak 219.182 turistekin, irailak 242.563 turistekin eta azaroak 137.123 ekin.

Indize turistiko handien hau lortu duten bost hilabete hauetaz gain, urtarrileko emaitza aipatzekoa da, 130 turistengatik ez duena bere maila onena lortu, aurreko urtean eman zena, eta otsailekoa, aurten 945 turista gutxiagorekin kontatzen duena, maximoa ere lehengo urtean eman zelarik.

Ekaina 180.904 turistarekin, uztaila 285.575rekin, abuztua 370.946ekin, urria 234.371rekin eta abendua 98.555ekin, azken urteetako emaitza onenetatik aldentzen dira, hilabete hauetarako 2015ean eman zirenak, ekainan 197.137rekin, uztailan 343.378rekin, abuztuan 388.426rekin, urrian 249.263rekin eta abenduan 168.155 turistekin.



Aurtengo turistak interurteko aldaketei begiratu, martxoak %4,8ko igoera bat jasan du, 5.944 turista gehiagorekin bat datorrena, apirila %33,0 bat igotzen da 55.826 turista gehiagorekin, maiatzak %25,3, 44.203 gehiagorekin, ekaina %11,2, 18.171 gehiagorekin, uztaila %9,8, 25.363 gehiagorekin, abuztua %16,2, 51.721 gehiagorekin, iraila %7,8, 17.563 gehiagorekin, urria %3,6 8.109 gehiagorekin eta azaroa %0,7 952 turista gehiagorekin.

Urteko gainerako hilabeteetan, 2016arekin alderatuz, turistak kopurua jaitsi egin da. Urtarrila %0,1 jaitsi da (130 turista gutxiago), otsaila %0,7 (945 turista gutxiago) eta abendua %22,9 jaisten da (29.205 turista gutxiago).




Balio absolutuetan, interurteko hazkunde handiena apirilean izan da 55.826 turista gehiagorekin, aurrerago aipatu bezala eta turista guztien, hau da, hazkunde positiboa duten hilabete guztietan irabazitako 277.851 turisten, %24,5 bat suposatzen du. Galera handiena abenduan gertatu da, 29,295 turista gutxiagorekin, hazkunde negatiboa daukaten hilabetei dagozkion 30.280 turistetako galeren, %96,5 bat irudikatzen dutelarik.

Estatuko eta Euskadiko turisten denbora banaketari buruz, ikusi daiteke, Estatuko turisten artean ez dagoela ia interurteko aldaketarik hilabeteetan zehar. Euskadiko turistek baino izaera homogeneoago bat erakusten dute.

Estatuko turisten pisuak hilabeteetan zehar, urtarrilean hasita, gorakako izaera bat erakusten du, uztaila eta abuztua berdintsuak dira, eta gero beherakako joera erakusten du abendura arte, hau beste desberdintasun bat delarik.


Uztaila eta abuztuko turisten izaera oso ezberdina da Euskadin eta Estatuan, Euskadin Estatuan baino urterokotasun handiagoa dagoelarik, bi hilabete hauetan turista kontzentrazio handiagoa nabarmenduz.

Grafikoan Euskadiko turisten datuak begiratzan urte desberdinen hilabete berdinetan dauden tontorrak antzeman daitezke, honek Estatuan baino izaera aldakorragoa nabarmentzen duelarik.



**2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteke, bizilekuaren arabera. 2017. urtea**

Turisten hilabeteke bilakaera bizilekuaren arabera aztertzerako orduan, grafiko batzuk aurkezten dira, bertan, herrialdeak antzeko tamainarengatik multzokatu direlarik, honela, beraien artean dauden desberdintasun handiak direla eta, eskala handi bat erabiltzea saihestuz eta herrialde bakoitzaren jokaera ikusten erraztuz.




Frantziatik datozen turistak 828.054 dira, turista guztien %35,2 eta horregatik bananduta aztertzen dira. Gainerako herrialdeetatik datozenak askogatik gainditzen dituzte. Abuztua da Euskal Herrira turista frantziar gehien etorri den hilabetea, 171.702 turistarekin, turista frantsesen %20,7. Irailean beherakada handitu bat dago urrian pixka bat berreskuratzen dena eta abendurarte berriz ere nabarmenago egiten dena, urtarrileko balioak gaindituz. Apirilean ikusi daitekeen hazkundera Aste Santuari dagokio eta ekaineko beherakada nabarmena da, maiatzean jasotako turisten ia erdia delarik.

Atal honetako bigarren grafikoan 117.000 eta 361.000 turistako bolumena duten Europako Herrialdeen emaitzak aurkezten dira, eta Erresuma Batuan, Alemanian, Portugalen eta Europako Gainerako Herrialdeetan bizi diren turistena. Talde honek, Euskadiko turismoaren %37,1a irudikatzen du. Erresuma Batuak %7,2, Alemaniak %9,6, Portugalek %5,0 eta Europako Gainerako Herrialdeek %15,3. Hauen jokaera hilabetez hilabete aldatzen doa.

Erresuma Batutik datorren turismoak, urteko hilabeteetan zehar jokaera sinusoide bat erakusten du. Bere barrutia urtarrileko 5.799 turistetatik abuztuko 25.548 turistetara doa.


Merkatu alemanak irailera arte gorakako ibilbide bat erakusten du batez ere, eta hortik beheraka egiten hasten da abendura arte. Gorakako ibilbide hau apirilaren eten egiten da 25.332 turistetako gorakada moderatu batekin, urtarrileko 7.307 turisten aurrean, eta goraka jarraitzen du irailako 29.118 turistetaraino, urraian dagoen 27.375 turistako beherakada txiki batekin jarraituz, nondik beherakada jarraitu bat hasten duen, abenduko 7.384 turistetaraino.

Portugalaren bizi diren turistak, grafiko honetan aurkeztutako lau herrialdeen artean gutxieneko ekarpena egiten dutenak dira. Hauen joera oso irregularra da. Urtarrilaren hasten dira 6.543 turistekin, martxoararte gora doazenak 8.229 arte eta apirilean ia erdiraino jeisten direnak, maiatzean eta ekainean ia desagertu arte. Hortik kota altuenera igotzen dira uztailean, 20.537 turisekin, irailan berriz ere 5.644ra jeitsiz eta azaroan berriz ere igoaz 15.654 arte, abenduan merkatu portugaldarretik datozen 15.184 turistekin bukatuz.



Gainerako Europako turistek urtarriletik abuztura arte gorakada bat erakusten dute, hilabete honetan urteko balio handienera iritsiz, 56.746 turista. Martxoko 20.982 turistetatik, apirilari 39.868ra asko igotzen dira. Maiatzen 25.937raino jeitsi egiten dira apirileko tontorra eta gero eta ekainan pixka bat igotzen dira 27.136 turistetaraino eta zerbait gehiago uztaila eta abuztuan 56.746rarte, hortik jeisten joaten dira abenduko 15.530 turistetaraino.

Aztertzen den hurrengo grafiko, garrantzia gutxiago duten Europako beste herrialdeetako turistetan oinarritzen da, hau da, Italia, Belgika eta Holanda. Hauen bolumena, Belgikako 69 mila turistetatik Holandako 107 mila baina turista gehiagotara doa, Italiako 86 mila baina gehiagotatik pasaz. Talde honek Euskadiko turisten %11,2 bat irudikatzen du.




Italiatik datorren merkatuaren bidaiarako jokabidea, urtarrileko 6.903 turistaren beherakada jarraitu batekin hasten da, apirileko 4.299taraino. Maiatzak tontor bat markatzen du 9.421 turistetaraino igotzen delarik eta ekainan 6.388ra jaisten da, abuztuan bere kota altuenera igotzeko ia 19 mila turistekin eta abendurarte beheraka egiten du 1.250 turistetaraino.

Belgikarrak orain arte aztertutako merkatuekin konparatuz oso era ezberdinean jokatzen dute. Urtarriletik (4.364 turistekin) gorantz doaz pixkanaka bere kota altuenera iritsi arte, uztailan, 15.576 turistak lortuz. Abuztuan eta Irailan 6.865 eta 3.063ra jaisten dira hurrenez hurren eta urrian 4.699ra igotzen dira berriz, hortik, berriz ere jaisten dira azaroan, 3.748 turistetaraino eta mila baino gutxigora abenduan.

Holandako turistek, jokabide aldakor bat erakusten dute, gorabeheraz bete. Apirilak 12.964 turistetako tontor bat erakusten dute, ekainan 20.016ko beste bat eta irailan altuena ia 26 milarekin. Otsailan, aldiz, kota minimoa erregistratzen da 1.888 turistekin. Holandatik datorren turismo honek, Euskadin egonaldia egiteko ez du abuztua erabiltzen, hilabete honetako 11.870 turistak, tontorak eragindako hilabeteetan gertatutako sarreraren atzetik kokatzen baita.

Azken talde hau urrunago dauden lurraldeetako turistek osatzen dute, adibidez, Estatu Batuak (77 mila turistekin), Gainerako Amerikak (130 mila turistekin) eta munduko gainerako herrialdeak (182 mila turistekin). Talde honek Euskadiko atzerriko turismoaren %16,5 irudikatzen du.

Merkatu Estatubatuarrak bere ekarpen maximoa uztailan lortzen du 12.338 turistekin, irailak jarraituz 11.817rekin. Otsaila, martxo, apirila, maiatza, ekaina eta urriko bisitak beraien artean alde gutxi daukate, 6 mila eta 7 mila turistaren artean. Abuztuan turistaren bisitak 4.239ra jaisten dira eta urtarrilean, azaroan eta abenduan 2 mila eta 3 mila turista estatubatuarren artean daude.



Gainerako Amerikako turistek, urtarriletik goraka egiten hasten dira ekainan kota altuena lortu arte (19.554), apirilak gertatutako jauziarekin etendakoa, 3.282 turistetaraino. Hortik beherakako ibilbide bat eramaten dute urtean zehar, abendurarte, uztailan alderantzizko tontor bat nabarmentzen delarik, 10.501 turista.

Azkenik, munduko gainerako herrialdeetatik datozen turistek aztertutako herrialdeen jokaera desberdin bat aurkezten dute. Urtarriletik (25.280 turistekin) jaisten joaten dira, otsaila eta martxoan 9 milako balioak ez direlarik lortzen, eta apirila eta maiatzan, kota altuenera iritsiz suspertzen dira, 25.530 turista. Ekainean turistak 13 milara jaisten dira, uztailan 20 milaraino igo, abuztuan berriz ere jaisten dira 11.517ra eta irailan behera egiten jarraitzen dute, 8.358 turistetaraino. Urrian gorakada handi bat aurkezten dute ia 24 mila turistekin, azaroko beherakadarekin jarraituz, urteko kota baxueneraino, 6.882 turista eta abenduan igoera xume bat, 8.318 turista.


Merkatu frantsesa kontuan hartu gabe, hilabetez hilabete turista gehien ekartzen dituenen, ikus daiteke urtarrilean lortutako kota altuena munduko beste herrialdeetako merkatuarena dela, otsailetik urrira gainerako Europarena, azarokoa merkatu alemaniarrena eta abendukoa gainerako Europarena.

Orokorrean, antz ematen da, nahiz eta turismoa nahiko iraunkor mantentzen den udazkenean, udaberrian eta neguan, edozein dela ere turisten jatorrizko herrialdea, udara da turista gehien biltzen dituen sasoa.

**2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabetez, bisitaren arrazoiaren arabera. 2017 . urtea**


Turistek Euskal Herria bisitatzera bultzatzen dituzten arrazoiak, era aldakor batean jokatzen dute urteko hilabeteetan zehar.

Aisiaren arrazoiak da atzeritar gehien Euskadira erakartzen dituen arrazoiak, oporrak (%68,7 1.615.230ekin bat datorrena). Arrazoi honek turisten artean daukan pisua hilabeteen arabera, urtarrileko %40,9etik uztaileko %78,4ra doa. Balio absolutuetan aisiagatik datozen turisten kopurua urtarrileko 40.602 tatik abuztuko 288.770 etara doaz. Arrazoi hau nabarmenki igotzen da udako hilabeteetan (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila), guztira 837.476 turistarekin, aisiagatik datozen turisten %51,9 irudikatzen dutelarik, eta turista guztien %35,6.




Laneko arrazoiengatik etortzen diren turistek (345.763), %14,7 bat, merkatu nazionalaren estereotipo nagusiaren jokabide ezberdin bat aurkezten dute. Lanagatik datozen turista gehien bisitatzeko gaituzten hilabetea urtarrila da 36.894 turistarekin (lanagatik datozen turisten %10,7 bat), abuztuak jarraituz, nahiz eta opor hilabete bat izateko joera daukan, badaude 36.265 turista, bere salerosketak egiteko erabiltzen dutenak (arrazoi honen turisten %10,5a). Maiatzak ere, turista ugari jasotzen ditu, %10,4 batekin (35.901). Uztailan da non bisita hauek nabarmenki jaisten diren hilabetea, 17 mila turistetara jaitsiz (%4,9) eta abenduan 17.917ekin (%5,2). Urteko gainerako hilabeteetan, lanagatik datozen turisten sarrerak, %6,6tik %9,4ra doaz (22.000tik 33.500era).

Gainerako arrazoiak turisten %16,6 batek aukeratzen ditu (391.208). Aurtengo apirila izan da Euskadira “beste arrazoiengatik” etortzen diren turisten kopuru gehiena lortu duen hilabetea, 54.438 turistak lortuz, %14,0 eta “beste arrazoiengatik” etortzen diren turista ekarpen gutxieneko hilabetea ekaina izan da 20.784 turistekin, %5,3. Bere ibilbidea gorakakoa da apirilera, ekainera beherakakoa, berriz ere gorakakoa abuzturara, beherakada handiago batekin irailan eta urrian zati bat berreskuratuz, abendurara beherantz egiten bukatzeko.



**2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2017. urtea**

Ostatu-gau bateko egonaldia egiten duten turistek, Euskadiko turisten %37,5 bat irudikatzen dute, 882.845 turistetara ailegatuz, garrantzian lehenengo postuan daude, eta era berean lehenengo postuan daude urteko 6 hilabetetan (otsaila, martxoa, uztaila, abuztua, azaroa eta abendua) eta bigarren postuan 5 (urtarrila, apirila, maiatza, ekaina eta urria), 2tik 3ra eta 4tik 7ra ostatu-gauko egonaldiak egiten dituztenak dira gaingidzen dituztenak. Euskadin 2tik 3ra ostatu-gau ematen dituzten kolektibo hau, garrantzian bigarrena da 880.003 turistekin (%37,4). Ostatu-gau bakarreko egonaldiak nagusitzen diren hilabete hauetan, 2tik 3rako ostatu-gaukoak daude bigarren postuan eta alderantziz, irailean izan ezik, 4tik 7ra ostatu-gauko egonaldiak atzetik daudelarik.



4tik 7ra bitarteko ostatu-gauak, urteko turisten %18,6a irudikatzen dute, eta gehien bat maiatzan, uztaian, abuztuan eta batez ere irailean ematen dira, 52.819, 52.403, 54.035 eta 81.344 turistarekin, hurrenez hurren. 8tik 15era bitarteko ostatu-gauak Euskadiko turisten artean garrantzi gutxiago dute, turisten %4,3ra soilik irudikatuz. Uztailean eta irailean ematen da ugartasun handiena, 19.283 eta 20.059 turista, abuztuan baita ere 15.173 turistekin.

	GUZTIRA	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.352.201</b>	<b>99.287</b>	<b>129.680</b>	<b>129.057</b>	<b>225.058</b>	<b>219.182</b>	<b>180.804</b>	<b>285.575</b>	<b>370.946</b>	<b>242.563</b>	<b>234.371</b>	<b>137.123</b>	<b>98.555</b>
Gau batean	<b>882.845</b>	28.386	60.198	53.800	74.303	72.605	52.179	117.840	170.037	64.981	81.646	58.913	47.957
2 - 3 gau	<b>880.003</b>	41.862	43.852	50.358	99.370	89.236	82.665	89.654	125.094	74.103	106.665	55.256	21.889
4 - 7 gau	<b>438.326</b>	18.751	15.411	17.779	41.672	52.829	31.720	52.403	54.035	81.344	36.212	15.533	20.638
8 - 15 gau	<b>101.968</b>	6.677	7.513	4.212	6.181	2.051	8.369	19.283	15.173	20.059	4.562	3.974	3.913
16 - 30 gau	<b>29.709</b>	1.976	2.028	1.456	1.367	1.302	2.057	4.131	5.357	1.943	4.860	1.352	1.879
30 gau baino gehiago	<b>19.351</b>	1.634	678	1.453	2.166	1.160	3.814	2.264	1.250	ns	426	2.094	2.278

Egonaldien iraupenari buruz orain arte ikusitakoarekin, atzerriko merkatuetako turisten perfila, udaberri, udazken eta neguko hilabeteetan egonaldi laburrak, 1etik 3ra ostatu gaukoak, batez ere asteburuekin bat datozenak eta uda garaian ostatu gauak aste batera igotzen dituztenen perfil bezala definitzen da.

16tik 30era bitarteko ostatu-gauak ematen dituzten turistak (hilabete baino gehiagokoak bezala), edozein norako turistikorentzat interesgarriak suertatzen dira, baina tamalez Euskadin oso kopuru txikia dira (29.709), turista guztien %1,3. Kolektibo honen etorrera handiena abuztuan ematen da 5.357 turistekin eta zoritxarrez interurteko beherapena %53,4koa da.

Hilabete baino gehiagoko egonaldia egiten duten turistik 19.351eko zifra bakarrik lortzen dute (osotasunaren %0,8).


Bere etorrera altuena ekainan ematen da 3.814 turistekin, 2016ean baino %259,7 gutxiago. Datu negatiboena egonaldiaren iraupenaren arabera interurteko aldakuntzak ematen digun beherakada da, turisten osotasunean %16,5ekoa da 16tik 30erako egonaldia egiten duten turisten artean eta %46,7ko beherakada bat 30 baino ostatu gehiagoko turistetan, hau da, azken urtean egonaldi luzeak nabarmenki jaitsi dira.

Alde positiboa turisten %9,2ko hazkunde orokorra da, ostatu gau bakarreko turisten %5,0ko hazkundea, 2tik 3ra ostatu gaueko egonaldian %12,5eko hazkundea, 4tik 7ra ostatu gaueko egonaldien %17,0ko hazkundea eta 8tik 15era ostatu gaueko turisten %20,3ko gorakada dira.

## 2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, erabilitako ostatu motaren arabera. 2017 . urtea

Euskal Herriko turisten artean ostatu mota erabiliena hotela da (%56,2), 1.321.120 turista eta aurten %7,7ko interurteko hazkunde bat jasan du. Ikus daitekeen bezala, hilabetea guztietan ostatu mota honen garrantziak ostatu mota hau erabiltzen duten turisten %50 erraz gainditzen du. Abuztuan, nahiz eta hilabetean bertan ostatu mota hau erabiltzen duten turisten ehunekoak zeresan gutxiago daukan, ostatu mota honetan turista sarrera gehien ematen dira, ia 190.000. Merkatuz kanpoko establezimenduen erabilerak azken urtean %2,3 igo da, 577.297 turistetara iritsiz, turista guztien %24,5 suposatzen dutenak. Ostatu mota hau Euskadin atzeritarrek gehien erabiltzen duten bigarren ostatu mota da. Gogoratu beharra dago, merkatuz kanpoko establezimenduen artean berezko etxebizitza, familia edo lagunuen etxebizitza, etab. daudela.





Merkatuz kanpoko establezimenduen erabilerak, normalean dohakoak, uztaila eta abuztuarekin bat egiten du normalean, ikusi dugun bezala hilabete hauek direlarik turisten egonaldi luzeenak dituztenak.


Ikusi dugun bezala, uztailean eta abuztuan nabaria da hoteletako turista proportzioan beherakada bat, baina merkatuko beste establezimenduetako turisten eraginez ere bai (alokairuzko etxebizitzak, kanpina, etab.). Eguraldi ona egiten duen hilabeteak direnez, turista gehiago dira kanpina aukeratzen dutenak, ostatu-gauen prezioari dagokionez bere abantaila lehiakorra dela eta. 2017. urtean 453.784 turista dira merkatuko beste establezimenduak gustukoak dituzten hirugarren ostatu mota bezala aukeratzen dituzten turistak, guztien %19,3, eta interurteko %24,6ko hazkunde txiki batekin.

**2.6.- Euskadira etortzen diren turistak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 -2017**

Errepide bidezko sarrera turistikoaren bereizgarri nagusia, lehenik eta behin, turisten kopuruaren berreskuraketa izan da, 2013an 134.000 turista lortuz (%10,9), 2014an 74.000koa (%5,4), 2010etik zetorren gorakako joerarekin jarraituz, eta ondoren, 2015eko 48.000 turisten galera berria (%3,3) eta batez ere 2016ko 345.000 turistako galera handia (%24,9) eta azkenik, aurtengo berreskurapen inportantea, 162.000 turista baina gehiagoko (%15,5), errepide bidez 1.203.897 turistak lortuz, atzerriko merkatuaren %51,2 batekin bat datorrena.

Aire bidez, sektorearen berreskuratzea beranduago iritsi da, zehazki 2012. urtean lehen aldiz lortutako emaitzak joera aldatuta bat dakarte, aurreko urteekin alderatuz, 2008ko balioak gaintuz. 2012an, joeraren aldatetako 50.500eko turisten igoera bat ekarri zuen (%11,2), 2013an gertatutako 41.500 turistako (%8,3) hazkundeak jarraituz, 2014ko 114.000 turista baina gehiago (%21,1), 2015eko 252.000 turista baina gehiago (%38,5), 2016ko 152.000 turista baina gehiago (%16,8) eta aurten da joera honen egiaztatpena suposatzen duena eta aire bidezko turisten hazkundearen berreskurapena, aurreko urtean baino 30.000 turista baina gehiago (%2,9).






Hazkunde hauekin guztiekin, 2017an aire bidez, 2013an sartutako turisten bikoitza etorri da, hau da, bost urteetan zenbakia bikoiztu egin da, 2013ko 540.527 turistetatik, 2017ko 1.089.489 turistetara, errepide bidez datozen turisten zenbakira berdintzeko joerarekin.

Itsasbidea, aurreko urtearen turisten %2,1a suposatzen duena (48.347), 2016arekin alderatuz %19,6 igo da, 2015ean hasitako hazkundearekin jarraituz.

Burdinbidezko sarrerek lekukotasun izaera bat soilik daukate, Euskadira datozen atzerriko turisten %0,4a bakarrik irudikatuz. Nahiz eta azken urteetan eboluzio nabarmen bat jasan, mantentzen dituen balioak hautemanekin dira.

Azken urteetan bezala, bi sARBIDE nagusi hauen turisten pisuen erlazioa, historikoki eta 2015.urtera arte, errepidearen alde desorekatzen zihon, baina 2016ean, lehen aldiz, turistek aire bidea erabiltzen dute gehien



bat. 2017 honetan, aire bidea %2,9 igo da, errepideak neurri handiagoan egin du, %15,5, aire bidea 114.416 turistetan gaituz, eta erabilitako sARBIDEEN artean lehenengo postua lortuz. Aipatu den bezala, errepide bidezko sARBIDEA bisita turistikoaren %51,2aren arduraduna da eta aire bidea %46,3arena, bi sARBIDEEN artean Euskadiko turisten %97,5a bateratzen dutelarik.

Estatuan turistek erabiltzen dituzten sARBIDEAK, Euskadikoaren oso desberdinak dira.

Estatuan, aurten, turisten %81,4a aire bidez etortzen da eta azken bost urteetan, orokorrean, proportzio berdinean egiten dute, %79,6tik aurten lortutako maximora. Estatuan errepide bidezko sarbidea aukeratzen duten turisten ehunekoak ez du %19a gainditzen azken urteetan eta aurten konkretuki %15,7an kokatzen da.

Itsasontzi bidezko sarbidea aukeratzen duten turisten pisua antzekoa da Euskadin eta Estatuan, bi kasuetan %3aren azpitik mantentzen delarik azken urteetan.


Trenarekin berdin gertatzen da, non Euskadiko eta Estatuko pisuak ez du %0,6a gainditzen bi kasuetan azkeneko bost urteetan

Balio absolutuetan, Estatuan, aire bideak eta burdinbideak hazkunde jarraitu bat mantentzen dute, itsasbideak aldiz, turisten beherakada bat jasaten du 2013 eta 2014 urteetan, beste urteetan ere hazten jarraitzeko.

**2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 -2017**

Euskadi bisitatzen duten turisten %35,2a merkatu frantsesak biltzen du, hau da, Euskadi bisitatzen duten 3 turistetatik bat Frantziako biztanlea da. Merkatu honen ibilbidea azken bost urteetan hazkunde jarraitu batena izan da, 2014. urterarte non bere kuota maximoa aurkezten duen, 1.100.000 turista baina gehiagorekin. 2015ean %4 bat jaisten da eta 2016ean izan da beherakada handiena gertatu den urtea, %28,2 turista frantses galduaz. 2017an aurreko urtearekin alderatuz %7,9 bat berreskuratzen da.


Euskadin, aurten, garrantzian bigarren merkatua, gainerako Europako merkatua da, turisten totalaren %15,3 batekin. Postu hau 2012, 2014, 2015 eta 2016. urteetan ere mantendu du. 2013an britaniarraren alde galdu zuen. Garrantzian bigarren merkatua izanda ere, lehenengoarekin aldea garrantzitsua da urte honetan (360.672 828.054 turisten aurrean, erdia baina gutxiago). Merkatu honek hazkunde ibilbide jarraitu bat markatu du, 2013ko 131 mila turistetatik 2017ko 360 mila baino gehiagoetara, bost urteetan beren ekarpena ia hirukoiztuz.



Aurten garrantzian hirugarren merkatua alemaniarrek lortzen dute 226.837 turistekin, turista guztien %9,6. Gorakako joera hau, 2012ko beherakadak moztu zuen, nahiz eta 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017an


berreskuratu den. Aurtengo interurteko hazkundea %23,0koa izan da. 2013, 2014 eta 2015ean, merkatuen rankingean bosgarren postua zuen eta 2016ean laugarrena.

2017. hontan, rankineko laugarren postua munduko gainerako herrialdeentzat da, turisten %7,7 bat irudikatzen duelarik (181.834). 2013 bere interurteko hazkunde handiena lortzen du %39,0 batekin, 2014ean %7,3 bat, 2015ean %30,1, 2016ean %22,1 eta azken urte honetan %12,9ko beherapen bat aurkezten du. 2012 eta 2013 urteetan turista zenbakian bosgarren postua zeukaten, 2014ean seigarrenera pasaz, 2015ean laugarrenera eta 2016ean hirugarrenera iritsiaz.



Merkatu europarrak, aurtun, turisten %83a irudikatzen du (aurreko urtean baino 2,4 puntu gehiago eta %12,7ko hazkunde batekin), Estatubatuarak %3,3, %27,6ko hazkunde ikaragarri batekin, Gainerako Amerikarrak %5,5, %33,0ko interurteko gorakada batekin eta munduko gainerako herrialdeek %7,7, 2016arekin alderatuz %12,9ko hazkunde batekin.

Aurtun eman dira hazkunde handienak, merkatu alemaniarrari %34,9 batekin, Gainerako Amerikari %33,0 batekin, portugaldarra %26,6 batekin eta gainerako Europari %22,9 batekin dagozkionak.



Estatuan ez dago herrialderik urteetan zehar aldaketa handiak jasan dituenak. Estatuko rankingeko lehenengo lau herrialdeek, azken bost urteetan ez dute beren egoera aldatu, merkatu frantsesak eta alemaniarrek ezik, lekualdaketa bat egiten joan direnak.

Estatuko lehenengo merkatua britainiarra da, aurtengo turisten %23,0rekin. Bigarren postuan gainerako Europako merkatua dago %20,3arekin. Hirugarren postua, aurten alemaniarri dagokio, %14,5 bat daukalarik, frantsesa laugarren postura jaitziz eta Estatuko turisten %13,8a irudikatzen duelarik. 2013an merkatu alemaniarrek hirugarren postua bete zuen eta laugarrena 2014, 2015 eta 2016. urteetan, eta merkatu frantsesak, aldiz, 2013an laugarren postua bete zuen eta hirugarrena 2014, 2015 eta 2016. urteetan. Aurten bosgarren postuan, munduko beste herrialdeetako merkatua dago, %5,9ko irudikapen batekin. Seigarren postuan, merkatu italiarra dago, %5,2a irudikatzen duena. Azken urteetan, bosgarren eta seigarren postu hauek ere txandakatzen aritu dira, salbuespen batzuekin ordea. Munduko beste herrialdeetako merkatuak 2013an zazpigarren postua bete zuen, 2014ean seigarrena, 2015ean zazpigarrena eta 2015ean bosgarrena, merkatu italiarrak ordea, 2013 eta 2014. urteetan bosgarren postua bete zuen, eta hurrengo urteetan seigarrena. 2013. urtean seigarren postua merkatu holandarrarentzat izan zen eta 2015ean bosgarrena merkatu belgikarrarentzat.

Ikusi ahal izan dugun bezala, Estatuan herrialde ezberdinetako turisten arteko aldeak ez dira oso handiak, Euskadin ez bezala, non merkatu frantsesak beste merkatuekiko daukan alde ikaragarria aurkitzen dugun.

**2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea**


Euskadin, atzerriko eskaera turistikoa errepide bidez, distantzia motz eta erdiko turismoaren (frantses eta portugaldar merkatuak) mendekotasun apur batek markatua dago. Jatorri frantsesak eskaera guztiaren %35,2 zehazten du, 828.000 turista gutxi gorabehera. Merkatu honetatik, 785.987 turista frantses errepide bidez datoz, hau da merkatu frantsesaren %94,9, errepide bidez sartzen den turismoaren %65,3arekin eta Euskadiko turisten %33,4arekin bat egiten du.

Errepide bidez datozen turista frantsesen kolektibo honek, duen garrantziarekin, azken urtean %8,8 bateko gorakada bat jasa du.

Merkatu portugaldarrak, nahiz eta garrantzi gutxiagoko merkatua izan 117.327 turista urtean dituen, Euskadin sartzeko errepidearen erabilerrako joera handi bat aurkezten du, %95,4, interurteko %52,2ko gorakadaren ondoren.

Alemaniarrek eta gainerako Europakoak dira, frantsesen eta portugaldarren atzetik, sarbide mota hau erabiltzen duten gehienak, alemaniarrek aurreko urtearekin alderatuz %16,4 bat igo direlarik eta gainerako Europako turistak %72,3 hazi dira. Errepide bidez Euskadira datorren turista portugaldar bakoitzeko, 7 frantsesek baino gehiagok egiten dute, gainerako Europako turista bakoitzeko 8 frantsesek egiten dute eta turista alemaniar bakoitzeko (rankingean laugarrenak direnak), 15 frantsesek baino gehiagok.

Aitzitik, aire bidez, urrunagoko herrialdeetakoak nabarmentzen dira, eta Bilboko nazioarteko aireportuarekin puntuz puntuko konexioak dituzten herrialdeetakoak. Lehenengo postuan, Europako gainerako herrialdeetako turistek osatzen duten kolektiboa aurkitzen da (268.371), ondoren alemaniarrek (174.610) eta gainerako munduko herrialdeetakoak (144.106). Lehenengo bi kolektibo hauek azken urtean, %12,7, eta %44,0 hazi dira hurrenez hurren, aire bidez datorren. Munduko beste herrialdeetako turisten merkatua aldiz %18,3 bat uzkurdu da.



Itsasbideko sarbideari buruz, sarbide hau aukeratzen duten 48.347 turistetatik, Erresuma Batuko turistak dira gehien bat sarbide mota hau erabiltzen dutenak, 2017an 27.973 bidaiari lortuaz (lehenengo urtean baino %77,8 gehiago) turista frantsesekin batera beherapen bat jasan dutenak, %22,8koa, 7.833raino, beste jatorriak sarbide mota honetan ez direlarik esanguratsuak. Egoera hau, Bilbao Portsmouth ibilbidea egiten duen, Brittany Ferries konpainiako ferriari zor zaio.

Itsasbidean gertatzen den bezala, trena erabiltzen duten turisten zenbakia hautemanezina da (10.476) eta munduko beste herrialdeetako merkatua da 4.630 turista mugitzen dituen, aurreko urtean baino %25,5 gutxiago.

Beste kontinente batzuetatik errepide, tren edo txalupa bidez sartutako turistak, bidaiari interkontinentala hegazkinez egin dutelako gertatzen da, eta gero Espainiako muga beste garraio bide hauen bidez zeharkatu dute. Adibidez, amerikar bat, EEUU-tan hegazkin bat hartu duena Alemaniara, eta beste hegaldi bat Alemaniatik Biarritzera. Gero Biarritzetik Euskadira etorri dena autoz edo autobusez, errepide bidezko sarbidea erabili duen turista amerikarra bezala sailkatuta agertuko litzateke.


**2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2017. urtea**

Euskadira etortzen diren turisten erdiak baino gehiagok, frantsesak (%35,2), egun bakarreko egonaldiak egiten dituzte bakarrik (457.670, %55,3a), eta besteek, 2 edo 3 gaueko egonaldiak egiten ditu (280.111, %33,8a), hau da, turista frantsesen %89,1ak mota honetako egonaldiak egiten ditu.

4 eta 7 egun arteko egonaldiak egiten dituzten frantsesak 64.576 turista dira, %7,8 bat direnak, eta aste bateko egonaldia gaintzen dutenak 24.030 dira.

Frantsesen interurteko bilakaera, egonaldiaren iraupenaren arabera, beherakada bat jasan du, %7,4 ostatu-gau bat egiten dutenen artean. Bitik hirura egiten dituztenak %28,8 bateko gorakada bat jasan dute. 4tik 7ra bitartekoak espero bezala igotzen dira, %45,4, eta aste bete gorako egonaldia egiten duten frantsesen egonaldiak %222,3 handi bat igo dira.

Euskadiko turismoan daukaten garrantzia dela eta turista frantsesen jokabidea aztertu eta gero, turista portugaldarren jokabidea aipatzekoa da, gainontzeko jatorrietako merkatuetako jokabide erregularragotik aldentzen direlarik.



Portugaleko turistak %84,0 batean gau bakarreko egonaldiak egiten dituzte (98.575 pertsona). Bitik hirura eta lautik zazpirako egonaldiak pisua galtzen dute batik bat, gainerako herrialdeen jokaeraren antzera. Zazpi ostatu gauek gorako egonaldiak desagertu egiten dira ia.

	GUZTIRA	Frantzia	Erresuma Batua	Alemania	Italia	Portugal	Belgika	Holanda	Europako gainerakoak	Estatu Batuak	Amerikako gainerako estatuak	Beste herrialde batzuk
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.352.201</b>	<b>828.054</b>	<b>168.375</b>	<b>226.837</b>	<b>86.061</b>	<b>117.327</b>	<b>69.461</b>	<b>107.263</b>	<b>360.672</b>	<b>76.757</b>	<b>129.559</b>	<b>181.834</b>
Gau batean	882.845	457.670	55.838	50.606	19.771	98.575	17.494	24.039	90.412	12.604	27.105	28.731
2 - 3 gau	880.003	280.111	70.228	87.403	34.051	8.636	33.715	33.420	165.541	33.814	45.130	87.956
4 - 7 gau	438.326	64.576	33.793	73.745	24.604	9.512	14.877	44.906	80.577	20.208	25.944	45.586
8 - 15 gau	101.968	24.030	5.830	12.670	3.695	236	1.920	2.823	16.321	6.348	15.399	12.696
16 - 30 gau	29.709	1.667	940	1.705	2.916	244	1.114	1.757	3.111	2.353	7.509	6.392
30 gau baino gehiago	19.351		1.746	708	1.023	ns	342	319	4.711	1.431	8.473	473

Bestalde, gainerako Europako 4.711 turistak eta 1.023 turista italiarrak, gainerako Europako 8.473 turistak eta 1.431 turista estatubatuarrek, hilabete bat baino gehiagoko egonaldiak egiten dituztenak.

Bizileku ezberdinen arabera, egonaldi turistikoaren iraupenari buruz emandako interurteko aldaketetan, aldaketa handiak jasan dituzten kolektiboak aurkitzen dira, bai hazten bai txikiagotzen, %50a baino gehiagoko ehunekoetan.

%50etik gora hazi diren, ostatu-gau bat egiten duten turisten artean haiek aurkitzen dira: Erresuma Batuko turistak %102,7rekin, gainerako Europakoak %79,3rekin, portugaldarrak %59,0rekin eta Gainerako Amerikakoak %56,0rekin.

2tik 3ra bitarteko ostatu-gau egiten dituzten turista bakarrak, aurreko nabarmenki hazi direnak, belgikarrak dira, %53,9ko hazkunderarekin eta portugaldarrak dira %50,6 bat jaitsi direnak.

4tik 7ra bitarteko ostatu gau egiten dituztenen artean, turista holandarrak aurkitzen dira %64,9ko hazkunde batekin, eta alemaniarrek %61,1eko hazkunde batekin.

8tik 15erako ostatu gaueko egonaldietan, aurreko merkatu frantsesak 10 aldiz bidertu du turista kopurua, 2016arekin alderatuz. Munduko beste herrialdeetako turistak %128,5 bat igo dira eta gainerako



Ameriketakoak %112,5. Ostatu gau estratu honetan, turismo portugaldarra, interurteko beherapen esanguratsu batekin aukitzen da, %78,0ko galera batekin eta Holandarra %60,5 gutxiago batekin.

Holandako biztanleek, 16tik 30 bitarteko ostatu gaueko egonaldietan, bere bolumena 12gatik biderkatu dute aurreko urteari begira eta merkatu italiarra %75,9 batean hazi da, Frantziako biztanleek ordea, %79,4 bat jaitsi dute eta gainerako Europakoek %57,5 egiten dute behera.

Hilabete baino gehiagoko egonaldietan, britainiarrak %209,8 batean igo dira eta gainerako Amerikako biztanleak %113,8an, munduko beste herrialdeetako biztanleek, ordea, %96,5 atzera egin dute, italiarrek %7,5 batean, alemaniarrek %65,7 batean eta estatubatuarrek %62,8 batean. Merkatu frantsesak, aurten 30 egun baino gehiagoko egonaldietako turistak galdu ditu, 2016ean 1.332 bakarrik zirenak, turista frantsesen %0,16 irudikatzen zituztenak eta turistaren osotasunaren %0,06 bat.

## 2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta erabilitako ostatu motaren arabera. 2017. urtea

Berriz ere, erabilitako ostatu motaren arabera, nahiz eta frantsesek aukeratutako ostatu mota batzuen banaketan beste jatorrizko herrialdeetan baino pisu portzental txikiagoa izan, balio absolutuetan, kasu guztietan, ostatu mota bakoitzeko turista gehien ekartzen dituztenak dira, beste merkatuekin alderatuz.


	GUZTIRA	Frantzia	Erresuma Batua	Alemania	Italia	Portugal	Belgika	Holanda	Europako gainerakoak	Estatu Batuak	Amerikako gainerako estatuak	Beste herrialde batzuk
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.352.201</b>	<b>828.054</b>	<b>168.375</b>	<b>226.837</b>	<b>86.061</b>	<b>117.327</b>	<b>69.461</b>	<b>107.263</b>	<b>360.672</b>	<b>76.757</b>	<b>129.559</b>	<b>181.834</b>
Hotelak edo antzekoak	1.321.120	344.601	110.455	145.066	57.384	77.484	40.014	73.864	231.823	46.814	59.036	134.580
Merkatuko gainerakoak	453.784	203.414	26.583	39.270	11.171	9.273	18.522	20.094	60.672	21.322	33.206	10.257
Merkatukoak ez direna	577.297	280.040	31.337	42.501	17.506	30.570	10.925	13.305	68.177	8.621	37.317	36.998

Horregatik, hoteletan edo antzekoetan ostatu hartzen duten frantsesen %41,6a, 344.601 turista dira, garrantzian bigarrenak diren gainerako Europako turistaren zenbakiaren hirukoitza baina gehiago, hauek 232.000 turistak gaintzen ez dituztelarik.

Merkatuko gainerako establezimenduak, non landetxeak, kanpinak eta alokairuzko etxebizitzak aurkitzen ditugun, turista frantsesen %24,6ak nahiago ditu, garrantzian hurrengoan baino 3,3 aldiz gehiagok, gainerako Europakoek.

Merkatuz kanpoko establezimenduetan, berezko etxebizitzak eta familia edo lagunaren etxebizitzak aurkitzen dira batik bat, turista frantsesen %33,8ak erabiltzen dituztelarik, gainerako Europako biztanleek baina 4 aldiz gehiago, jarraitzen dietenak direlarik.

Frantziatik datozen turistaren interurteko aldaketa hotel eta antzekoen erabileran 2016etik jaitsi egin da %4,8 batean eta merkatuko gainerako establezimenduetan igo egin da %54,9 batean. Turista frantsesen merkatuz kanpoko establezimenduen erabilera %2,2 batean igo da.



Frantzia ez den herrialdetan bizi diren gainerako turistaren artean, hotela da baita ere ostatu mota nagusia, pisu desberdinekin, gainerako Ameriketako %45,6tik, gainerako munduko herrialdeen %74,0raino.

Jatorrizko bizilekuaren arabera turista gehienek erabilitako ostatu mota hotela da, merkatuz kanpoko establezimenduak atzetik daude eta azkenik merkatuko gainerako establezimenduak. Salbuespenak merkatu belgiarra, holandarra eta estatubatuarra dira, non merkatuko gainerako establezimenduen erabilera merkatuz kanpokoaren erabilera baino gaineratik kokatzen den.

Portugaleko biztanleen jokabidea aipatzea merezi du, merkatuko gainerako establezimenduak %7,9 batean bakarrik erabiltzen dutenak.


Hotel eta antzekoetan ostatu hartzen duten turistaren artean, aurrean, Erresuma Batuko biztanleek %41,9 ko hazkunde positibo bat jasan dute, alemaniarrek %49,8koa, portugaldarrek %32,5, belgikarrek %16,2, gainerako Europakoek %17,4 eta gainerako Ameriketako biztanleek %12,4 gora egin dute. Hazkunde negatiboa, frantziarren artean gertatu da, %4,8ko beherapen batekin, italiarren artean %12,2 batekin, holandarren artean %0,6, estatubatuarren artean %28,2 eta munduko beste herrialdeetakoaren artean %5,0 jaitsiera batekin.

Merkatuko gainerako ostatu moten erabilera buruz, herrialdea begiratu, interurteko aldaketa oso desberdina da ere. Frantsesen aldetik erabilera %54,9 bat igo da, alemaniarren aldetik %25,3, portugaldarren aldetik %217,1, belgikarren aldetik %72,6, gainerako Europakoaren aldetik %29,4 eta gainerako Ameriketarren aldetik %89,2. Ostatu mota hauen erabilera behera egiten du britaniarren artean %4,2an, italiarren artean %54,5, holandarren artean %9,6, estatubatuarren artean %12,2 eta munduko beste herrialdeetakoaren artean %58,5 batean.

Azkenik, merkatuz kanpoko establezimenduen erabilera interurteko aldaketa, frantziarren artean %2,2 igo da, alemaniarren artean %6,5, holandarren artean %28,0, gainerako Europakoaren artean %39,1 eta gainerako Ameriketakoaren artean %36,5. Erresuma Batuko biztanleen artean %5,4 jaisten da, Italian %32,9, Portugalen %2,3, Belgikan %22,6, Estatu Batuetan %48,1 eta munduko beste herrialdeetan %12,4.



**2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2017. urtea**



Pakete turistikoa normalean errepide bidez ez datozen turistek erabiltzen duten produktua da, horregatik, Euskadi bisitatzen duen merkatu frantsesean, 2.653 turistek bakarrik erabiltzen dute, dauden 828.054tik eta portugaldar merkatuan aurten ez dago turistarik pakete turistikoa erabiltzen duenik.

Pakete turistikoa baten bidez bere bidaiara antolatu duten turistak 81.880ra jaisten dira, 2.352.201 diren turista guztien %3,5. Pakete turistikoa gehien erabiltzen dutenak munduko beste herrialdeetako biztanleak dira, 22.830, Erresuma Batukoek jarraitzen dietelarik (11.667), Estatu Batuetako biztanleak ondoren (9.958), alemaniarrek (9.004) eta gainerako Europako biztanleak ondoren (8.834)

Lehenengo urteari begira, pakete turistikoa erabilera %40,2 batean jaitsi da, erabiltzen ez duten turisten %12,5eko gorakadaren urtean..


**2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 – 2017**

2017ko turismoaren zati handiena, %68,7, aisian oinarritutako ereduarekin sartzen da Euskadira (1.615.230 turista). Gainerakoak, lana (%12,1) eta beste arrazoiak (%19,6) artean banatzen dira.


Aurten aisiagatik, lehenengo urtean baino 144.465 turista gehiago etorri dira, interurteko %9,8ko gorakada bat eraginez.

Euskadira aisiagatik datozen turistak azken urteetan igotzen joan dira, 2016. urtean izan ezik, atzerapen txiki bat jasan dutelarik. 2014ean %11,6, 2015ean %8,9 batekoa eta orain da 2017an bere kota historiko altuena lortzen duen urtea.

Lanagatik etortzen diren turistak, aisiarengatik datozenen jokabide berdina erakusten dute, 2014ean %8,8 bat igoaz eta 2015ean %25,2 bat jaitsiz, 2016ean %2,5 jaitsiz eta aurten %12,1 igoaz, non kota historiko altuena lortzen da arrazoi honetan.



Gainerako arrazoiak ere aisia eta lanaren arrazoiaren joera berdina jarraitzen dute. Beste arrazoiengatik etortzen diren turistak 2014ean %4,9 igo ziren eta 2015ean %5,0 eta 2016ean, %9,6 bat jaisten dira, aurreko %4,2 bat berreskuratzeko. Arrazoi honen kota historiko altuenak 2015. urtearekin bat egiten du.



Bai Estatuan bai Euskadin, arrazoiaren araberako eskaera turistikoak antzeko eredu bat mantentzen du, aisiaren arrazoiak delarik nagusia. Euskadin aisiaren arrazoiak %68,3tik %69,3ra kulunkatzen bada, Estatuan arrazoi hau garrantzitsuagoa da oraindik, bisita turistikoaren %84,2etik %86,8ra kulunkatuz, ia 20 puntu portzentual gaineratuz.

Oporraldi edo aisiko arrazoi honek, azken urteetan Euskadin jokaera aldakor bat dauka, 2015 eta 2016ko beharrekak kenduta, baina turisten balio absolutuei begira, urtero gorakako ibilbide bat dauka 2016. urtean ezik, Estatuan ordea, arrazoi honengatik datozen turistak urtetik urtera gora egiten duten, nahiz eta 2014 eta 2015. urteetan, banaketa terminoetan puntu portzentualen bat galdu. Estatuak aisiaren arrazoiarako joera

izugarri bat erakusten du, eta hau eskaera turistiko konkretu batzuen isla baino ez da, hau da, eguzkia eta hondartzan oinarritutakoak, Euskal Herriaren kasuan indar gutxiago dutenak, bai azpiegitura faltagatik bai klimagatik.

Tradizionalki, Euskadira zetorren turismoaren artean salerosketen arrazoiak duen pisua garrantzitsua zen, eskaera turistikoaren zati garrantzitsu bat bideratuz. Gaur egun, nazioarteko krisi ekonomiko dela eta oraindik, honen pisua egonaldi turistikoaren %14,7an kokatzen da, aurreko eragiketa baino lau dezima gehiago suposatzen duena, eta Estatuan daukan eraginaren bikoitza baino gehiago. Ezberdintasuna hau, euskal industriaren bizitasunaren eragina da alde batetik eta beste alde batetik, aisia, eguzkia eta hondartzako eskaera masiboko modelo faltagatik.


Beste arrazoiaren modeloekin antzekoa gertatzen da. Euskadik osasun aisiko eskaera bat dauka bizitasuna hartzen ari dena, eta ohiko bezeroak finkatzen dituena. Gainera, bere mugako egoerak eta mugimenduen joera iragazkor eta ia eskualdekoak, arrazoi pertsonalengatik etortzen diren fluxu turistikoak azaltzen ditu, Euskadin Espainian arrazoi honek duen bikoiztera iristen delarik. Hala ere, salerosketen arrazoiarekin gertatzen den moduan, pisu erlatibo handi honek zer ikusia dauka aisi modelo masiboen faltarekin.

**2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea**

Euskadira etortzen diren atzerriko turistak bidaiaren arrazoiarengatik eta sarbidearengatik aztertuz, antzeman daiteke, lur bidea norakora joateko era bezala, aisia edo oporrengatik datozen turistek nahiago dutela, 942.226 turista lurbidetik, 621.004 aire bidezkoen aurrean. 2017. urte honetan, errepide bidez aisiagatik etortzen diren turistak %17,1 bat hazi dira 2016ari begira eta aire bidez etorri direnak %0,3 bat igo dira. Arrazoi honengatik ere 42.332 turista daude itsabidea aukeratu dutenak eta azken urtean %19,8 bat handitu dira, eta 9.668 turista daude trenbidea aukeratu dutenen artean, 2016aren aurrean %12,8 jeitsi direlarik.

Esan daiteke arrazoiak lana edo salerosketak direnean, aire bideak indar gehiago hartzen duela esan daiteke, lur bidearen aurrean (41.647 errepide bidez eta 301.334 aireportu bidez). Aurten, lanaren arrazoiarentzat errepide bidezko sarbideak behera egiten du (%43,4 bat) eta aire bideak gora egiten du (%28,6). Itsasbidea eta burdinbidea ia hutsalak dira.

Beste arrazoiengatik errepide bidez datozen turistak, aurten %34,1 bat moztu dira, 220.023 turistara iritsiz. Aire bidez etortzen direnak, %18,6ko uzkuradura bat jasan dute, 167.143 turistetara iritsiz. Itsasbidez, interurteko %26,0ko beherakada baten ondoren, 3.587 turista bakarrik ditugu. Trenez ere jeitsi egin dira, %55,8 bat, 455 turista bakarrik lortuz



## 2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta bizilekuaren arabera. 2017. urtea

Turistak bidaltzen dituzten merkatuetan arrazoi ezberdinak duten pisua aztertzeko, berriz ere, merkatu frantsesa banatzen da, hain handia izanik, beste merkatuen azterketa nahasten baitu.

Ikus daitekeen bezala, aisiaren arrazoiak turista frantsesen %77,3a biltzen du, interurteroko gorakada %8,3koa delarik. Euskadi lana eta salerosketen

arrazoiengatik ia hogeita

hamabost mila frantsesek bisitatzen dute, frantses guztien %4,2a, aurten %30,0 bat jaitsi ondoren. Hirugarren postuan beste arrazoiak daude, frantsesen %18,5 ekartzen dituelarik, 2016arekin konparatuz %20,5 hazi direlarik.

Merkatu guztien ezaugarri nagusia, aisiaren arrazoiaren bolumen handia da, beste arrazoiekin alderatuz.

Erresuma batuko turisten %71,2ak, Euskadi aisia eta oporregatik etortzen da eta %13,0 beste arrazoiengatik eta %15,8 lanagatik. Lehenengo interurteko aldaketa %33,6 igo da 2016arekin alderatuz, %32,7 jaitsi da beste arrazoiarena eta lanarenak %61,9 igotzen dira.


Turista alemaniarrek aisiagatik %66,3 bat lortzen dute, beste arrazoiengatik %10,5 eta lanagatik %23,5. Aisia %33,7 bat igo da eta lanaren arrazoiak, %86,3 beste arrazoiak ordea %14,6 jaitsi dira.


Turista italiarrek Euskadira aisiagatik %54,5 batean etortzen direla adierazten dute, beste arrazoiengatik %16,5 eta lana edo salerosketengatik %29,1. Merkatu hau, orokorki, interurteko %25,8 bat jaitsi da, aisiaren %42,2ko beherakadagatik eta beste arrazoiaren %23,6ko beherakadagatik, nahiz eta lanagatik datozen turisten %53,1eko gorakada egon den.

Merkatu portugaldarra, Euskadi bisitatzera ekartzen dituen arrazoi nagusia aisia da (%55,2), beste arrazoiak jarraituz %35,0 eta neurri txikiagoan, lana %9,8 batekin. Aldagaiari begira, aisiagatik turistak %148,8 igotzen dira, beste arrazoiengatik %38,0 eta lanagatik datozen turistak %68,7 jaisten dira.

Turista belgikarren jokabidea bidaiaren arrazoiaren aurrean turista frantsesen antzekoa da. Kasu honetan, aisiagatik belgikarren %71,2 etortzen dira, lanagatik %10,4 eta beste arrazoiengatik %18,5. 2017. urte honetan, aisiagatik etorri diren belgikarrak %11,6 bat igo dira, lanagatik %64,4 bat eta beste arrazoiengatik %20,9 igo dira.

Aisiagatik etorri diren turista holandarrek, holandar turista guztien %75,2 bat irudikatzen dituzte, aurten %11,3 bat hazi ondoren, lanagatik datozenak %15,5 irudikatzen dituzte, %14,1eko interurteko beherakadarekin eta beste arrazoiengatik datozenak %9,3, %33,8ko galera batekin.





Gainerako Europako turisten kasuan, merkatu italiarraren egitura antzeko bat dauka. Aisiak %56,6 suposatzen du eta lanak %28,2 eta beste arrazoiak %15,2. Interurteko hazkundera positiboa izan da bai aisiarentzat (%15,6), bai lanarentzat (%52,3) eta bai beste arrazoiengatik (%9,6). Merkatu estatubatuarrean, turisten %74,3ak aisiagatik bidaiatzen du, %9,5ak lanagatik eta %16,2k beste arrazoiengatik. Arrazoi hauetan interurteko aldakuntza aisiagatik (%24,2) etortzen diren turisten beherakadak definitzen du, lanaren beherapenak %52,9 eta beste arrazoiengatik %18,9ko beherapenak. Gainerako Amerikako biztanleak %69,2 aisiagatik egitea aitortzen du, %21,7 beste arrazoiengatik eta %9,1ek lanagatik. Interurteko aldakuntza negatiboa izan da lanean, %21,3 batean jaitsiz eta positiboa aisia %41,8 igoaz eta beste arrazoiengatik %46,1. Munduko beste herrialdeetatik aisiagatik datozen turistak %61,9 dira, lanagatik datozenak %27,5 eta beste arrazoiengatik %10,7. Kasu honetan interurteko aldaketak negatiboak dira aisia eta beste arrazoiengatik, %19,1 eta %35,1 jaitsiz hurrenez hurren, eta aldaketa positiboa lanaren arrazoiengatik, %25,6.

**2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arabera. 2017. urtea**

Bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arteko erlazioak, arrazoi ezberdinekin lotutako jokaera bereizgarriak erakusten ditu.


Aisia eta oporreetatik etortzen diren turistak, erdiak baino gehiagok, hotela erabiltzen dute, gainerakoak merkatuko eta merkatuz kanpoko establezimenduen artean erdibitu egiten dira, nahiz eta gainerako merkatuko nagusitasuna egon .

Lanagatik bidaiatzen dutenek hotela aukeratzen dute orokorrean.

Beste arrazoiengatik datozen turistek merkatuz kanpoko establezimenduak aukeratzen dituzte, hotelak eta merkatuko beste establezimenduak jarrian daudelarik. Ezberdintasuna honek, egonaldiaren iraupenarekin dauka zer ikusia. Egonaldi laburretan turistek hotela aukeratzen dute eta egonaldia gora doan ahala, ostatu mota merkatuz kanpoko establezimenduak izan ohi dira (berezko edo familia edo lagunaren etxebizitzak, hau da, doan direnak).


Beraz baieztatu daiteke, Euskadi bisitatzen duten atzerriko turistentzat, erlazio argi bat dagoela bidaiaren arrazoi eta erabilitako ostatu motaren artean.

Interurteko aldatetaren ganean, aipagarria da gainerako merkatuko establezimenduek erregistratutako %24,6ko hazkunde orokorra, aisiagatik datozen turisten %26,5ko hazkunde bat suposatzen duena, lanagatik datozenen %14,9ko beherapena eta beste arrazoiengatik datozenen %23,6ko hazkunde berri bat, hotelak eta merkatuz kanpoko beste establezimenduak erabili dituzten turistak ordea, azken urtean igo egin dira, edozein dela arrazoiak, %7,7 eta %2,3 hurrenez hurren. Aisiagatik hoteletara datozen turistak %6,1 bat igotzen dira, lanagatik %14,0 eta beste arrazoiengatik %5,6. Aisiagatik merkatuz kanpoko beste establezimenduak erabiltzen dituzten turistak %3,4 igotzen dira baita ere, lanagatik %7,8 eta beste arrazoiengatik %0,3.




**2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 - 2017**

Atzerriko eskaera turistikoa 2017an egonaldi oso laburrek menderatzen dute, aurreko urteko proportzio berdinean ia. Ostatu-gau bateko turistak (%37,5) aurten 42.155 bidaiaritan igo dira. 2tik 3 bitarteko ostatu gauetara bikoiztu egin dira, 97.500 turistetan igo dira (%37,4). Bi egonaldi motek 139.655 turistako interurteko saldo positibo bat ekartzen dute, 1.762.848 turistetara iritsiz (%74,9). Aste beteko egonaldia egiten duten turistak, 4tik 7 gauera (438.326) turisten %18,6 bat irudikatzen dute 63.568 turistako hazkunde batekin eta aste bat baino gehiagoko egonaldia egiten duten turistek %6,4 irudikatzen dute, azken urtean 5.652 turistetan jaitsi direlarik.



1, 2 eta 3 gaueko egonaldiak oso arruntak dira, asteburu pasako edo zubietakoak.

Ostatu-gau bateko egonaldiak aurreko urtearekin alderatuz %5,0 igo dira, eta azken bost urteetako ibilbidea gorakako joera bat erakusten du. 2 eta 3koak %12,5 igo dira, azken urteetan bezala, 2016a kenduta. Aste batekoak %17,0 igo dira ere aurten, eta azken urteetan gorakako joera zuten, 2016a kenduta baita ere, bi astekoekin gertatzen den bezala, gorakako ibilbidea jarraitzen zutenak 2016. urtera arte, aurten %20,3 berreskuratu dutelarik. 16tik 30erakoak aurten, %16,5 bat jaitsi dira, 2016rarte gorakako ibilbide bat zutenak, eta urte honetan jaitsi egin zirena, aurten bezala. Azkenik, hilabeteko egonaldiak berreskuratu egin dira aurreko urtetik %46,7 batean, azken lau urteetan gorakada jarraitu bat jasan eta gero ostatu gau luzera honetako geruzan.



Turisten ostatu gauen egitura Euskadin, oso bestelakoa da Espainian atzerriko turistek erakusten dutenarekin alderatuz. Estatuan 4-7 bitarteko ostatu gauekoak dira nagusiak, hiru egunetik gorako bisitak, azken bost urteetan, %75 gutxi gorabehera suposatzen dutelarik, hauek Euskadin %27ra ez dira iristen ordea.

Turisten egonaldiaren iraupenaren konparatiboa egiten bada Euskadi eta Estatuaren artean, argi dago eredu turistiko oso ezberdinak dituztela. Euskal Erkidegoa gertuko inguruaren oso mendekoa da, sarbide azkarra, errepide bidezkoa, hirietako aisia, arrazoi kultural eta pertsonaletan oinarritutako eredu dauka, Espainiako



eguzki eta hondartzaren bisitaria ez dagoelarik eta egonaldi behar ezberdinak eta sarbide ezberdinak dituelarik.


2017ko ostatu-gau bateko egonaldia egiten duten turistak oso pisu ezberdina dute Euskadin eta Estatuan (%37,5 eta %5,8 hurrenez hurren). 2 eta 3 gauekoak ere oso ezberdinak dira, %37,4 Euskadin eta %19,6 Estatuan. 4tik 7ra Euskadin %18,6 dira eta Estatuan %47,8, 8tik 15 ostatu-gauerako egonaldiaren pisua Euskadin %4,3koa da eta Estatuan %20,5, 16tik 30 gauerako zatian, Euskadin %1,3 bat daukagu eta Estatuan %4,3, eta hilabetea baino gehiagoko egonaldietan Euskadin %0,8 eta Estatuan %2,0.

**2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea**

Aire bidezko sarbideak lur, itsasbide eta burdinbidezkoak baino egonaldi luzeagoak ekartzen ditu. Ostatu-gau bakarreko egonaldiak beste sarbideek baino proportzio txikiagoan sortzen ditu, eta egonaldi gehienak 2 eta 15 bitarteko ostatu-gaukoetan banatzen ditu. Bere bisita ohizkoenak 2 eta 3 bitarteko ostatu-gauen artean daude.

Bi aste baino gehiagoko egonaldiak, Euskadira etortzen diren atzerriko turisten %10,2 batek egiten ditu.

Bestalde, lur bidezko sarbideak patroiz orokorrari egitura ematen dio, ostatu-gau bat eta hiru arteko egonaldiak nagusitzen dira, eta aste bat baino gehiagoko egonaldi gutxi sortzen dira. Konkretuki, errepide bidez datozen turisten artean ostatu-gau bat egiten dutenak 686.254 bidaiari dira, 2 eta 3 ostatu-gau bitartekoak 385.374 batzen dituzte, 4tik 7ra bitartekoak 97.899, 8tik 15era bitartekoak 28.710ra jaisten dira, 16tik 30era bitartekoak 5.280 dira soilik eta 30 ostatu-gau baina ez dira 400 turistetara iristen.



Aire bidez datozenak eta ostatu-gau bat egiten dutenak Euskadi bisitatzen duten turisten 168.226 dira, 2 eta 3 ostatu-gau bitartekoak maximoa lortzen dute 475.555 turistekin, 4tik 7ra bitartekoak 335.046 lur bidezko turistak 3 aldiz baino gehiagotan gaudituz, 8tik 15era bitartekoak 70.626 turistetan jaisten dira, errepide bidezkoak 2 aldiz gehiagotan gaudituz. 16tik 30era bitartekoak ere errepide bidezkoak gauditzen dituzte 21.986 turistetan, 4 aldiz gehiago eta 30 ostatu-gau baina gehiagokoak errepide bidezkoak baino 47 aldiz gehiago dituzte, 18.042 turistak lortuz.

Itsasbideko turistak, errepide bidezkoen jokoera antzeko bat erakusten dute (baina ia garrantzi gabeko balioekin), turisten kopurua, egonaldiaren alderantzizko proportzionala delarik, hau da, egonaldi luzeagoak, turista gutxiago ekartzen dituzte.

Itsasbideko 48.347 turistetatik, %53,9k ostatu-gau bat egiten dute eta 2tik 3ra %26,0k. %79,9 egonaldi laburrekoak.

Trenbidez sartzen diren turisten banaketa aire bidezkoenaren antzekoa da, 2 eta 3 ostatu-gauko egonaldiak nagusituz. Guztira 10.476 turista trenez sartzen dira. Ostatu gau bat %21,9k egiten dute, 2tik 3ra ostatu-gau %62,3, hau da %81,4 ere egonaldi laburrak dira.



**2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta ostatu motaren arabera. 2017. urtea**


Egonaldi laburretan hotela da ostatu motarik erabiliena, 1 eta 3 ostatu-gau bitartekoak eta batezbestekoan 4tik 7ra bitarteko ostatu-gaukoek, (ostatu-gau batekin 468.003 turista, 2rekin 561.786 eta 4tik 7ra 266.233). Logikoa den bezala eta bere kostu altua dela eta beste ostatu moten aurrean, egonaldia luzatzen doan hala, turistek ostatu mota merkeagoak bilatzen dituzte.

4tik 7 bitarteko ostatu-gauetako egonaldietarako, hotelaren erabileraren pisua beheraka joaten hasi da, eta merkatuz kanpoko ostatu moten pisua igotzen hasi da. Hotela merkatuko gainerako establezimenduengatik ere aldatzen hasi dira batzuk, alokairuzko etxebizitzak kasu bezala. Hala ere beste ostatu mota hauek ez dute lortzen hotela berdintzea egonaldi mota honetan.

8tik 15 bitarteko ostatu-gau egiten dituzten turisten erdiak (%42,0) merkatuz kanpoko establezimenduen hazkundera irudikatzen dute (berezkoak eta alokairuan), hotelen ostatu motaren beherapena eta merkatuko gainerako establezimenduen igoera, egonaldi laburragoen banaketaren aurrean.

Egonaldiaren iraupena gora doan heinean, ostatu mota merkeagoetara lekualdaketa bat gertatzen da. 16tik 30 bitarteko egonaldietan hotelen erabilera %12etik bera aurkitzen da (3.439 turista), merkatuz kanpoko establezimenduen erabilerari, familia eta lagunen etxebizitzei, %75,3 (22.375 turista), eta merkatuko gainerako establezimenduen, alokairuzko etxebizitzak, %13,1 (3.895 turista), lekua utziz.

Hilabete bat gainditzen duten egonaldietan, hoteletan ostatua hartzea desagertu egin da eta merkatuz kanpoko establezimenduak 7.252k erabiltzen dute, egonaldi luzeak egiten dituzten turisten %37,5. Merkatuko gainerako establezimenduetan ostatu hartzea 12.098 turistetan igo da, %62,5.




Merkatuz kanpoko establezimenduetan ostatu gau bateko egonaldien interurteko aldaketa %5,0ko hazkundero orokor bat suposatzen du, %5,6 bat hotelentzat eta merkatuko beste establezimenduentzat eta %2,3ko igoera bat merkatuko beste establezimenduentzat. 2tik 3ra ostatu gauetako egonaldiek, interurteko hazkundera bat daukate, ostatu gau bakarrekoak bezala, erabilitako ostatu mota edozein dela ere, hoteletako turistak kasu honetan %5,1, merkatuko besteak %44,1 eta merkatuz kanpoko establezimenduetako turistak %12,5 igoaz. 4tik 7rako ostatu gauetako egonaldietan, merkatuko beste establezimenduak %29,3 igo egin dira, hotelak %21,6 eta kasu honetan, egonaldi motxagoen aurka, merkatuz kanpoko establezimenduetako turistak %0,7 bat jaitsi dira. 8tik 15era bitarteko ostatu gauetako kasuan, hoteletan ematen da beherapena, %22,3, eta

hazkundera merkatuko beste establezimenduetan %101,2 eta merkatuz kanpoko establezimenduetan %11,9, ematen da. 16tik 30era bitarteko ostatu gauetako egonaldietan, hoteletako turistak dira %81,0 batean hazten direnak, eta merkatuko beste establezimenduetako egonaldiak eta merkatuz kanpoko establezimenduak aldiz behera egiten dutelarik, %24,9 eta %21,5, hurrenez hurren. Azkenik, hilabete baino gehiagoko egonaldietan, merkatuz kanpoko establezimenduetako erabilera behera doa, %66,5 batean, merkatuko beste establezimenduen erabilerak behera egiten du %17,7 batean. Hilabetea baino gehiagoko egonaldi hauetan ez dira atzerriko merkatuetako turistarik aurkitzen, beraz, ez dago interurteko aldaketarik ere ez.


**2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 -2017**

Azken urteetako joerari jarraituz, turistek hotela nahiago dute gehien bat. Ostatu mota honek 2014ean 170.989 turistako hazkundera handi bat jasan zuen, %15,7bat 2013arekin alderatuz, 2015ak, berriz igoera bat erakusten du, 69.463 turistarekin, %5,5 gehiagorekin 2014arekin alderatuz, 2016ean aldaketa negatiboa izan zen, 105.175 turistetan jaitsiz (%7,9) eta orain da, 2017an, galera honi itzulia eman zaion urtea, 94.855 turista berreskuratuz, %7,7.



Merkatuko beste establezimenduak erabiltzen dituzten turistak, hotela erabiltzen duten turisten bilakaera berdina irudikatzen dute, baina turista bolumen txikiagoekin. Azken urteotan, establezimendu hauetako turistak, igo egin dira, 2016. urtean ezik, 209.504 turista galdu zirenean, %36,5. 2014ean, ostatu mota honetako turistak %7,3 batean igo ziren, 2015ean %9,6 eta 2017an %24,6 bat.

Merkatuz kanpoko establezimenduak erabiltzen dituzten turisten jokabidea beste establezimenduenaren oso bestelakoa da. Kasu honetan, 2012tik 2014ra turistek behera egin zuten, eta 2015ean izan zen joera aldatu zen urtea, %28,9 igoaz eta 2016an oraindik gehiago, %32,8 eta %2,3 2017an.




Oro har, Euskal Herriko eta Estatuko ostatu moten egituraren eskaera antzekoa da: hotelaren nagusitasuna eta antzeko proportzioak merkatuko beste establezimendu eta merkatuz kanpoko establezimenduen erabilerarentzat. Desberdintasunen artean, Euskadiko eskaerak merkatuz kanpoko establezimenduekiko daukan joera txikiagoa eta merkatuko beste establezimenduekiko daukan joera handia 2013, 2014 eta 2015. urteetan, eta alderantziz 2016 eta 2017an, Estatuan aldiz, ostatu mota hauen arteko ezberdintasunak txikiagoak dira, eta gainera 2015. urtea Euskadin erakusten duen jokabide ezberdin bat erakusten du.

Azken urteetan bi inguruek ostatu motaren egitura nahiko egonkorra mantendu dute. Nahiz eta aldaketa asko ez izan, joera ebolutiboak gogokoen diren ostatu moten ezarpena dakar, batez ere hotelen azpiegituraren pisua, bi inguruetan.

2017. urte honetan, ostatu motaren banaketak Espainiara datozen atzerriko turisten artean, hotelen eta merkatuz kanpoko establezimenduetan eskaeraren beherapen bat ekartzen du, eta merkatuko beste establezimenduen gorakada bat, Euskadin gertatzen den bezala.

## 2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 –2017


Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera, pakete turistikoa gabe etortzen dira ia guztiak (%96,5), 2017. urte honetan.



Aurreko urtearekin konparatuz gertatutako eboluzioa, pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen %12,5eko gorakada bat islatzen du eta erabiltzen dutenen %40,2ko beherapena bat.

Teknologiaren erabileraren hazkundera, Internetena adibidez, bidaien antolaketa pertsonalerako mesedegarria da, informazioa eta salneurri lehiakorragoak lortuz.

Antolaketa interurteko aldaketa azken bost urteetan iraunkor mantentzen da, pakete gabeko turistak %93,6 eta %96,5 artean mantentzen direlarik, eta pakete turistikoa antolaketa mota bezala erabiltzen duten turistak %3,5 eta %6,4 bitarte daudelarik.



Antolaketa motan egonkortasun hau Estatuko turistetan ere mantentzen da, baina Estatuan pakete turistikoa erabiltzen duten turisten proportzioa Euskadin baina handiagoa da. Pakete turistikoa erabiltzen ez duten Estatuko turisten antolaketa, azken bost urteetan %69,4tik %72,8ra aldatzen da, eta pakete turistikoa erabiltzen dutenak %27,2tik %30,6era doaz.

**2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren eta sarbidearen arabera. 2017. urtea**


Bidaia antolatzeko moduak, sarbidearekin erlazioa dauka, trenez datozen turistek eta errepide bidezko ia turista guztiek pakete turistikoa ez baitute erabiltzen, pakete turistikorekin, zerbitzu pribatuko autobusetan datozen turista gutxi batzuk kenduta.

Errepide bidez, pakete turistikoa gabe bidaiatzen duten bidaiariak 1. 200.297 dira aurrean, lehengo urtean baino %15,4 gehiago eta pakete turistikorekin bidaiatzen dutenak 3.599 interurteko %37,6ko beherakada batekin.

Aire bidez etortzen direnen artetik, 1.015.0887 turistek pakete turistikoa gabe egiten dute, interurteko %9,7 gehiagoko hazkunde batekin, eta pakete turistikorekin aurrean 73.594 tan jaitsi dira, lehengo urtean baino %44,7 gutxiagorekin.


Itsasbidean, 43.660 turistek ez dute pakete turistikoa erabiltzen eta 4.687k erabiltzen dute. Itsasontzian bidaiatzen dutenen artean, pakete gabe egiten dutenen gorakada %11,0koa da eta erabiltzen dutenena %327,0ko gorakada.

Trena erabiltzen duten turista guztiak, bere bidaia pakete turistikoa erabili gabe egin dute (10.476) eta aurrean %15,8 jeitsi dira.



### 3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK


Euskadik duen mugako izaerak eta konkretuki mugaren bi aldeen arteko erlazio eta harremanen eskualdeko jokaerak, txangozaleen aktibitate handi bat eragiten du. Honi turismo masibo bat ez dagoela gehitzen badiogu, adibidez eguzki eta hondartza bezalakoa, atzerriko bisiten %75,6a ostatu-gaurik gabekoa dela antz eman daiteke. Mugatik Donostia/San Sebastian-en gertutasunak, eta batez ere, muga honen inguruan dagoen gune urbano garrantzitsuak, funtsezko suertatzen dira erlazio komertzial, laneko eta aisiakoetan, fluxu konstanteetan islatuz.



Txangozale hauen jokaerak, aldagai ezberdinen aurrean, erakutsiko digu, badaudela gurutzatze batzuk ez dutenak interesik, txangozaleen guztizkoak ematen duten emaitza berdinak baitituzte.

Aldagaiak hauek dira: sarbidea, errepide bidezko txangozaleak %99,4 bat osatzen dutelarik eta turistena jatorrizko herrialdea edo bizilekua, %95,1a txangozale frantsesak direlarik.

2017an Euskadira 7.287.892 txangozale inguru iritsi dira. Honek gorakada moderatu bat suposatzen du, bolumenaren %1,6 aurreko urtean lortutako bolumenarekin alderatuz.



Euskadira etorri diren atzerriko txangozaleak, ikerketa honen hasieratik, 1998an, hazkunde jarraitu bat jasan dute. 2007 eta 2008. urteetan beherakada txiki batzuk egon ziren, %3,1 eta %1,8 hurrenez hurren, ondorengo urteetan berreskuratuz. 2011. urtean %13,8ko gorakada nabarmen bat egon zen, 9.800.000 atzerriko turistetara iritsiaz ia

eta azken bost urteotan txangozaleen zifra jaisten joan da etengabe.


2013. urtetik 2016era, ia bi milioi eta erdi txangozale galdu dira eta 2017 honetan joera hau aldatu egiten da pixka bat, 112 mila txangozale berreskuratuz.

Atzerapen hau, turismoari begira, turistena zenbakian egon de hazkundearekin orekatzen da, eta esan daiteke urte bateko txangozaleak hurrengo urteko turista potentzialak direla. Hau da gainera Administaritzak eta sektore turistikoko profesionalak bilatzen dutena.

Txangozaleen kasuan, norako bakarra dagoenez, norako nagusia Euskadi edo norakoa Euskadi datuen aldaketak ez du eraginik, beraz seriea osoa mantentzen da, hausturarik gabe.

### 3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013–2017

Nahiz eta txangozaleen seriean hausturarik ez dagoenez, azken bost urteotan hileroko eboluzioarekin grafiko bat aurkeztu daiteke, bertan ikus dezakegu, hilabeteek urteetan zehar antzeko jokoera bat mantentzen dutela, urteroko turisten bolumenaren hazkunde eta beherakadarekin noski.



Udan bisitak izugarri igotzen dira, abuztuan batez ere, udaberrian eta udazkenean pixka bat gutxiago. Otsaila elkarrekintza gutxien daukan hilabetea da, urtetik urtera, maila gorenean dagoen hilabetearen bikoitza. Maila gorena duen hilabete hau, historikoki abuztua izaten zena, azken bi urteotan (2016 eta 2017) uztaila izatera pasatzen da.

Urtaroko izaera honi aisiak eta salerosketa erlazioak laguntzen diote, eskualdeko hartu-emanekin, eta ez nazioartekoekin, gehien bat. Hala ere, urtaroko izaera hau txikiagoa da turisten kolektiboan baino.

Interurteko aldaketa txangozaleen artean ez da homoginoa 2017 urtean zehar (%1,6ko gorakada).

Txangozale gehien galtzen dituen hilabetea martxoa da %20,8ko beherakada batekin, 131.951 txangozale gutxiago, abenduko beherakadak jarraituz 114.078 txangozaleekin (%1,8). Urtarrileko 83.559 txangozaleen galera ere nabarmena da (%15,1) eta ez hain nabarmenak azarokoa 13.025 txangozale gutxiagorekin (%2,8) eta otsailekoa 9.072 txangozaleen galerarekin (%2,0).




Gainerako hilabeteetan, aurtengo interurteko aldaketa positiboa izan da. Apirilean 128.432 igotzen dira (%22,7), uztailean 104.074 (%12,7), irailean 91.449 (%15,3), urrian 49.464 (%10,7), abuztuan 47.481 (%6,2), maiatzan 22.801 (%3,5) eta ekainean 19.517 (%3,0).

Balio absolutuetan txangozaleen aldaketa urte honetako hilabeteetan zehar, otsaileko 440.347 sarreretatik uztaileko 922.908 sarreretara doaz, 482.561eko aldaketa.


2017an berreskuratutako txangozaleen zenbaki totala 111.889koa izan da.

Estatuko eta Euskadiko txangozaleen informazioa konparatuz, ikusi dezakegu hilabete bakoitzeko jokaera oso ezberdina dela bietan, 2017an uztailean eta abuztuan ezik, Euskadin gora doaz, Estatuan ordea jaitsi egiten dira, eta azaroan eta abenduan, Euskadin behera doazelarik eta Estatuan ordea gora. Gainerako hilabeteetan, bi norako hauetan joerak antzekoak dira.



	Euskadi 2013	Euskadi 2014	Euskadi 2015	Euskadi 2016	Euskadi 2017	Estatua 2013	Estatua 2014	Estatua 2015	Estatua 2016	Estatua 2017
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>	<b>100,0%</b>
Urtarrila	6,6%	6,5%	6,8%	7,7%	6,4%	6,0%	6,1%	6,3%	6,5%	5,8%
Otsaila	5,6%	6,0%	6,0%	6,3%	6,0%	5,8%	6,1%	6,0%	6,4%	6,2%
Martxoa	7,3%	7,5%	7,4%	8,8%	6,9%	7,6%	7,2%	6,9%	7,6%	6,6%
Apirila	7,4%	8,1%	7,7%	7,9%	9,5%	7,8%	8,4%	8,1%	7,9%	9,0%
Maiatza	8,0%	8,1%	8,2%	9,0%	9,1%	8,3%	8,0%	8,2%	8,2%	8,6%
Ekaina	7,8%	8,3%	8,5%	9,0%	9,1%	7,9%	8,1%	8,2%	8,3%	7,7%
Uztaila	12,9%	11,5%	13,3%	11,4%	12,7%	11,1%	10,7%	10,9%	11,3%	11,6%
Abuztua	15,1%	13,9%	15,4%	10,7%	11,2%	14,9%	14,6%	14,7%	14,3%	13,6%
Iraila	8,0%	8,1%	8,3%	8,3%	9,4%	9,4%	9,0%	8,7%	8,4%	8,8%
Urria	7,7%	7,8%	7,0%	6,4%	7,0%	8,1%	8,2%	8,2%	7,7%	8,2%
Azaroa	6,4%	7,1%	6,3%	6,5%	6,2%	6,4%	6,7%	6,7%	6,3%	6,5%
Abendua	7,2%	7,1%	5,1%	8,0%	6,3%	6,8%	6,9%	7,0%	7,2%	7,4%


Gainerako urteetan jokabide ia antzekoak mantentzen dira, desberdintasun gutxi batzuekin, bai Euskadin bai Estatuan. Ezberdintasun hauek ez dira oso esanguratsuak, eta egon ezker Euskadin eta Estatuan ematen dira.



**3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 –2017**

Errepide bidezko txangozaleak dira txangozaletasun guztiaren jokaera markatzen dutenak, aire, tren eta itsasbidezko sarrerak oso gutxi baitira.

Azken urteetan, errepide bidezko txangozaleak gorakako joera bat adierazten dute, 2011ra arte, non maximoa lortzen duten. 2011 urte honetatik aurrera jokaera beherantz aldatzen da, beherakada batzuekin, 254.681 txangozale, hau da %2,7, 2014ean, 720.291 txangozale gutxiago (%7,7) 2015ean,




1.487.347 txangozale gutxiago 2016ean (%17,3) eta 2017 honetan, 2011ean hasitako gorakako joera hausten da, errepide bidezko 137.515 txangozale berreskuratuz (%1,9)

Azken bost urteetan, Euskadin errepide bidezko txangozaletasunak %99,0 a gainditzen du.

Estatuarekin konparatuz, ezberdintasunak handiak dira, Estatuan aire bidezko txangozaletasun handi bat dagoelako, salerosketen bidaia direla eta gehien bat, eta baita ere itsasontzi bidez datozen txangozaleak direla medio, hauek itsas-bidaia handietan datoz Estatuako portu ezberdinetara, eta ez dute ostatu-gaurik egiten, argi orduak erabiltzen baitituzte bisitak egiteko eta gauak nabigatzeko.

Estatuan tren bidezko txangozaletasuna, Euskadin bezala, ia hutsala da.

Aurreratu den bezala, atzerriko txangozaletasuna Euskadin errepidezkoa da oro har.





**3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 –2017**

Aurreratu da baita ere, Euskadiko txangozaletasuna frantsesa dela batik bat, %94a baino gehiagoko irudikapen batekin azken bosturtekoan, eta zehazki %95,1 batekin 2017an (6.932.658 txangozale frantses 7.287.892 Euskadiko txangozale guztien aurrean).

Frantsesen atzetik, 2017an, 76.193 gainerako Europatik datozen txangozaleak daude (%1,0) eta belgikarrak, 70.126 ondoren (%1,0rekin ere bai). Beste jatorri bat duten gainerako txangozaleak %0,8tik behera daude. Euskadin azken urteetan banaketa hauek joera berdina mantentzen dute.

Euskadin txangozaletasun frantsesa aurten %1,4 bat hazi da, Alemaniarrak %4,4 igo da, portugaldarra %5,3, belgikarra %14,7, holandarra %43,3, Estatuatuarrak %59,1, Gainerako Amerikarra %20,0 eta gainerako Europakoa %97,9 garrantzitsu bat igo da.


Italiatik datozen txangozaleak aurten %93,7 jaitsi dira eta neurri txikiago batean munduko gainerako herrialdeetakoak %60,7 eta Erresuma Batukoak %34,0 uzkurto dira.



Estatuaren jokoera, txangozaleen jatorriaren arabera, egonkorra da baita ere, baina jatorriko lurralde aniztasun handiagoarekin.

Merkatu frantsesa, Estatuan ere merkatu garrantzitsuena da ere, txangozaleen %50 gainditzea lortzen du.

Merkatu portugaldarra, Estatuan bigarren postuan dago, bizilekuen rankingean, eta nahiko esanguratsua da, azken bost urteetan, %21,7 txangozale batezbesteko batekin. Logikoki Portugal, Estatuarekiko, mugako lurraldea dela eta.



Garrantzi gutxiagorekin, baina gainerako Europako txangozaleak Estatuan %6,1 batean daude. Aire bidezko txangozaletasunaz gain, laneko egun bateko bidaiak egiteko aukera ematen duena, gainerako Europan beste mugako herrialde bat barneratzen da, Andorra.

## 4. ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) GASTUAK

Bisitarien gastuari buruzko atal honetan kontuan hartu behar da, 2015. urteko azken hiruhilabeteko datuak ez daudenez, urte honetako informazioa lortzea ezinezkoa dela, eta agertzen diren serie guztietan 2015eko gastuak ez direla aipatzen.



Nahiz eta bisitarien zenbakia, txangozaleen zenbakiagatik oso eraginda egon, bisitari guztien %75,6 direlarik turistek %24,4aren aurrean, gastuaren arloan, egoera kontrakoa da, turistek txangozaleen aurrean egiten duten gastu handiagoa dela eta. Gastu totalaz gain, eguneko batezbesteko gastuak eta pertsonako batezbesteko gastuak aurkezten dira, turistek gastuen aurrean diferentzia handiak erakutsiko ez dituztenak, eta eguneko batezbesteko gastuaren kasuan, turistek berdina dena gainera, txangozaleentzat eguneko gastua ez baita existitzen ostatu gaurik ere ez daudelako.

### 4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera 2013 – 2017

Aurten bisitarien gastua %2,4 igo da, 2016ko gastuaren aurrean, bi milioi euro baino gehiagoko gastu bolumenera iritsi arte (2.075.984.755 €) ia 50 milioiko hazkunde bat.

2013an bisitarien gastua %4 batean igo zen, hortik 2014ean %13,1 bat igotzeko. 2015eko datu osoa ez daukagunez jarraitu beharko lukeen joera bakarrik ikus dezakegu, 2016ean, %2,7ko hazkundera lortu arte 2014arekin alderatuz.

2017an azken bost urteetako turistek gastuaren kota maximoa lortzen da.




Bisitarien eguneroko batezbesteko gastuak, gastu osoaren patroia berdina jarraitzen du, 2017an azken bosturteko eguneroko batezbesteko gastu altuena lortuz.

Eguneroko batezbesteko gastua honek ere 5,46 euroko gorakada bat jasan du 2016. urtearekin konparatuz, %4,3ko ekarpen bat suposatzen duelarik.

2013. urtean eguneroko batezbesteko gastua %4,3 batean igo zen, 2014ean %10,5 bat eta 2016ean %9,4 bat 2014arekin alderatuz.

Pertsonako batezbesteko gastuak Euskadin azken urteetan, gastu totalak eta eguneroko batezbesteko gastuak bezalako ibilbidea marrazten du ia, 2017an igo beharrean 1,93 euro jaitسي egiten delarik (%0,9)

2013an, pertsonako batezbesteko gastuak %3,7 bat hazi zuen, 2014an ere %13,5 bat igo zen, 2016ean pertsonako batezbesteko gastua, azken urteetako balio altuenetan kokatzen da 2014arekin alderatuz %26,5 igo eta gero (45,57 euro).




Lehenengo gastu datu hauek, globalik aztertuak, agerian jartzen dute jada, Euskadik atzerriko turismoarekiko dituen datu onak, munduko azken krisiak eragindako beherakadatik berreskuratu dena, Euskadiko ekonomia turistikoari kantitate bikainak ekarriz.

**4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak, hilabeteko (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Bisitarien egindako gastuak hilabeteka aztertuz, ikusi dezakegu urtarilean gastu baxuena 2013an izan zela, 88 milioi eta erdi euroekin eta altuena 2016ean izan zela %46,5eko hazkunde batekin 2015arekin alderatuz, 132 milioi eurora arte eta 2017an 10,2 milioi euro galdu dira, 2016ean baino %7,7 gutxiago.

Urtariletik irailera 2015eko bisitarien gastuaren informazioa badaukagu, horregatik, hilabete hauetan dagozkien interurteko aldaketak lortu daitezke.

Otsailak, 2014an ere bere kota baxuena 88 milioierekin lortzen du, eta 2016an bere maximoa, 117 milioi eta erdi euro baina gehiagorekin eta 2017an jaitسي egiten da %12,4 batean, gastuko 103,1 milioierarte.





2014ko martxoak adierazten du minimoa 110,3 milioirekin eta 2016ko hilabete honek markatzen du maximoa, 128 milioi baino gehiagorekin eta 2017an gastua 10,4 milioi eurotan jaisten da, %8,1.

	2013	2014	2015	2016	2017	Δ17/16
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.744.424.728</b>	<b>1.973.592.686</b>	<b>ee</b>	<b>2.027.396.836</b>	<b>2.075.984.755</b>	<b>2,4%</b>
Urtarrila	88.426.797	94.894.727	90.227.315	132.176.527	121.976.875	-7,7%
Otsaila	93.574.167	88.015.548	89.362.261	117.716.906	103.109.092	-12,4%
Martxoa	120.979.548	110.335.519	117.200.642	128.122.934	117.723.775	-8,1%
Apirila	116.679.522	126.893.120	139.882.426	138.073.147	191.507.028	38,7%
Maiatza	131.103.154	179.595.295	183.250.795	160.777.800	200.888.711	24,9%
Ekaina	141.719.044	202.930.323	198.608.609	143.225.452	207.848.023	45,1%
Uztaila	222.651.766	251.624.526	272.118.358	224.993.896	235.124.198	4,5%
Abuztua	259.590.375	320.190.607	294.716.000	247.816.396	216.869.107	-12,5%
Iraila	185.592.236	197.938.486	197.941.687	269.039.761	239.727.815	-10,9%
Urria	142.390.561	157.931.890	ee	181.530.127	203.005.525	11,8%
Azaroa	99.698.428	121.290.584	ee	135.387.031	120.214.134	-11,2%
Abendua	142.019.131	121.952.063	ee	148.536.861	117.990.470	-20,6%

ee/ ez erabilgarria

2013ko apirilean aurkitzen dugu gastu baxuena 116,7 milioi eurekin, eta altuena 2017an, 191,5 milioirekin eta interurteko %38,7ko hazkunde batekin.

Martxoa eta apirilako datuak, urtearen arabera, txandakatu egiten dira, Aste Santuaren eragina dela eta, urte batzuetan martxoan eta besteetan apirilean izaten baita.

Maiatza, urteen joanean oso hilabete ezegonkorra izan da. 2013an gastu minimoa ematen da, 131,1 milioi eurekin, eta 2017an maximoa, 200,9 milioirekin, 2016ean baino %24,9 gehiago.

2013ko ekainean ematen da balio minimoa 141,7 milioirekin eta berriz ere 2017an da maximoa, 207,8 milioi eurekin, eta hilabete ezberdinetan emandako hazkunde handienarekin, %45,1.

Uztailan eman den gastu baxuena 2013an izan zen 222,7 milioi eurekin eta altuena 2015ean da, 272,1 milioirekin. 2017An, gastua 235,1 milioi eurotan kokatzen da, %4,5eko hazkunde batekin.

Abuztuak 2017an izan zuen gastu baxuena, 216,9 milioirekin, interurteko %12,5eko beherakada bat eta gero, eta 2014an 320,2 milioiak lortu dira, hilabete bateko gastuaren errekor historikoa lortuz.

Irailak bere minimoa 2013an dauka, 185,6 milioi eurekin eta bere maximoa 2016an 269 milioi eurekin. 2017an gastua %10,9 jaisten da, 239,7 milioi eurotan kokatuz.

2013ko urrian gastu baxuena eman zen, 142,4 milioi euro izan ziren eta balio altuena 2017. urtean lortu da 203 milioi eurekin, interurteko %11,8ko hazkunde batekin, 2016arekin alderatuz.

2013ko azaroa 99,7 milioi eurekin gelditu zen eta 2016an izan da zifra altuena lortu den urtea, 135,4 milioi euroak eta 2017. urte honetan gastua 120,2 milioi eurotara jaitsi da, 2016ean baino %11,2 gutxiago.

Azkenik, urteko azken hilabetean 118,0 milioi euro gastatu dira 2017an, aurreko urtean baino %20,6 gutxiago, gastu altuenarekin bat datorrena, 148,5 milioi eurokoa dena.

Eguneko batezbesteko gastuari buruz, esan beharra dago, hilabete eta urteen arteko aldaketak nahiko txikiak direla, eta 87,12 euroko 2015eko urtarrileko batezbesteko balio baxuenetik, 2017ko urriko 169,21 euroko maximora doazela.

Eguneko batezbesteko gastu baxuenetakoa abuztuan ematen da, ostatu-gau gehien egiten diren hilabetea, honek bidaiaren eguneko batezbestekoa jaisten duelarik.


Hala ere, 2013ko urtarrilean, eguneko batezbesteko gastu baxuena 94,02 eurokoa izan da eta %5,4ko hazkunde bat jasan du aurreko urtearekin konparatuz, eta 2014ko gasturik baxuena urtarrilean izan da baita

ere, batezbesteko 93.02 euroko gastua eta %1,1eko beherakada. 2015ean, informazioa urtariletik urrirarte daukagunez, eguneko batezbesteko gasturik baxuena, aipatu den bezala, urtarrilean gertatu zen 87,12 euroekin eta %6,4ko beherapen batekin. 2016ean, eguneko batezbesteko gastu baxuena urtarrilarekin bat egiten du berriz ere, 110,97 euro, eta %27,4ko hazkunde batekin eta 2017an abuztua da eguneko batezbesteko gastu baxuena daukan hilabetea, 111,03 euroekin eta interurteko %3,6ko beherapen batekin .


2013ko eguneko batezbesteko gastu altuena irailekoa izan da 133,18 euroko gastu batekin eta %14,3ko hazkunde bat. 2014. urtean eguneko batezbesteko gasturik altuena berriz ere irailean ematen da 139,47 euroekin eta %4,7ko igoera batekin. 2015eko hilabeteen artean, iraila da ere eguneko batezbesteko gasturik altuena daukana 127,96 euroekin eta %8,3ko beherapen batekin. 2016. urtean eguneko batezbesteko gasturik altuena urrira pasatzen da 160,25 euroekin, biurteko %20,1eko hazkunde batekin eta 2017an urria da eguneko batezbesteko gasturik altuena duen hilabetea (169,21 euro) %5,6ko hazkunde bat eta gero.

Eguneko batezbesteko gastuaren beherakada nabarmenena 2017an, 2016arekin alderatuz, azaroan gertatu da, %7,1ko beherakada batekin, interurteko hazkunde handiena ordea, irailan eman da %19,4 batekin, 152,96 eurotan kokatuz.

Eguneko batez besteko gastua



**Batez besteko gastua pertsonakoa**



Grafikoan ikus daitekeen bezala, pertsonako batezbesteko gastuak, eguneko batezbesteko gastuaren antzeko jokaera erakusten du, baina turistek ekarritako balio altuagoekin.

2013an pertsonako batezbesteko gasturik altuena irailan lortu zen, 194,37 euro. 2014an iraila bigarren postuan gelditu zen, 206,30 euro, ekaineko 210,45 euroen atzetik. 2015ean informazioa dagoen 9 hilabeteetan ekaina da pertsonako batezbesteko gasturik altuena lortu den hilabetea, 213,17 euro. 2016an, iraileko batezbesteko gastua berriz ere gastu gehien duen hilabetea da, 327,79 euroekin eta 2017an urria da 272,82 euroekin.

Azken bost urteetako pertsonako batezbesteko gasturik baxuena 2013ko urtarrilean ematen da 122,81 euroekin.

2017ko bisitarien pertsonako batezbesteko gastua, lehenago aipatu den bezala, 215,35 eurotan kokatzen da. Maiatza, ekaina, iraila eta urria batezbesteko gastutik gora kokatzen dira, 227,06 €, 245,29 €, 257,83 €, eta 272,82 €-ko balioekin hurrenez hurren. Gainerako hilabeteetan, otsaileko 180,88 €-etatik urtarrileko 214,37 €-etara doa.


Aurtengo pertsonako batezbesteko gastuaren interurteko hazkunde handienak ekainean %38,7 batekin eta maiatzan %15,5 batekin eman dira, gehien jaitsi direnak ordea, iraila %21,3 batekin eta abuztua %19,8 batekin izan dira.

**4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bidaiari motaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Bidaiari motaren arabera bisitarien gastu totala aztertzean, ikusi daiteke, turistek egindako gastua txangozaleek egindakoa baino altuagoa dela azken bost urteetan.

Turisten gastuak gorakako joera bat marrazten du, 2013an mila milioi baino gehiagoko errekorra lortu arte, 2014an mila berrehun milioiak gaudituz, aurreko urtean baino %16,7 gehiago, 2015ean %24,1 igotzen jarraitu du, errekor berria lortuz, mila bostehun milioi euro baino gehiagorekin. 2016ean turisten gastua %5,8 batea jaisten da eta 2017an %6,0 bat igo da berriz, 2015eko gastua gaudituz.


Txangozaleen gastu osoak gorakako joera bat erakusten zuen, turisten gastuarekin alderatuz, 2013ra arte, non bi gastuak 13 milioi euroko diferentzia bat azaltzen zuten. Memento honetatik aurrera txangozaleen gastuak behera egiten du azken bi urteetan ia 700 milioi eurotaraino, berriz ere turisten gastutik bereizten, 300 milioi eurotakoa dena.



2014an, txangozaletasunaren gastu totala, %7,9 batean berreskuratzen da, 55 milioi euro gutxi gorabehera. Turisten gastuarekin daukan aldea 450 milioi eurotan igo da, turisten gastuan egon den hazkunde handiagoa dela eta.

2015. urtea ezin da termino osoetan alderatu eta 2016ean, txangozaleen gastua honek berriz ere behera egin du 2014arekin alderatuz, %19,9, 609 milioi eurotan jaitsiz eta turisten eta txangozaleen arteko gastuaren arteko aldea areagotuz ia 810 milioi eurotan.

2017an txangozaleen gastuak berriz ere behera egiten du %6,1 batean, 573 milioi eurotara, turisten gastuaren arteko aldea 932 milioi eurotan hareagotuz, ia hirukoitza.



Turisten eguneko batezbesteko gastuak gorakako joera hau jarraitzen du, 2015a kenduta, %8,5 bat jaitsi zelaririk. 2016 eta 2017. urteetan, turisten eguneko batezbesteko gastua %11,0 eta %11,1 batean igo da hurrenez hurren.

Txangozaleen eguneko batezbesteko gastuaren %7,5eko beherakada, kasu honetan pertsonako batezbesteko gastuaren berdina delarik, ostatu-gaurik ez egiteagatik, gastu totalari begira joera mantentzen du.


Bere balioa 78,49 eurotaraino jaitsi da, 2011ko emaitza onenetatik aldenuz (86,32 €).

Euskadin txangozaleek eguneko turistek gastatzen duten diruaren erdia gastatzen dute.

Pertsonako batezbesteko gastuaren gainean, logikoki, turista eta txangozaleen arteko ezberdintasuna izugarria da, batez ere ostatuko eta garraioetako kostuak direla eta. Bitartean aurtengo turistek, pertsonako 639 euro gastatzen dituzten bitartean, 2016ean baino %2,9 gutxiago, txangozaleek 78,49 euro bakarrik gastatzen dituzte.


Turisten pertsonako batezbesteko gastuak azken urtera arte gorakako joera bat erakusten dute, txangozaleekin gertatzen den bezala.

Txangozaleen pertsonako batezbesteko gastua turistena baino 8 aldiz baxuagoa da. Honek argi uzten du, Euskadi bezalako norako batean, txangozale hauek turista bihurtzeak duen garrantzia, eta bide batez diru sarrera turistiko handiagoak lortu.



**4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak, sarbidearen arabera, ezberdintasun handiak eta aldaketa handiak aurkeztu ditu. Gastu gehien egiten zuten bisitariak errepide bidez zetozenak ziren, 2016. eta 2017. urteetan aire bidez datozenen gastuak gainditu dituzten arte. Aldaketa hau txangozaleek eragin dute, nabarmenki behera egiteaz gain, errepidez etortzeagatik bereizten dira. 2010. urtean errepide bidez sartzen ziren bisitarien gastu totala aire bidez egiten zutenenaren bikoitza zen. 2011an diferentzia hau larriagotu egiten da, hirukoiztera iritsiz ia, 2012an aldiz behera doa, bikoiztera iritsiz berriz ere baina hirukoiztetik urrun, 2013an alde txikiagotu egiten da, nahiz eta oraindik bikoiztera iristen den eta 2014an alde gehiago txikitzen da, aire bidezko eta errepide bidezkoen gastuarengan, errepideko gastua, aire bidezkoarenaren 1,6 aldiz delarik. 2016an errepide bidezko bisitarien gasta %28,9 jaisten da 2014arekin alderatuz, bi urte aurrerago baino 350 milioi euro gutxiago gastatuz. 2017an alde hau gutxiagotu egiten da, errepide bidezko gastua %6,8 batean eta hegazkinarena %0,4 igo direlako, ala ere hegazkinak errepide bidezko gastua 200 milioietan gainditzen du oraindik.






Aire bidez sartzen diren bisitarien gastuak murrizten duen lerroa, lerro zuzen eta lau batekin hasten da, oso makurdura txiki batekin, beherakoa, 2012an berriz ere gora doan arte, %14,2ko hazkunde batekin, 2013an jarraitzen du %8,8 batekin eta 2014an hazkunde askoz ere argiago batekin, %26,1ekoa, ia 153 milioi gehiago eta 2016an igoera indartsuagoa egiten da, azken bi urteotan %50,2 eta 1.107 milioi eta erdi baino gehiagora iritsiz (2014ean baino 370 milioi euro gehiago). 2017an 4 milioi eta erditan igotzen da.

Itsasbidea, bisitari gutxi erabiltzen dute, 2010etik sarbide honen gastuaren balioak behera doazelarik, 15 milioi euro baino gutxiagora jaitsiz 2012an. 2013an jokaera hau hautsiz, %17,1 igoaz eta 17 milioi euroak gaindituz, 2014an, aire bidezkoaren proportzio berdinean igotzen da, %26,1 batekin, 21 milioi eta erdi eurotara iritsiz eta 2016an, gastua bikoiztu egiten da (%126,3ko hazkunde), 49 milioi eurotara iritsiz eta orain, 2017an atzera egiten du %18,0 batean, gastua 40 milioi eurotatik pixka bat gorago kokatuz.

Trena erabiltzen duten bisitarien gastuak gastu totalaren %0,5 bat suposatzen du. 2013an 3.870.170tan kokatzen da, 2014ean %121 igotzen da, 8.550.941 eurotara bikoiztuz. 2015ean ez da informaziorik existitzen eta 2016ean, 2014arekin alderatuz hazkunde %58,9ko izan da, 13 milioi eta erdi euroak gaindituz, 2017an %38,9 bat jaisten bukatzeko, ia 8,3 milioi euroekin.

Aire bidezko bisitarien eguneko batezbesteko gastuak balio altuenak lortu dituzte 2010, 2011 eta 2012. urtean, 2011ean gora egin zuen 2010arekin alderatuz eta 2012 berriz, behera. 2013an 2012koarekin konparatuz 43 zentimo igo zen. Aurten, batezbesteko gasturik altuena izateari utzi dio, itsasbideko batezbesteko gastuari lekua utziz. 2014. urtean aire bidezko batezbesteko gastua %14 igo zen, eta bi urte geroago, 2016ean, aire bidezko bisitarien

**Eguneko batez besteko gastua**



eguneko batezbesteko gastua %10 bat jaitsi da, ia 170 eurotan finkatu da eta 2017an gora egiten du azken bost urteetako eguneko batezbesteko gastu altuena lortuz, %16,9 igoaz 198,62 eurotaraino eta sarbide guztien artean bigarren gastu altuena bezala kokatuz.


Itsasbideko bisitarien eguneko batezbesteko gastua 2010etik 2012ra, 110 eta 130 euroetatik zebilen, 2013an 175 eurotara igo zen, aire bidezko gastuaren gainetik kokatuz, 2014an gastu handiena izaten jarraitu zuen, %38,2ko hazkunde batekin eta 2016an %19,6ko hazkunde berri bat 2014arekin alderatuz, itsasbideko gastua igotzen du 289,63 eurotara. 2017an gastu honek %41,9 bat behera egiten du hirugarren postuan kokatuz, aurreko urteetan lehenengo postuan kokatzen zen ordea.

Trenez datozen bisitarien eguneko batezbesteko gastuak oso eboluzio aldakorra eduki du, 2013an hirugarren postuarekin hasiz, 2014ean mantendu dena, %29,5eko galera batekin. 2016ean gastu hau bikoiztu egiten da (%139,3) hegazkineko gastua gaindituz eta bigarren postuan kokatuz itsas bideko gastutik gertu, eta 2017an berriz ere %6,7 igoaz, aurtengo batezbesteko gasturik altuena bezala kokatuz erabilitako garraio bide guztien artean.

Eguneko batezbesteko gastu baxuenak errepide bidez datozen bisitariak dauzkate, txangozaleak direnak gehien bat. Azken urtean eguneko batezbesteko gastua %0,5 batean igo da eta urtero 94 euroatik behera kokatzen da.


Pertsonako batezbesteko gastua aztertzean, aire bidezko bisitariak itsasbidezkoen gastua bikoizten dute urtero 2013an ezik, baina errepide bidez datozenek baino ia 10 aldiz gehiago dute eta 2016ean tren bidezko gastuak gainditzen du, nahiz eta 2017 berriz ere igotzen den eta lehenengo postuan kokatzen den.

Errepide bidez datozen bisitarien pertsonako batezbesteko gastua 2017an %3,0 bat igotzen da, aire bidezkoena %2,4 jaisten da eta itsasontziz egiten dutenen gastua %0,9 jaisten da eta trenez egiten dutenena, proportzio handiagoan jaisten da, %30,0.



**4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Bizilekuaren arabera gastu totala aztertzean, bi grafiko sortu dira, bat Frantzian bizilekua dutenekin eta bestea gainerako herrialdeetako gastuekin. Banaketa honen arrazoia, beste herrialde hauen aldaketa eta proportzioak antz eman ahal izateko egiten da, frantsesek duten pisua hain handia da, hauen gastuak ikusteko grafikoaren eskala egokitzea oso zaila dela, beste herrialdeen gastuak ikusi nahi baditugu. Txangozaleen gastua, gehienak frantsesak direnak, turisten gastuarekin batera, hauek ere frantsesak direlarik



gehiengoan, bigarren herrialdearekin ezberdintasunak hain handiak dituzte, ezin direla eskala berdinean erakutsi. Adibidez 2017an frantsesen gastu totala 755,7 milioi eurokoa izan zen eta gainerako beste 10 herrialdeak 28 eta 274 milioien artean daude.




Bisitari frantsesen gastu totala, 2017 honetan %2,5 igo da, azken bi urteetan egondako %26,5eko beherakadaren ondoren. Merkatu hau ekarpen handiena egiten duena da, eta askogatik, Euskadiko ekonomia turistikora. 2014. urtean bisitari frantsesen merkatuaren gastu osoaren kota altuenera iritsi zen, alde batetik 2011ean lortutako marka onena puskatuz eta bestetik mila milio euroko muga hautsiz.

Gainerako herrialdeen gainean, ikusi dezakegu, gastu total handiena daukaten herrialdeak Euskaditik urrunen daudenak direla. Joan etorriko garraioaren balioak gastu honen zati bat azaltzen du, urrunen dauden herrialde hauetan handiagoa delako. Gainerako Europakoek aurten 272 milioi gastatu dituzte, gainerako Ameriketakoek 230 milioi euro, estatubatuarrek 108 milioi eta zehaztu gabeko munduko beste herrialdeek 273 milioi euro. Gertuago dauden herrialdeen artean Alemania da aipagarriena, 154 milioirekin, gero Erresuma Batua ia 82 milioirekin. Gainerako herrialdeek ez dute gastu aipagarririk egiten.

Aurten interurteko gastu hazkunde handiena gainerako Ameriketako bisitariak jasan dute %63,6 batekin, munduko beste herrialdeetako bisitariak ordea %26,3 jaitsi dira, ala ere frantsesen atzetik gastu gehien lortzea ekarri duena. Alemaniako biztanleak ere proportzio altuetan igo dira, %45,5 batean. Erresuma Batuko biztanleen gastua %11,1 igo da, portugaldarrena %2,7, belgikarrena %12,2, gainerako Europako biztanleena %11,4 eta holandarrena %0,8.

Gainerako herrialdeek interurteko aldaketa negatiboa eduki dute gastu totalari begira, adibidez, italiarrena %32,7 jaitsi da eta Estatu Batuetako biztanleena ere %22,3 atzera egiten du.

Gastu osoa



Aurten merkatu frantseseko bisitariak daukate eguneko batezbesteko gastuenik baxuena, 87,26 euroekin, aurreko urteari begira 0,17 euro galdu dituelarik, %0,2 gutxiago. Hau merkatu frantsesa, Euskaditik gertuen dagoena eta txangozale gehienak aurki ditzakegun merkatua delako gertatzen da, turisten gastuak baino gutxiago egiten dituztenak direlarik. Frantsesen eguneko batezbesteko gastua, 2016. urte kenduta, gainerako herrialdeen aurrean, urtero gastu txikiena da.

Bestalde, eguneko batezbesteko gastuenik altuena, munduko beste herrialdeetako bisitariak daukate, 362,68 eurokoa, eta 2016arekin alderatuz %51,6ko igoera batekin. Bisitari multzo hau da azken bost urteotan eguneko batezbesteko gastu handiena lortu duena.


Estatu Batuetako bisitariak aurten, eguneko batezbesteko bigarren gastu altuena daukate, 246,90 euroekin, %16,3ko gorakada baten ostean. Gainerako Ameriketako eguneko batezbesteko gastua, hirugarren postuan kokatzen dena, azken urtean %20,1 jaitsi dena, 174,77 eurotaraino, 43,86 euro galduz.

Azken bost urteetatik aurrera, eguneko batezbesteko gasturik handiena lortu duen jatorrizko merkatua britainiarra izan da, 150,95 euroekin, alemaniarra 158,60 euroekin, belgikarra 148,66 euroekin eta munduko beste herrialdeetakoena 362,68 euroekin.

Aurten, eguneko batezbesteko gasturik handiena lortu ez duten jatorrizko merkatuak hauek izan dira: frantziarra 87,43 euroekin 2016ean, portugaldarra 140,18 euroekin 2016ean, italiarra 159,82 euroekin 2014ean, holandarra 183,32 euroekin 2016ean, Europako gainerako herrialdeetako 171,07 euroekin 2013an, estatubatuarra 275,13 euroekin 2014ean eta gainerako Ameriketako 265,57 euroekin 2014ean.

Jatorri ezberdineko bisitarien eguneko batezbesteko gastuen balioan alde handiena, frantsesen eta munduko beste herrialdeetako biztanleen eguneko batezbesteko gastuaren artean dago, 275,42 euro.


Eguneko batez besteko gastua



Pertsonako batezbesteko gastuak, bisitarien bizilekuaren arabera, Euskadin, txangozale frantziarren eragin handia du, horregatik bisitari hauen gastua merkatu guztien artean baxuena da. 2017an, frantsesek, 97,37 euroko eguneko batezbesteko gastu bat daukate, %0,5eko irabazi batekin eta frantsesen eguneko batezbesteko gastuaren maximoa azken bosturtekoan 2014koari dagokio, 100,41 euro.

Gainerako herrialdeek pertsonako batezbesteko gastu handiagoak dituzte garraio gastuak gehitzean besteak beste, eta ostatu-gauen aparteko izanik, eguneko batezbesteko gastuen kasuan, ostatu-gauen arabera gastu hau baretu egiten delarik. Gero eta ostatu-gau gehiago eguneko batezbesteko gastu baxuagoa.

Batez besteko gastua pertsonakoa



Logikoki, urrunagotik datozen bisitariak daukate eguneko batezbesteko gasturik altuena. Horregatik munduko beste herrialdeetakoena da baliorik altuena 1.472,05 euro pertsonako izanik. Gastu hau %13,3ko beherapen bat jasan du 2016aren aldean (226,49 euro gutxiago). Gainerako Ameriketako bisitariak ere 2017an gehien gastatzen duten bigarrenak dira, 1.413,04 euro pertsonako, lehengo urtean baino %25,7 gutxiago. Estatu Batuarrek osatzen duten merkatuak ere pertsonako batezbesteko gastu altua mantentzen du, 1.268,41 euro, %1,5eko beherakada batekin eta gainerako Europako herrialdeen gastua, interkontinentalak baina gertuago kokatzen direnak, 623,19 eurotaraino jaisten da, azken bi urteotan %15,3 galduaz.

Gertuen dauden merkatuen barruan, beste pertsonako batezbesteko gastu maila batean, Alemania aurkitzen da 546,18 euroekin, italiarra 519,20 euroekin, holandarra 487,56 euroekin, Erresuma Batukoa 421,49 euroekin eta belgikarra 318,49 euroekin. Portugal, gertuen dagoen beste herrialdea, pertsonako 212,53 euroko gastuan kokatzen da.

## 5. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK

### 5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak. Urteko bilakaera 2013 – 2017

Euskadira etortzen diren atzerriko turisten gastuak interurteko %6,0ko hazkunde bat jasan du, ia 1.504 milioi eurotara iritsiz. Azken bost urteetan gastua igotzen joan da, 2016a izan ezik. Bost urte hauetan gastua %44,7 batean igo da, Euskadiko ekonomia turistikoarentzat sekulako datua, berriz ere krisia eta gero sektorearen berreskuratzea irudikatzen duena.

2013an hazkundea 124 milioi eta erdikoa izan zen, 2014an 173 milioi eta erdiko izan da hazkundea, 2015ean, urte guztietan egon den hazkunde handiena eman da, gastu totala 292 milioi eta erdietan haziz. Guztira, lau urte horietan, pilatutako hazkundea 590 milioi eta erdi euro baino gehiagokoa izan da, 2016an galdutako 87 milioi eta erdien aurrean, aurten jadanik, hauetatik 85 milioi eta erdi berreskuratu direlarik .



Aurten, turisten eguneko batezbesteko gastuak (178,83 €) 17,92 euro irabazi ditu aurreko urtearekin alderatuz, %11,1


2013an hazkundea 16 eurokoa izan zen 2012arekin alderatuz (%12,1).

2014an hazkundea 10,63 eurokoa izan zen 2013ari begira, %7,2 bat gehiago.

2015ean turisten batezbesteko gastuak beherakada txiki bat jasan zuen, %8,5 bat jaitsi baitzen 2014arekin konparatuz. 13,52 euro galdu zituen.

2016an, batezbesteko gastua aurreko urteko beherakadatik suspertu da 15,93 eurotan, %11,0 igoaz.





Turisten pertsonako eguneko batezbestekoa 639,38 eurotan kokatzen da, aurreko urteko gastuaren %2,9 azpitik.

Turistako batezbesteko gastuak, gorakako joera bat aurkezten du 2013tik 2016ra, eta 2017an galera txiki bat.


2013an, hazkundera %3,3koa izan zen (17 euro gehiago), 2014an %6,1igo zen (33,17 euro gehiago), 2015ean %12,7ko hazkundera egon zen (72,70 euro gehiago),

2016an igoera azken urteetako txikiena izan da, %1,9 (12,03 euroko gehiago) eta azken urte honetan beherapena 18,90 eurokoa izan da. Orokorrean, 2013tik 2017ra 98,99 eurotan hazi da saldoa.

## 5.2.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, hilabeteko. Urteko bilakaera 2013 – 2017

Hilabete desberdinetan, turisten gastuak, azken urteotan jokaera antzeko bat mantentzen du, ohiko aldaketekin. 2015ean izan da hilabeteko jokabide ezberdina egon zen urtea besteekin konparatuz. Urtarriletik otsailera, urtero gastu totalak behera egiten du. Otsailetik maiatzera, urtero igoera jarraitu bat dago. Ekainan, maiatzarekin konparatuz, 2013 eta 2015ean igo egin da eta 2016an eta 2017an jaitsi. Ekainan eta uztailan urtero igo da. Uztailetik abuztura 2013, 2014 eta 2016ean igo egiten da, gainontzeko urteetan jaisten delarik. Abuztutik azarora hilabetez hilabete gastuak jaisten dihoaz 2013 eta 2014ean, 2015ean aldiz, irailan jaitsi egiten dira, urrian igo eta azaroan berriz ere jaitsi, eta azken bi urteetan (2016 eta 2017), irailan igo eta urrian eta azaroan jaitsi egiten dira. Azkenik, abenduan gastu totala azaroari begira igo egiten da 2013, 2015 eta 2016 urteetan eta jaitsi 2014 eta 2017an.

Gastu osoa



2016. urteko lehenengo hiruhilabeteetan, irailarekin batera, azken urteetako gastuaren kota altuenak lortu diren hilabeteak dira. Bigarren hiruhilabeteetan azken bost urteetako gastuaren kota altuenak 2017. urte honetan eman dira. Gainerako hilabeteetan, gasturik altuena 2015. urtean gertatu zen.


2017ko ekainean, turisten gastu totalaren interurteko hazkundera %58,7koa izan da (urteko altuena), hau da, 52.166.314 euro, apirilean hazkundera %57,6koa izan da (51.738.630 euro), maiatzan %39,4koa (41.750.317 euro gehiago), urrian %24,1koa izan da (31.313.166 euro gehiago) eta uztailean %2,8koan, gastuaren 4.623.307 euroko igoerari dagokiona.

2017ko urtarrileko Euskadiko turisten gastuak %4,2ko beherakada bat jasan du, azken urteetako apiril onenak baino 3.762.955 euro gutxiago, 2016ekoa izan zena, ia 90,7 miloi euroekin. Gainerako hilabetei berdinean gertatzen zaie: otsaila aurten %7,9 bat jaitsi da, 2016arekin alderatuz 6.127.392 euro galduaz, martxoak 3.536.661 euro galtzen ditu, %4,4 gutxiago, abuztua %11,7 bat jaisten da (21.221.439 euro gutxiago), irailak %15,4 galtzen du balio absolutuetan gehien galtzen duen hilabetea delarik, 33.607.063 euro gutxiago, azaroan %10,3 (9.672.742 euro gutxiago) eta azkenik gastua abenduan, hazkunde gutxien daukan hilabetearekin bat egiten duena, %18,8 bat uzkuertzen da, 2016an baino 18.058.255 euro gutxiagori dagokiona.

Turisten batezbesteko gastuak urte guztietan hilabeteetan zehar gastu aldakor bat aurkezten du, tontor ezberdinak markatuz, bai kota altuetan bai baxuetan.

Turisten eguneko batezbesteko gastuaren aldaketa, urteko hilabete guztietarako positiboa da martxoan, non %21,6 bat galtzen den hilabetea, uztailean %7,4 bat galtzen denean eta azaroan %4,6 galtzen denean ez ezik.

**Eguneko batez besteko gastua**



Aurtengo urtarrilean, eguneko batezbesteko gastua 170,84 euritakoa da, aurreko urtean baino %20,3 gehiago. Hau da azken bost urteetan lortutako kotarik altuena, aurreko urtean baino 28,77 euro gehiagorekin.

Otsailean batezbesteko gastua 174,32 eurokoa da %7,0 bat igo ondoren. Bere balio altuena ere aurtengoa izan da, gastua 2016n baino 11,40 euro gehiagorekin.

Martxoak interurteko %21,6ko hazkunde negatiboa lortzen du (49,61 euro gutxiago), 179,66 eurotan kokatuz, azken bost urteetako batezbesteko gastu altuena markatzen duena 2016. urtea da, 229,28 eurorekin.

Apirila igo egiten da, %8,7 (14,17 euro gehiago), 177,22ko batezbesteko gastu bat markatuz. Urtarrilak eta otsailak bezala, aurtengo apirilak, azken bost urteotako batezbesteko gasturik altuena lortzen du.

Maiatzan aurtengo batezbesteko gastua azken urteetako altuena da, %3,0ko hazkunde batekin 2016arekin alderatuz, 196,77 eurotaraino iritsiz (5,72 euro gehiago).

Ekainak hazkunde positibo bat dauka, %9.4 batekin, 2017an markarik onena lortzen duen hilabetea, 177,68 eurorekin, 2016an baino 15,21 euro gehiago.

Uztailak azken urteetako batezbesteko gasturik altuena lortzen du 2016an, 168,65 euro, eta aurtengo %7,4ko galera batekin (12,52 euro gutxiago), 156,13 eurotan gelditzen da.

Abuztua da batezbesteko gastuaren zifra orokorra jaisten duen hilabeteetako bat, egonaldiaren ostatu-gauen igoera dela eta, eta 2017an 140,58 eurotara igotzen da, azken bost urteetako emaitzarik onena izanik eta aurreko urtean baino %7,3 gehiagorekin (9,55 euro gehiago).

Gastuaren hazkunderik handiena aurtengo irailan ematen da, %44,5eko gorakada batekin, 209,26 eurotaraino. Hilabete honetan, 2016an baino 64,49 euro gehiago lortzen dira.


Urriko eguneko batezbesteko gastua 233,66 eurotan kokatzen da, aurreko urtean baino %21,0 gehiago, 40,48 euroko hazkunde batekin. Aurtengo batezbesteko gasturik altuena lortu du azken bost urteei begira, bai urriko hilabeteen artean bai hilabete guztien artean ere.

Azaroan, %4,6ko beherapen batekin, 184,50 euroak lortu dira, aurreko urtean baino 8,98 € gutxiago eta azken urteetako gastu altuenarekin bat egiten duena ere bai.



Abenduak bere batezbesteko gastua %17,3 batean igotzen du eta aurten bere kota maximoa lortzen du 168,86 euroekin, lehengo urtean baino 24,92 euro gehiago.

**Batez besteko gastua pertsonakoa**



Turisten batezbesteko gastua urteko hilabete ezberdinetan, aurten, 12 hilabeteetatik 2tan bakarrik buruan jartzea lortzen du: ekaina eta urria.


Aurtengo urtarrilean, pertsonako batezbesteko gastuan %4,0ko beherakada bat egon da, 874,74 eurotaraino (lehengo urtean baino 36,71 euro gutxiago). Otsaila %7,3 bat jaisten da, 548,67 €-tan geldituz (aurreko urtean baino 42,94 euro gutxiago). Martxoak beheraka egiten du 597,16 €-taraino, %8,8ko (lehengo urtean 57,56 euro gutxiago), beherapen batekin. Apirilak 629,20 euro igotzen da batezbesteko gastuan, interurteko %18,5ko igoerarekin (lehengo urtean baino 98,17 euro gehiago). Maiatzak eta ekainak, 673,37 eta 780,35 euroekin %11,3 eta %42,7ko igoera esanguratsu bat jasaten dute, hurrenez hurren. Maiatzak 68,49 euro irabazi ditu, aurreko urteko hilabete berdinaren aurrean eta ekaina 233,57 euro igo da urte berdinarekin alderatuz. Uztailak 40,56 euro galtzen ditu, 598,44 €, %6,3ko uzkurdua bat suposatzen duelarik. Abuztuak behera egiten du %24,0 batean, 430,82 eurotaraino (aurreko urtean baino 136,28 euro gutxiago) Irailean pertsonako gastua %21,6 garrantzitsu batean uzkuertzen da 759,22 eurotan kokatuz (aurreko urteko hilabete berdinean baino 208,63 euro gutxiago). Urria %19,8 bat igotzen da, urte onenarekin alderatuz, aurreko urtea izan zena, 113,74 euro galduaz, 687,93 eurotan kokatuz. 2017ko azken bi hilabeteek kontrako eran jokatzen dute. Azaroa %10,9 bat jaitsi da eta abendua %5,3 batean igo, aurreko urtearekin alderatuz. Azaroa 615,26 eurotan dago eta abendua 792,66 eurotan, azaroan 75,34 euro galdu ondoren eta abenduan 39,85 irabazi ondoren.

### 5.3.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017

Sarbideari begiratzuz, aire bidea da gastu total gehienak ematen diren sarbide mota. Gastu hauek beherakada iraunkor batetik zetozen eta 2012an beherakako joera hau hautsi egin da %14ko hazkunde handi batekin, hurrengo urteetako emaitzekin finkatu egin dena. 2013an finkatu egiten dena %8,8ko igoera batekin, 2014an, modu ikaragarri batean igotzen denean, %26,4 irabaziz, ia 153 milioi euro. 2015ean hazkunde handiago bat ematen da oraindik ere, %41,6, 304 milioi eta erdi gehiagorekin eta 2016an eta 2017an hazkundea

progresiboki leundu egiten da, %6,8 bat igoaz (70 milioi eta erdi baino gehiago) 2016an eta %0,4 (ia 4 milioi eta erdi) 2017an, historiako bere gastu altuena lortu arte, 1.111 milioi euro.

Errepideak norabide ezberdin bat erakusten du 2011an jauzi handi batekin (%70 batekoa), 2012an %2 bat jaitsiz, 2013an %20,6ko hazkunde indartsu batekin jarraituz, 2014an %4,3ko hazkunde txikiago batekin eta 2015an %3,8 bat uzkuratuz eta aurten %37,2 bat 2016an, aurten %28,5eko susperraldi garrantzitsu batekin bukatzeko. Aurtengo hazkundera 79 milioi eta erdi baino gehiagokoa da.




Itsasbidea erabiltzen duten turisten gastu totala

2012ra arte beheraka egiten zeterren. 2013an %16,5 bat berreskuratzen du 13 milioi eta erdi eurotaraino iritsiz, 2014an berriz ere atzera egiten du %10,3 batean eta hemendik, joera aldatzen da, 2015an %47,9 igotzen, 2016an %2,1 eta %38,1 2017an, gaur egun 25 milioi eta erdi euroak gaituz.

Trenez datozen turisten gastua, nahiz eta oso gastu txikia izan, 2014ean bikoiztu egiten da, 3,2 milioititik 6,5 milioi eurotara pasaz eta 2016an berriz ere bikoiztu egiten da, 2015eko 6,5 milioietatik 2016ko 13,6 milioietara. 2015a 2014aren aldean ia berdin gelditzen da, %0,1eko gorakadarekin eta 2017an gorakako joera hau aldatu egiten da %39,2 galduaz eta 8,3 gastu totala milioi eurotan geratuz.

Aireportu bidez zetozen turistak a eguneroko batezbesteko gastua handiena zeukaten. Hauen itsasbideko turisten eguneko batezbesteko gastua hurbiltzen ari zitzaien, 2015 eta 2016an gaineratik pasa zaizkien arte. Orain burdin bidearen sarrerarekin, 2014ean ezik, non bere eguneko batezbesteko gastua errepidearenaren azpitik zegoen, sarbide honen eguneko batezbesteko gastua gainerako sarbideen gaineratik kokatzen da. Logikoki,




sarbide hauek (hegazkina, trena edo itsasontzia) erabiltzen dituztenen eguneroko batezbesteko gastuak txartelen kostua jasan behar dute, ostatu-gauen arabera hau gehiago edo gutxiago disolbatuz. 2013ko aire bidezko eguneko batezbesteko gastuak %3,5eko hazkundera dauka, itsasbidekoaren %34,1eko hazkunderaren aurrean, bi gastu hauek parekatzea ekarri zuen, lehenago aire bidearen alde 14,93 eurokoa zelarrik, errepide bidezko eguneko batezbesteko gastua azpitik kokatzen zelarrik 130,16 euroekin eta trenaren eguneko batezbesteko gastuaren gaineratik 198,06 erorekin. 2014an, aire bidea, itsasbidea eta errepide bideen jokabideak antzekoak izan ziren, non aire bidea %14,3 igo zen eta itsasbidea %18,8, beraien arteko aldea

gutxitzen jarraitu zuen, 10,34 euro oraindik ere aire bidearen alde. Errepidea %2,4ko beherapen batekin, aire bidea eta itsasbidearen batezbestekoetatik aldentzen zihonan, , baina 2014an modu ulertezin batean, burdinbidearen eguneko batezbesteko gastuaren gaineratik kokatzen zen, honek bere balioaren %43,1 galdu baitzuen, eguneko 112,67 eurotara jaitsiz. 2015ean jokaera aldaketa bat gertatu zen, sarbide mota guztietan gastuak behera eginez, trenaren salbuespenarekin. Aire bidez %16,8koa izan zenez eta itsasbidearena %8,7, postu aldaketa bat gertatu zen, itsasbideko eguneko batezbesteko gastuak aire bidezkoa 5,83 eurotan gaindituz. Errepide bidezko batezbesteko gastuak berriz ere behera egin zuen, urte honetan %3,3 ba, azken bost urteetako bere kota baxuenean kokatuz, eguneko 122,83 euro. Tren bidez datozen turisten eguneko batezbesteko gastuaren %58,1eko igoerak, berriz ere multzo hau eguneko batezbesteko gasturik altuenean kokatzen du, 178,08 euroekin. 2016. urtean, sarbide guztien batezbesteko gastuak gora egin du (%8,4 aire bidea eta %9,4 itsasbidea), bien arteko aldea areagotuz, 7,86 euro gehiago itsasbidearen alde, errepidea %6,2 igotzen da, gainerako sarbideen oso azpitik geratzen delarik, eta tren bidezko gastua nabarmenki igotzen da berriz ere, %50,2, batezbesteko gasturik altuena mantenduz eta bigarrena 89,90 eurotan gaindituz (itsasbidea). 2017an, aurreko urtearekin dagoen aldea, itsasbidezko turista errepide bidezkoaren azpitik kokatzen dela da. Errepide bidezko gastua %6,4 batean igotzen da, aire bidezkoa %16,9, trenbidezkoa %7,5 eta itsasbidea %28,1 jaisten da.

Euskadin atzerriko merkatuen trenbidezkoa, pertsonako batezbesteko gastua altuena da sarbide mota guztien artean 2013, 2014 eta 2016. urteetan. 2015 eta 2017. urteetan bigarren postuan kokatzen da aire bidearen atzetik. Trenbidezko turisten gastu hau azken bosturtekoan urtero jaitsi egin da, 1.908,91 euro galduz, %70,8.

Aire bidezko turisten pertsonako batezbesteko gastua sarbideen artean altuena da 2015 eta 2017. urteetan eta bigarren postuan kokatzen da bosturtekoaren gainerako urteetan. Gorakako joera bat erakusten zuen 2015. urtera arte eta 2016ean inbertitu egiten da 2017an jaisten jarraitzeko. Aire bidezko pertsonako batezbesteko gastua 1.020 eta 1.143 euroen artean mantentzen da urte hauetan, 122,69 euroko urkila batean. 2017an %2,4 batean jaitsi da, azken bost urte hauetako aire bidezko pertsonako batezbesteko gastu baxuena lortuz.

Errepidean, sarbide mota hau erabiltzen duten turisten pertsonako batezbesteko gastua 2013ra arte igotzen joan da, bere kotarik altuena lortuz, 325,43 euroekin, eta hortik joera negatibo batekin jarraitu du, oso xumea hasieran, 2014an %1,1 galduz, %0,5 bat 2015ean eta %16,5eko beherapen neurrizkoago bat 2016ean, aurtengo %11,3ko hazkundearekin bukatzeko, 297,78 euro. Sarbide mota guztien artean gastu baxuena da eta 325 eta 267 euroen artean kokatzen da, 57,89 euroko tartea.



Itsasbideko pertsonako batezbesteko gastua, errepide bidezkoaren, azken bost urteetako jokabide berdina erakusten du. 2013ra arte gora doa eta 2014an %6,3 jaisten da, 2015ean %4,4 eta 2016an %26,4 moderatu bat. 2017an %15,5 bat igotzen da 527,76 eurotaraino. Azken urteetan gastua hau 692,71 eta 456,80 euroen artean mugitzen da, 235,91 euroko tartea.

Bide ezberdinak erabiltzen dituzten turisten pertsonako batezbesteko gastuen ezberdintasuna handia da, aurreko urteetako 298 euroetatik, itsasontziz datozenen 528 euro, trenez datozen turisten 788 € eta aire bidez datozen turisten 1.020 eurotara doaz.

**5.4.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2013 - 2017**

Euskadiko ekonomiarentzat merkatu turistikoa onuragarriena frantsesa izaten zen, 2016an postu hau galdu eta hirugarrenera pasa zen arte eta 2017an laugarrenera. 2015. urtean gastuaren interurteko %8,5eko beharakada bat jasan dute eta 2016ean %37,3koa. Frantziatik datozen turistek Euskadiko merkatu turistikoa %35,2 bat irudikatzen dute. Merkatu frantsesaren gastu totalak, azken hiru urteetan, bi igoera jasan ditu. Garrantzitsuena 2013an gertatu zen, %25,1eko igoera erregistratu zelarik, 2012arekin alderatuz, bigarrena 2014an izan zen, 2013arekin konparatuz, gastua %6,6 igo zenean eta hirugarrena 2017an, %23,0ko igoera batekin. Merkatu honek 2014an gastu historiko bat lortzen du 313 milioi eta erdi eurokoa, hurrengo bi urteetan beharakada jarraitu batekin jarraitzeko eta 2017an 221,2 milioi eurotan bukatzeko, aurreko urtean baino 41,4 milioi gehiago. Aurtengo beharapena dela eta, merkatu honetako gastua laugarren postuan kokatzen da, gainerako Ameriketako, munduko beste herrialdeetako turisten gastuari eta gainerako Europako turisten gastuari lekua utziz.

Hortaz, gastu totalari begira, munduko beste herrialdeetako merkatua aurkitzen da lehenengo postuan, gastu totalaren %18,1 bat irudikatzen duelarik eta aurtan, ala ere, 2016arekin alderatuz, %26,2ko beharapen bat jasan duena, 97 milioi euroko ekarpena eginez.


Bigarren postuan gainerako Europako merkatuaren gastu totala aurkitzen da, gastu totalaren %17,8 batekin eta aurtan %10,6 bat hazi delarik 2016aren aurrean, 25,7 milioi euro gehiagoko ekarpen batekin, 267 milioietaraino.

Hirugarren maila batean gainerako Ameriketako biztanleak daude, 226,8 milioiko gastu batekin, eta hirugarren postuan kokatzen dituen %86,1ko hazkundearekin, merkatu frantsesaren gaineratik, eta ondoren Estatu Batuetako biztanleak 100,9 milioirekin eta 2016arekin alderatuz %26,7ko beharapen batekin.

Gertu aurkitzen diren Europako herrialdeen artean, Frantziaren ondoren, Alemaniako turisten gastua aurkitzen da 148,1 milioi euroekin eta %45,6ko hazkundearekin, Erresuma Batuko turisten gastuak jarraituz, 85,1 milioi euro eta %21,5eko hazkunde batekin, eta ondoren Holandako turistena 69,7 milioi euro eta %0,6ko beharapenarekin.

Gastu totalen azkeneko geruzan italiarrak daude 45,4 milioi euroekin eta interurteko %30,8ko beharapen batekin, belgikarren gastuak jarraitzen diolarik, 39,6 milioi euroekin eta %15,8ko igoera batekin. Azkenik, turista portugaldarren gastua aurtan %4,7 igo da 27,1 milioi eurotaraino iritsiz.

Azken bost urteetan merkatu guztien hauen gastu total handiena 2017an izan da: alemaniarra, belgikarra, gainerako Europarra eta gainerako Ameriketakoa. Merkatu britainiarrak bere gastu altuena 2015ean lortu zuen 130 milioi eta erdi euro baina gehiagorekin, italiarrak 2016ean 65,6 milioi euroekin, merkatu portugaldarrak 2015ean lortu zuen bere gastu total altuena ia 29 milioi euroekin, merkatu holandarrak 2016ean lortu zuen bere gastu altuena 70,1 milioi euroekin, merkatu estatubatuarrek bere gasturik altuena



2015ean lortu zuen 207,7 milioi euroekin eta munduko gainerako herrialdeetako merkatuak 2016ean 369,9 milioi euroekin.


Eguneko batezbesteko gastu globala, 178,83 euro dira, eta merkatu turistikoa diferentzia handiak erakusten dituzte honen gainean, azken bost urteetako batezbesteko globalik altuena delarik.

Eguneko batezbesteko gastu altuena duen multzoa, munduko beste herrialdeek osatzen dutena da, 364,02 euro egunekorekin. Merkatu honi estatubatuarrak jarraitzen dio 235,10 euroekin, gero Gainerako Amerikarrak 176,93 euroekin, ondoren belgikarrak 173,06 euroekin, gainerako Europakoak 172,43 euroekin, holandarra 168,23 euroekin, alemaniarak 161,70 euroekin, ingelesak 152,21 euro, portugaldarrak 140,33 euroekin, frantsesak 128,06 euroekin eta italiarra 125,62 euro egunekorekin.

Bizi diren herrialdearen arabera turistek eta beren eguneko batezbesteko gastuek erakusten dituzten jokoerak oso ezberdinak dira. Azken bost urteetan ez da egon merkaturik ez gorakako ez beherakako joera egonkor bat erakutsi duenik.

2017ko eguneko batezbesteko gastuaren interurteko aldaketaren gainean, positiboa izan dela esan daiteke merkatu hauentzat: Munduko beste herrialdeetakoak, %51,7 bat hazi dena, italiarra, %51,4, alemaniarra %23,4, britainiarra %17,9, belgikarra %14,6, frantsesa %13,4, estatubatuarrak %11,0 eta gainerako Europakoa %9,4. Merkatu holandarrarentzat ordea, negatiboa izan da, %12,3ko beherakada batekin, portugaldarrentzat %1,8ko galerarekin eta Gainerako Amerikarrentzat %10,7ko galerarekin.

Eguneko batez besteko gastua



Pertsonako batezbesteko gastuaren ezberdintasunak merkatu ezberdinen artean, Euskadin egindako egonaldiaren luzerarekin zer ikusia dute. Errepide bidez sartzen errazena den merkatuak, frantsesak, pertsonako batezbesteko gastua baxuago bat aurkezten zuen aurreko urteetan, merkatu portugaldarrak gertutik jarraitzen diolarik, baina 2017. urte honetan aldaketa bat egon da lehen aldiz, eta merkatu portugaldararen pertsonako batezbesteko gastua 231,09 euroekin, pertsonako batezbesteko gastu baxuena duen merkatua bezala kokatzen da, merkatu frantsesaren gastuak jarraituz 267,17 euroekin.

Urrunago daudenak, merkatu hauen ohiko bisiten egonaldiaren luzera dela eta, pertsonako gastu handienak eragiten dituztenak dira.

Gainerako Ameriketako merkatuak aurreko pertsonako batezbesteko 1.750,32 euroko gastu batekin, munduko beste herrialdeetakoak 1.501,00 €, estatubatuarrak 1.314,92 euroekin eta gainerako Europakoak 740,48 euroekin, pertsonako batezbesteko gastu globaletik asko aldentzen dira, azken hau 639,38 eurokoa delarik.

Gainerako merkatu nagusiei dagokienez, pertsonako gastua batezbestekoa baino altuagoa da alemaniarren artean 652,94 euroekin eta holandarren artean 649,57 euroekin, gainerako merkatuak, batezbestekoaren azpitik kokatzen dira, hala nola britainiarak 505,27 euroekin, italiarrak 527,79 euroekin eta belgikarrak 570,33 euroekin eta pertsonako batezbesteko gastua baino askoz baxuagoa portugaldarren (231,09 euro) eta frantsesen kasuan (267,17 euro).




Pertsonako batezbesteko gastuak Gainerako Amerikarren artean izan du hazkunde handiena azken urtean, %39,9, frantsesek jarraituz (%14,0), ondoren alemaniarrek (%7,9), estatubatuarrek (%1,3) eta azkenik Erresuma Batuko turistek %0,1 baino gehiagorekin.

Portugaldarrek pertsonako batezbesteko gastua, 2017an, %17,3 batean jaitsi dute, munduko beste herrialdeetakoek %15,3 batean, gainerako Europarrak %10,0 batean, italiarrak %6,7 batean, belgikarrak %1,2 batean eta holandarrak %0,9 batean.

Pertsonako batezbesteko gastuak orokorrean, gainerako Europako Herrialdeetan bizi diren turistentzat, azken bost urteetan gorakako joera bat mantendu du. Jatorrizko edozein merkaturari begira, ez dute joera hau mantentzea lortu. Merkatu portugaldarra aldiz, azken urteotan beherakako ibilbide jarraitu bat erakusten duen bakarra da.

Batez besteko gastua pertsonakoa




**5.5.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Aurten, Aisiak eta salerosketek Euskadiko atzerritar gastu turistikoaren %81,3 eragiten dute.

880,3 milioi euro eragin dituzte gutxi gorabehera eta totalaren %58,5 bat, aisia eta oporrak, txanpon sarrera turistikoaren arrazoi nagusia bilakatzen dira. Aurten arrazoi hau %11,1 bat igo da azken urteetako gorakako joera, 2016an galdutakoa, berreskuratuz. Lanarengatik datozen turisten gastuen kopuruak (342,6 milioi euro), interurteko %19,5eko aldaketa positibo bat

Gastu osoa




aurkezten du. Azken urteak, lanaren arrozoi honek, gastuaren hazkunde jarraitu bat aurkezten du.

Beste arrazoi batzuegatik egindako gastuak bere diru ekarpenak igoera ikaragarri bat jasan du, bere ekarpen monetarioak bikoiztuz, 2013ko 166,1 milioi eurotatik 2015eko 339,5 milioi eurotara. Hazkunde hau 2014 eta 2015 urteen artean gertatu da. Ondoren, 2016. urtean gastua maila mantendu egiten da oro har, nahiz eta galera txiki bat egon, eta orain da, 2017an %17,2 bat jaitsi denean. Arrazoi honengatik dagoen gastua, azken bost urteetan gorakako joera bat erakusten duen bakararra da 3 gastuen artean.

Aisia eta oporren arrazoiagatik egindako eguneko batezbesteko gastuak, lanaren arrazoiarekin, lehengo postua txandakatzen zeterren, baina 2014tik bigarren postura atzeratua izan da lanagatik datozen turist

**Eguneko batez besteko gastua**




eguneko batezbesteko gastuak izan duen hazkunde handiagoa dela eta, batez ere 2016ean non %32,4 bat, 184,70 euroko gastu batetik, 244,51 eurotara pasa dena (59,81 euro gehiago), aisiaren arrazoiaren %6,8ko hazkunde baxuagoaren aurrean 2015eko 178,61 eurotatik 2016ko 190,79 eurotaraino (12,18 euro gehiago). 2017 honetan, bi gastuek gora egin dute baina ez hain modu esanguratsuan. Aisiagatik eguneko batezbesteko gastua %0,2 igo da eta lana edo salerosketengatik hazkundea %1,4koa izan da. Azken bost urteetan aisiagatik eguneko

batezbesteko gastuak gorakako joera mantentzen du, beste arrazoiak 2015an beherakada bat jasaten dutelarik, lanarentzat 6 eurokoa gutxi gorabehera eta beste arrazoiarentzat handiagoa, ia 26 euro gutxiago.

Aurten beste arrazoiengatik ematen den eguneko batezbesteko gastuak %19,2 bat berreskuratu du 2016arekin alderatuz, eta beste arrazoiak bezala, azken bosturtekoan eguneko batezbesteko gasturik altuena lortuaz.

Gastu totala eragiten duten arrazoi garrantzitsuenen artean, salerosketak 990,95 euroko gastuarekin, pertsonako gastu gehien erakusten dutenak dira,

**Batez besteko gastua pertsonakoa**






aisiagatik datozen turisten pertsonako gastua baino ia 446 euro gehiagokoa da (545,01 euro). Aisiagatik datozen pertsonako batezbesteko gastuak dira pertsonako batezbesteko gastu totalaren azpitik kokatzen direnak dira, hau 639,38 eurokoa izanik. Beste arrazoiek urte guztietako zifrarik onena lortu zuten 2016ean, 904,17 euro, 2013ko zifra lasai asko bikoiztuz. 2017 honetan da batezbesteko gastu hau 185,90 eurotan jaisten den urtea.

Azken urteko aldaketaren ildoan, aisiagatik datozenen pertsonako gastuak %1,2 gora egiten du, lanagatik %6,6 jaisten da eta beste arrazoiengatik %20,6ko beherapen bat jasaten du..

**5.6.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Azken urteetan gehien gastatzen duten turistak 2 eta 3 ostatu-gau bitarte egiten dituztenak dira. 2017 honetan 517 milioi eta erdi euroekin, eta gastu osoaren %34,4 bat suposatzen dutelarik, %7,3ko interurteko hazkundea eta gero. Turista kolektibo honen gastuaren kotarik altuena 2015ean lortu zen, 533 milioi eta erdi baina gehiagorekin, 2013 urtetik emandako hazkunde garrantzitsuak direla medio, %28,4 2014ean eta %18,3 2015ean. 2016ean aurreko urtearekin alderatuz %9,6ko galera bat dago.




Ostatu-gau bakarreko egonaldia egiten duten turistek, aurten, gastu osoaren %13,0 bat suposatzen dute, 195 milioi euroekin eta interurteko %17,2ko gorakada batekin. Gastuaren kotarik altuena 2015ean ematen da, ia 227 milioi euroekin. Bi tarte hauek batuaz, egonaldi motzek (bat, bi eta hiru ostatu-gau), Euskadiko turisten gastuaren %47,4 a biltzen dutela ikusi daiteke (712 milioi eta erdi euro), ostatu gau hauek egiten dituzten turisten ehunekoak, Euskadi bisitatzen duten turisten %75 bat suposatzen dute .

Aurten 4tik 7ra bitarteko egonaldiak gastuaren %29,5 bat eragiten dute, ia 444 milioi euro eta %15,7ko hazkunde batekin. Aste bateko egonaldiko turista hauen gastua da progresiboki igotzen datorren bakarra, 2010etik, 2017am gasturik altuena lortuz.

8tik 15era bitarteko egonaldiak egiten dituzten turistek, 2017an, gastuaren %9,4a suposatzen dute, ia 142 milioirekin, eta interurteko %23,1eko hazkunde batekin. Azken bost urteen artean, 2015a da gastuak behera egiten duen bakarra (%4,1), bere gorakako joera galduaz.

Aurten 15 egun eta hilabete arteko ostatu-gauak egiten dituzten turistek, 70 milioi eta erdi euro baino gehiagoko gastu bat eragiten dute, interurteko %7,2ko beherapen bat irudikatzen dutelarik. Turista mota honen gastuak, gorakakoa 2015erarte, eta beherakakoa hurrengo bi urteetan. 2015ean lortu zuen gasturik altuena 83 milioi eta erdi euro baina gehiagorekin, gaur egun baino 13 milioi gehiagorekin. Aurtengo gastuak, Euskadi bisitatzen duten turisten gastuaren %4,7a irudikatzen du.

Azkenik, egonaldi luzeenak egiten dituzten turistek (30 baina gehiago), aurten, bere gastua %30,6 batean jaitsi dute, 59 milioi eta erdi euro galduaz eta ia 135 milioietan geldituz, gastu turistiko guztiaren %9,0a irudikatzen duena. Azken urteetan bere jokaera aldakorra izan da, 16tik 30erako ostatu gaueko egonaldiak egiten dituzten turistena bezala, 2015 arte gorakakoa eta beherakakoa 2016 eta 2017an. 2015ean lortu zuen bere emaitzarik onena, 202 milioi euroko gastuarekin, 2014aren aurrean %156,8ko igoera garrantzitsu batekin.




Ikusi daitekeen bezala, turisten eguneko batezbesteko gastua, egonaldiaren luzerarekiko alderantziz proportzionala izan da 2015 arte. Ostatu-gau gehiagora, eguneko gastu gutxiago. 2016An ostatu gau bakarreko egonaldiak egiten dituzten turisten batezbesteko gastuaren beherapen handia ordea, salbuespen bat da, eta hurrengo urtea era bai, ez baita gutziz indarberritzen.

Egonaldi laburrentzat (3 ostatu-gauerarteak)

eta 4tik 7ra ostatu gaueko egonaldientzat, batezbesteko gastua, eguneko batezbesteko gastuaren gainetik kokatzen dira, hau 178,83 eurokoa baita eta 8tik gorako ostatu-gaueko egonaldientzat eta goragokozentzat batezbesteko honen azpitik kokatzen da.

Eguneko batezbesteko gastuak, turisten egonaldien arabera, ez du inongo egonaldi motetan jokaera bitxirik erakusten, lehen aipatutako, 2016ean, ostatu gau bakarreko turistek eragindako batezbesteko gastuak ezik, %28,4ko beherakada handi bat jasan duena, 2015ean baino 78,50 euro gutxiagorekin. Gainerako kasu guztietan gorakada eta beherakada txikiak aurkezten ditu, eta urte batzuetan eta besteetan era ezberdinean.

Aurten, eguneko batezbesteko gastuaren interurteko igoera handiena 30 baina gehiagoko ostatu gaueko egonaldietan gertatu da, %19,5ko hazkunde batekin, jarraian ostatu gau bakarrekoak daude %11,6 batekin. 2tik 3rako egonaldiak egiten dituzten turistek, bere batezbesteko gastua %3,7 batean jaitsi dute, 4tik 7 ostatu-gauerako egonaldien kasuan beherapena %0,3koa izan da eta 8tik 15 ostatu gauerako egonaldietan %5,2ko hazkunde eta 16tik 30erako



batezbesteko gastuak %8,8 gora egin du.

Turisten pertsonako batezbesteko gastua, egonaldiaren iraupenarekiko zuzenki proportzionala da. Ostatu-gau gutxiagora, pertsonako gastu baxuagoa.

Aurten, pertsonako gastua, hilabete baino gehiagoko egonaldiak egiten dituztenen 6.975,33 eurotatik, gau bakar batekoa egiten duten turistek 220,88 euroetara doa.

Ostatu-gauen arabera bereizitako turistek egiten dituzten pertsonako gastuak, hiru multzo ezberdintzen dituzte. Alde batetik ostatu-gau ertainak egiten dituztenak (4tik 7ra ostatu gau) oso gastu handia egiten dutenak, pertsonako 1.000 euroetatik gora, beste alde batetik ostatu-gau luzeak eta oso luzeak, 15 ostatu gau baino gehiagokoak, eguneko 1.300 euro egunekoak baina gorago kokatzen direnak eta azkenik ostatu-gau gutxiakoak, 4 gau baino gutxiagoko (639,38 euroekin) batezbestekoaren azpitik kokatzen direnak.

Egonaldi motzak egiten dituzten turistek artean ostatu-gau bakar bat egiten dutenak, 220,88 euroko pertsonako batezbesteko gastu bat daukate eta 2016arekin alderatuz %11,6 bat igo dira, eta 2tik 3rako ostatu-gauekoak, 588,17euroko pertsonako batezbesteko gastu bat daukate eta %4,6 jaitsi dira, daude.

Egonaldi ertainak, 4tik 7ra bitarteko ostatu-gau, egiten dituzten turistek pertsonako batezbesteko gastua 1.012,83 eurokoa da, interurteko %1,1ko beherapen txiki batekin.

Egonaldi luzeen artean, estratu gehiagotan zatitzen direnak, 8tik 15era bitartekoen pertsonako gastuak daude, 1.390,69 euroekin eta %2,3ko hazkunde batekin, 16tik 30era ostatu-gau ematen dituztenen batezbesteko gastuak 2.376,93 euroekin eta interurteko %11,1ko hazkunde batekin eta hilabete baino gehiagoko ostatu-gauak egiten dituztenen gastuak 6.975,33 euroekin eta %30,3ko hazkunde garrantzitsu batekin.


Azken bost urteen artean, pertsonako batezbesteko gasturik handiena ostatu gau bakarra egiten duten turistek artean 2013an izan zen 291,58 euroekin. 2tik 3ra ostatu gauean, 2016an izan zen handiena 616,37 euroekin. 4tik 7ra ostatu gau egiten dituztenekin berdin gertatzen da, 2016an eduki zuten baita ere gasturik handiena, 1.024,16 euro. Beste estratuentzat, denak 7 ostatu gau baino gehiagokoak, pertsonako batezbesteko gasturik altuena 2017an lortu da.

**5.7.- Euskadira etortzen diren turistek gastuak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Ostatu tipologia ezberdinen artean, hotelek eragiten dute gastu turistikoaren gehiengoa. 898 milioi euro dira, turistek eragindako gastuaren %59,7 suposatzen duelarik. Ikusi daitekeen bezala, bere hazkundera iraukorra izan da 2012tik 2015era eta tamaina handikoa. Azken urte honetan %10,2ko igoera bat jasan du 2016arekin alderatuz, %3,0ko beherapen bat jasan zuen, 2015ean baino 25 milioi euro gutxiagorekin bat datorrena. 2017ko 83 milioi baino gehiagoko hazkunde honek, azken bosturteko gasturik altuena bezala kokatzen du ostatu mota guztien artean.

Merkatuko beste establezimenduetan ostatu hartzea, gastu turistiko elkartuan bigarren postuan daude 2015. Urtera arte eta 2016an, %37,3 bat jaitsi direnean, ia 163 milioi eta erdi euro galduaz, azkenik 2017an berreskuratzeko eta gastua 54 milioi euroetara igotzeko (%19,6). 2017an, gastu honek, turistek gastu totalaren %21,9a irudikatzen du.


Merkatuz kanpoko ostatu motak aukeratzen dituzten turistek gastuak, gastu



osoaren %18,4a irudikatzen dutenak, %15,7 bat jaitsi dira eta 276 milioi eta erdi euro baino gehiagotara iritsiz. Gastu mota honen kantitate handiena 2016ean eman zen.

Pertsonako eguneko batezbesteko gasturik altuena, hotelei dagokie, beste guztiak eragindakoaren oso gaineratik. 2017an eguneko 266,08 euro dira, merkatuko beste establezimenduetako 127,51 euroetatik eta baita merkatuz kanpoko establezimenduetako turistak 112,73 euroetatik, oso gaineratik.

Eguneko batez besteko gastua



Batezbestekoaren gaineratik (178,83 €) aurkitzen den gastu bakarra hoteletako batezbesteko gastua da. Gastu honek 2013tik gorakako joera bat izan du, 222,90 euroetatik, gaur egungo 266,08 euroetara pasaz, azken urte honetan %1,4ko hazkundera.

Merkatuko beste establezimenduak erabiltzen dituztenen eguneko batezbesteko gastuak eboluzio positibo bat erakusten zuen, 2015ean 13,54 euro jaitsi zen arte, 2016an 11,83 euro berreskuratu zituelarik, eta

2017an beste 12,58 euro gehiago, %10,9 igo eta gero 2016arekin alderatuz.

Aurten, hazkunde handieneko gastua, merkatuz kanpoko establezimenduak erabiltzen dituzten turistena da, %13,8, 2015ean 2,60 euro galdu zituztenak, 2016an 12,17 euro berreskuratu eta orain, 2017an 13,68 euro igo direnak.


Egonaldien batezbesteko iraupen handiena, merkatuko beste establezimenduen kasuan, gainerako ostatu tipologia gaineratik dagoen pertsonako batezbesteko gastu bat eragiten du.

Hotelaren pertsonako gastua 2017an 679,98 eurokoa da eta merkatuko beste establezimenduen 752,26 eurokoa. Biak atzerriko turismoaren pertsonako batezbesteko gastutik gora kokatzen dira. Merkatuz kanpoko establezimenduetan ostatu hartzen duten turistak pertsonako batezbesteko gastua, batezbestekoaren azpitik kokatzen da, 478,95 euroekin.

Hoteletako turistak pertsonako batezbesteko gastua, urtez urte, 2013tik igotzen joan da, bosturteko osoan 98,32 euro irabaziz.

Hotelak erabiltzen dituztenen pertsonako gastua %2,3 igotzen da 2017an, merkatuko beste establezimenduen %4,0 jaitsi da eta merkatuz kanpoko beste ostatu motena %17,7 jaitsi da baita ere, 2016arekin alderatuz.

Batez besteko gastua pertsonakoa



**5.8.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten gastua, 2017ko turisten gastu osoaren %94,7 batekoa da.

Pakete turistikoa erabiltzen ez duten turistek, aurten, bere gastua %8,1 batean igo dute eta pakete turistikoa erabiltzen duten turistek bere gastua %21,0 batean jaitsi dute, 79,3 milioietaraino.


Pakete turistikoa erabiltzen dutenen gastuaren eboluzioak, ibilbide aldakorra erakusten du, urtez urte gora eta behera egiten txandaka.

2015 urterarte, pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten gastuak gora egiten du, 2016rarte, 89,1 milioi euro galtzen dituzten urtea, eta 2017 berreskuratzen den %6,3 bat (106,7 milioi euro), azken bost urteetako gasturik altuena lortuz, 1.424,6 milioi euro baina gehiago guztira.


Balio absolutuetan pakete turistikoa erabiltzen ez duten turistek aurten bere gastua 106,7 milioietan igo dute, eta erabiltzen dutenek 21,1 eurotan jaitsi dute.

Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen turisten artean, egonaldiko eguneko 176,04 euroko gastua lortzen da, pakete turistikoa erabiltzen duten turisten oso azpitik, egunero 249,88 euroko gastua dutelarik.

Ez dugu ahaztu behar, pakete turistikoa erabiltzen ez duten turista gehienak, errepide bidez datozenak direla, garraio gastu baxuagoekin, erabiltzen dutenek, hegazkina, itsasontzia edo trena erabiltzen baitituzte.



**Eguneko batez besteko gastua**



Paketea erabiltzen duten eta ez duten turisten eguneko batezbesteko gastua goraka zihoan urtero, 2014ra arte, non alde handiena ikusten den pakete turistikoa erabiltzen dutenen alde, 236,52 euro.


Pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten eguneko batezbesteko gastuak 2015ean behera egiten du eta hortik, hurrengo bi urteetan gora egiten du, erabiltzen dutenenak ordea, 2015etik 2017ra behera egiten dute.

2014ean ematen zen bi gastuen arteko aldea (236,52 euro) urtetik urtera txikiagotzen joan da: 2015ean 203,96 eurotara, 2016ean 122,42 eurotara eta 2017an 73,84 eurotara.

Pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten pertsonako batezbesteko gastua, lehengo urtearekin konparatuz 2017an %3,9 bat igo da, eta erabiltzen duten turistena %32,1 igo da. Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen pertsonako gastuak, erabiltzen dutenen gastuaren 341,36 euro baino gutxiagokoa da.

Bestalde, pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten pertsonako batezbesteko gastuaren bilakaerak, azken bost urteetako lautan gorakako joera bat erakusten du, azkenik aurten balio altuena lortzeraino, 627,49 euro, 2016ko balio altuena baino 25,66 euro gutxiago, 653,15 euro.

Pakete turistikoa erabiltzen dutenek pertsonako gastua igo dute 2014. urtera arte, azken bost urteetako balio altuena lortuz 1.174,35 euroekin eta pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten gastua bikoizten dutenean. Hurrengo urtea da (2015) non gastu hau jaisten hasten den urtea, hasieran modu lasai batean, 2015ean 424,47 euroko galera batekin eta 2016an 16,07 euroko galera txiki batekin soilik. Azkenik 2017an galdutako 235,04 euro berreskuratzen dira, pertsonako 968,86 eurotan kokatuz.





## 6. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK

Txangozaleen definizio bera dela eta, ostatu-gaurik egiten ez duten bisitariak direla esaten den honetan, eguneko batezbesteko gastua pertsonako batezbesteko gastuaren berdina da, eguneko gastua lortzeko pertsonako gastua ostatu-gauekin zatitzen baita. Txangozaleen egonaldiak ordu batzuetakoak direnez, 1ekin zatitu beharko genuke, emaitza gastu berdina izanik.



Atal honetan, Euskadira datozen txangozaleen gastu totala eta pertsonako batezbesteko gastua aztertuko dira.

Gogoratu beharra dago, 2015eko azken hiru hilabeteetako txangozaleen daturik ez daudela, eta horregatik 2015eko txangozaleen daturik ez aurkeztea erabaki dela.

### 6.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak. Urteko bilakaera 2013 – 2017

2017 honetan Euskadin atzerriko txangozaleek egindako gastua 572 milioikoa da. Zifra honek, aurreko eragiketarekin alderatuz %6,1eko beherakada bat suposatzen du 2016ko eragiketari begira, 37 milioi euroko beherakada bat. 2011n maximo historiko bat lortu zen Euskadiko txangozale atzerritarren gastuan 843 milioi eta erdi euroekin. 2014ean gastua 760 milioi eta erdietaraino indarberritu zen eta 3 urte ondoren %24,8 bat uzkuritu da, 188 milioi eta erdi galduz.

Pertsonako batezbesteko gastuak gastu osoaren patroia antzeko bat jarraitzen du, diferentzia batekin, 2016an, %4,7ko gorakada bat erregistratu zela pertsonako gastuan, 2015ean 84,87 euroak lortuz eta 2017an %7,5eko beherakada batekin 78,49 eurotaraino, 2013an baino zifra handiagoa.





**6.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, hilabeteko. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

2017an hilabeteko txangozaleen gastu totalaren tartea, otsaileko 32,0 milioi euroetatik ekaineko 66,8 milioi euroetara doaz.

Urtarrilak gastu totalaren %6,1 bat irudikatzen du eta interurteko %15,5ko beherakada batekin. Azken bost urteetan hilabete honetan egon den gasturik altuena 2013an izan zen 41,9 milioi euroekin.

2013ko otsaila azken bost urteetako altuena bezala kokatzen da, 47,6 milioi euroko gastuarekin, eta aurten %21,0 bat jaisten da 2016arekin alderatuz, 32,0 milioi euroko gastu batekin. Hilabete honek gastu totalaren %5,6 irudikatzen du.


Martxoak gastu totalaren %7,1 bat irudikatzen du, 40,7 milioi euroekin eta %14,4eko interurteko beherakada batekin. 2013ko gastua, azken bost urteetako martxoko gasturik onena bezala kokatzen da 54,5 milioi euroekin.

Apirilak gastua %3,5 bat igo du 2016 urteari begira, 49,9 milioi eurotan kokatuz, gastu osoaren %8,7 irudikatzen duelarik. Kota altuena 2014an lortzen du 52,6 milioi euroekin.

Maiatzak gastu osoaren %9,3 a irudikatzen du 53,3 milioi euroekin eta interurteko %3,0ko beherakada batekin. Hilabete honetan egin diren gastu altuenak 2014ean izan ziren, 57,1 milioi euroekin.

Ekainak, %11,7ko ekarpen batekin, urte honetako hilabeteetan handiena, %22,9ko biurteko gorakada bat jasaten du, 66,8 milioi euroetara igoaz, azken urteetako emaitzarik onenak lortuaz 2014an 75,8 milioi euroekin.

Gastu osoa



Uztailak gastu osoaren %11,2 bat irudikatzen du, 64,2 milioi euroekin eta %9,4ko igoera batekin 2016arekin konparatuz, gastuaren emaitza onenak lortu dituen urtea 2014 izan zelarik, 86,0 milioi euroekin.

Abuztua da gastu osoaren ehuneko handia jasotzen duen hilabetea izateari uzten dio, ekaina izatera pasatzen delarik. Gastu totalaren %10,0 irudikatzen du, 57,1 milioi euroekin, %14,6ko beherakada garrantzitsu batekin 2016arekin alderatuz, 2014 da gastu altuena lortu duen urtea 139,5 milioi euroekin.


Irailak gastu osoaren %9,7 bat irudikatzen du 55,6 milioi eurekin eta %8,4ko interurteko hazkunde batekin. 2013an izan zen hilabete honen urterik onena, 60,3 milioi eurekin.

Urriak gastua osoaren %7,3 bat irudikatzen du 41,8 milioi eurekin, eta interurteko %19,1ko aldaketa negatibo batekin, 2014a izanik gastu gehiengokoa 60,0 milioi eurekin.

Azaroak gastu osoaren %6,3 irudikatzen du 35,8 milioi eurekin eta %13,3eko uzkuradura batekin 2016arekin alderatuz. 2014. urtea, azken urteetako gasturik altuena lortzen duen urtea, 52,8 milioi eurekin.

Urteko azkeneko hilabetea, abendua, gastuaren %7,0 batekoa da 39,9 milioi eurekin eta %23,9ko beherakadarekin. 2013. urtean, azken bost urteetako gasturik altuena lortu zen, 67,1 milioi euro. Abendua da azken bost urteetan beherakako ibilbide jarraitu bat erakusten duen urteko hilabete bakarra. Gainerako hilabeteek ibilbide aldakorrek jarraitzen dituzte, txandakako tontor.

Txangozaleen pertsonako batezbesteko gastuak gertu dauden balio marra batzuk aurkezten ditu, azken urteetan elkarri lotzen direnak, ekaina, abuztua eta urria izan ezik, aldaketa gehien dituzten hilabeteak direlarik.



2013an ekaineko 71,25 euroatik hasita, 2014ean pertsonako gastua 97,66 euroetaraino igo da (%37,1), 2015ean %18,3 bat jaisteko 79,76 eurotaraino, 2016an %5 igotzeko pertsonako 83,92 eurotaraino eta azkenik 2017an, %19,3 igotzeko, pertsonako 100,15 eurotaraino. Ekaineko pertsonako batezbesteko gastu hau, azken bost urteetako altuena da hilabete honentzat eta 2017 urteko altuena ere bai.

Abuztua da aipagarria den beste hilabetea, 2013an pertsonako gastua 65,42 eurotan zegoen, 2014an %63,2 garrantzitsu bat hazten da 106,78 eurotara iritsiz, 2015ean %25,8 jaisten da 79,19 eurotaraino, 2016an %9,7 igotzen da, 86,84 eurotaraino eta 2017an berriz ere behera egiten du %19,5 batean, 69,88 euroak markatuz.

Urria da aldakorra den azken hilabetea, 2013an 72,81 euroko pertsonako gastu batekin hasten dena. 2014an %13,3 igotzen da 82,48 eurotara iritsiz, 2016an %36,2ko hazkunde garrantzitsu bat dauka 2014aren aldean (2015ean hilabete honi buruz informazioa ez dagoenez), 112,14 eurekin, azken bost urteetako hilabeteen artean, pertsonako hilabeteko gastu altuena lortzen duen artean eta aurten %26,9 jaitsi da 81,96 eurotan geldituz.

Aipatutako hilabetez gain, 2017an, batezbesteko gastuaren interurteko aldaketak positiboak izan dira, martxoan bakarrik, %8rekin, eta aldaketak negatiboak izan dira urtarrilean %0,5ekin, otsailean %19,3rekin, apirilean %15,6rekin, maiatzan %6,3rekin, uztaian %3,0rekin, irailean %6,0rekin, azaroan %10,8rekin eta abenduan %5,1eko beherapen batekin.

### 6.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2013–2017


Sarbidearen aldetik, errepide bidez datozen txangozaleen gastuak, gastu totalaren %97,4 bat suposatzen du. Aire bidezko txangozaleek gastu totalaren %0,1 bat bakarrik irudikatzen dute, burdinbidezkoek, oraindik gutxiago, %0,0 eta itsasbidetik datozenak %2,6 bat.

Errepide bidezko gastuak, ia txangozale guztienarekin bat egiten duenez, txangozaleen gastu totalaren jokabide berdina aurkezten du kasik. Aurten,%3,7ko aldaketa negatibo bat izan du, 2016an hasitako gorakako joerari jarraituz.


Aire bidezko sarbidea erabiltzen dutenen gastua %66,3 igo da azken urtean eta itsasbidekoena %52,0 bat jaitsi da, hala ere gastu hauek batera %2,7 bat bakarrik irudikatzen dute gastuaren osotasunean, beraz hauen aldaketak ez dira erabakigarriak.

Trenbidezko txangozaleen gastuak ez du aldaketarik aurkezten 2016aren aurrean, 2016an jasotako gastua hutsa baitzen, laginean jasotako kasuen gabezia dela eta. Aurten jasotako totala 46 mila euro eta erdikoa izan da bakarrik, balio hutsala.

Errepide bidez datozen txangozaleen, pertsonako batezbesteko gastua, aurten 76,84 eurotan jaitsi da, 2016. urtean baino %5,5 gehiago. Errepide bidezko txangozaleen pertsonako batezbesteko gasturik altuena 2016ko 81,33 euroekin bat dator.



Aire bidez datozen txangozaleen pertsonako gastua aurten 420,84 eurotara igo da, 2016arekin alderatuz %34,2, azken bost urteetako altuena izanik, eta itsasbidezko pertsonako gastua %19,8 jaitsi da, 375,15 eurotaraino eta gastu altuena 2013an eman zen 506,07 eurorekin. Urte hau izanik azken bost urteetako pertsonako gastu altuena izan duena. Gastu hauek kopuru garrantzitsu bat irudikatzen dute, aipatu den bezala, txangozale kopuru handi bat irudikatzen dute, 15,2 milioi euro baino gutxiagoko gastu total bat eragiten dutelarik.



Trenez datozen txangozaleen pertsonako gastua aurten 120,33 eurokoa izan da, azken bosturtekoan altuena.


**6.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2013 – 2017**

Frantziako jatorria duen txangozaletasunak, txangozaleen gastuaren %93,4 bat eragiten du, hortaz, joera ebolutiboak erabat zehazten ditu. 2016 urtearekin alderatuz, %4,1 bat jaitsi da, 22,6 milioi euro galduaz.

Txangozale frantsesen izaerak, eskualdeko erlazio bat erakusten du, nazioartekoa baino.

Ekarpenean hurrengo merkatua Estatu Batuetakoa da, 7,2 milioi eurorekin, eta 2016. urtean baino %397,4 gehiago.

Erresuma Batuko txangozaleen multzoak eragindako gastua 6,8 milioi eurotara iritsi da, biurteko %46,3eko interurteko beharpen batekin.



Txangozale alemaniarren gastuak %44,7ko hazkunde bat jasan dute, 5,9 milioi eurotan kokatuz eta gainerako Europako txangozaleen gastuak %79,8 bat igo dira, 5,2 milioi eurotaraino. Urrunago, 5 milioi eurotik behera, Belgikako biztanleak daude, 4,8 milioi eurorekin eta %10,7ko beharpenarekin, holandarrak urrutiago aurkitzen dira 3,2 milioi eurorekin eta %42,1ko gorakadarekin, gainerako Ameriketako txangozaleak 3,0

milioirekin eta %83,8ko beherapenarekin, portugaldarrak milioi bat euroarekin eta %33,2ko beherapenarekin eta merkatu italiarreko txangozaleak eta munduko beste herrialdeetako merkatuetakoak milioi erditik beherako emaitzekin aurkitzen dira.


Pertsonako gastua txangozaleetan 78,49 eurotan kokatzen da, 2016. urtean lortutakoa baina %7,5 gutxiago.

Urruneko txangozaletasunak pertsonako gastu handiagoa ekartzen du, mugaren gertutasunagatik datozenena baino. Gastu hau txangoan Euskadin egindako gastuarekin bat dator. Osatzen duten balio nagusiak, garraioa, mantenua eta aisiak eragindako beste gastuenak dira. Zenbateko baxua daukate ostatuko gastuak ez dituztelako barneratzen eta garraioa gehienetan ibilgailu propioarekin egiten dutelako.

Frantziako biztanleek batezbestekoaren azpitik dagoen 77,09ko gastu bat daukate eta 2016 urtean %5,4ko beherapen bat izan dute.

Merkatu alemaniarra ezik, pertsonako 106,99 euroko gastua aurkezten duena eta %38,6ko gorakada, eta Estatu Batuetako merkaturia, 846,22 euroko batezbesteko gastua eta %212,6ko hazkundea duena, gainerako merkatu guztiak bere pertsonako gastua okerragotu egiten dute 2016arkin alderatuz.

Merkatu ingeleseko txangozaletasunak, pertsonako 136,83 euroko gastua lortzen du, %18,6eko beherapen batekin, merkatu portugaldarrarena 66,80 eurokoa izan da %36,6ko beherapen batekin, merkatu italiarrarena 73,79 eurokoa eta %4,0ko beherapenarekin, merkatu belgikarra 69,04 eurokoa eta %22,1ko beherapenarekin, merkatu holandarrarena 76,44 eurokoa eta %0,8ko beherapena, gainerako Europako merkatuarena 67,97 euroarekin eta %9,2ko beherapena, gainerako Ameriketako merkatu 90,91 euroarekin eta %86,5eko beherapenarekin eta munduko beste herrialdeetako merkatuarena 102,58 eurokoa eta %13,6ko beherapenarekin 2016aren aurrean.



## 7. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN BATEZBESTEKO EGONALDIA


Aurkezten diren grafikoei esker, emaitzen ulerpena eta azterketa ikusi ditzakegu, emaitza aipagarrienak bakarrik deskribatuko direlarik, eta interurteko aldaketen informazioa emango delarik.

### 7.1.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2013 –2017

Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia azken bost urteetan 3,6 eta 4,5 ostatu-gauen inguruan dabil, %12,6ko beherakada batekin 2016arekin alderatuz.

Estatuan batezbesteko egonaldiak Euskadikoen bikoitza dira gutxi gorabehera eta aurten batezbesteko egonaldia %1,9 jaitsi da 2016ari begira.

Euskadi eta Estatu bisitatzeko dutenen egonaldien batezbestekoaren iraupenean dauden desberdintasun handiak, norakoari begiratu turistik duten jokabide ezberdina erakusten du. Euskadin bisitak motzagoak dira, eta Estatuan luzeagoak, Mediterraneoan egiten diren oporraldi luzeek eraginda, Balear eta Kanariar Uharteetan, batik bat. 2017an ikus daiteke turisten batezbesteko egonaldiaren beherakada Euskadin Estatuan baino handiagoa izan dela.




### 7.2.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea

2017. urtean Euskadiko turismoaren batezbesteko egonaldia hilabeteko, 2,9 ostatu gaua eta 5,1 ostatu gauaren artean mantentzen da.

Euskadiko turisten batezbesteko egonaldiak garrantzi handiagoa duten hilabeteak gabon garaian metatzen dira, urtarrilean 5,1 ostatu gauekin eta abenduan 4,7 ostatu gauekin.

Batezbesteko egonaldia hazi den hilabeteak urte honetan hauek dira: martxoa %16,4, apirila %9,0, maiatza %8,1, ekaina %30,5 eta uztaila %3,8. Urteko gainerako hilabeteetan 2016ari begira beherakada bat eman da, urtarrilean %20,2, otsailean %13,3, abuztuan %29,2, irailean %45,7, urrian %0,9, azaroan %6,6 eta abenduan %10,2.




Estatuko atzerriko turisten batezbesteko egonaldiek, Euskadiko batezbesteko egonaldien joera berdina erakusten dute, baina ostatu gau bolumen handiagoarekin. Uztaila eta abuztua dira jokabide ezberdinena erakusten diuten hilabeteak, non Estatuko ostatu gauak batean igotzen diren eta Euskadin, aldiz, jaitsi egiten dira.

**7.3.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea**

Errepide bidezko turisten batezbesteko egonaldia Euskadin, %4,6 bat igo da aurten, aireportuan %16,5 jaitsi da, itsasbidean %60,6 eta burdinbidean %32,9.

Euskadin, sarbideen arabera egiten diren ostatu-gauen artean desberdintasun handiak daude, Estatuan, ordea, ezberdintasun hauek minimoak dira, trenaren kasuan ezik.


Euskadi eta Estatuaren arteko alde handiena errepidean ematen da, 6,3 ostatu-gauko aldea dagoelarik. Aire bidean, egonaldien batezbestekoaren arteko aldea Estatuaren alde 2,5 ostatu gaukoa da, itsasbidean 2,8 ostatu gau gehiago Estatuaren alde eta burdinbidean 2,9 ostatu gau gehiago Estatuaren alde.





**7.4.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea**

Bizilekuaren arabera egonaldia aztertzerakoan, Euskadi eta Estatuaren arteko ezberdintasunak herrialde konkretu batzuetan txikiagoak direla ikusten da, batez ere, italiarrak, Euskadira batezbesteko 4,2 ostatu-gau egitera etortzen dira eta Estatura 6,6ra igotzen dira (2,4ko aldea), portugaldarrak Euskadin 1,6 ostatu egonaldiak egiten dituzte eta Estatuan 3,5 (1,9 ostatu gaueko aldea), turista estatubatuarrek Euskadin 5,6 ostatu gau egiten dituzte eta Estatuan 7,3 (1,7ko aldea) eta gainerako Ameriketako biztanleen kasuan Euskadin 9,9 ostatu gau eta Estatuan 9,5 egiten dituzte, kasu honetan, Euskadiren alde, 0,4 ostatu gauko diferentzia minimo bat sortuz. Alde handiena frantsesen kasuan ematen da, Euskadin 2,1 ostatu-gau egiten dira, Estatuan aldiz 7,2 ostatu gauera igotzen direlarik, Estatuan 5,1 ostatu gau gehiagorekin eta turista belgikarren artean, Euskadin 3,3 eta Estatuan 8,6 ostatu gau egiten dituztenak, Estatuan 5,3 ostatu gau gehiagoko aldearekin.



Euskadi bisitatzen duten turisten batezbesteko egonaldien interurteko aldaketak jatorrizko herrialde gehienetan jaitsi egin dira, gainerako Ameriketako biztanleak ezik, %56,7 igo direnak, 2016ko 6,3 ostatu gaueetatik, 2017ko 9,9 ostatu gaueetara pasaz, azken bost urteetako iraupen luzeena lortuz, frantsesak izan ezik, %0,5 bat igo direnak, nahiz eta 2016 eta 2017an egonaldia borobilduz 2,1 ostatu gaueetan mantentzen den, eta holandarrak izan ezik, %13,1 igo direnak, 3,4 ostatu gaueetatik aurtan 3,9ra igotzen direlarik. Frantsesen batezbesteko egonaldirik handiena 2,4koa da, eta 2013, 2014 eta 2015 urteen artean eman zen eta holandarrena 5,1 ostatu gauekoa 2013an.

Britainiarren egonaldia %15,1 jaitsi da, 3,9tik 3,3ra pasaz. Bere ostatu gau gehieneko urtea 2015a izan zen 4,9 ostatu gaurekin.

Turista alemaniarren batezbesteko egonaldiak %12,6 batean behera egin du, 2016ko 4,6 ostatu gaueetatik 4,0 ostatu gaueetara eta bere egonaldien iraupen handiena 2015ean eman zen 6,7 ostatu gaurekin. Italian bizi diren turistek 4,2 ostatu gaueko batezbesteko egonaldia daukate, aurreko urteko 6,8 ostatu gaueetatik %38,4 bat galdu eta gero. Bere egonaldi luzeena ere 2015ean lortu zuten 6,9 ostatu gaurekin.

Portugaldarren batezbesteko egonaldia, 2016ko 2,0 ostatu gaueetatik oraingo 1,6 ostatu gaueetara pasa da, beheraka eginez eta 2017 honetan %15,7 jaitsiz. Bere batezbesteko egonaldirik handienak 2013an izan ziren 3,9 ostatu gaurekin.

Turista belgikarren batezbesteko egonaldia 2016arekin alderatuz %13,8 bat jaitsi da, 3,8 ostatu gaueetik 3,3ra pasaz. Belgikarren ostatu gau gehiagoko urtea 2013a izan zen, 4,8 ostatu gaurekin.

Gainerako Europako turistek bere egonaldia %17,8 bat jaitsi dute, 2016ko 5,2 ostatu gaueetatik (azken bost urteetako handienak), 4,3 ostatu gaueetara. Bere batezbesteko iraupen altuena 2015ean ematen da 6,2 ostatu gaurekin. Merkatu estatubatuarrean berdin gertatzen da, 2015ean izan zituen ostatu gau altuenak, 13,6 gaurekin eta aurtan %8,7 galdu du, 2016eko 6,1 ostatu gaueetatik, aurtengo 5,6 ostatu gaueetara.

Munduko beste herrialdeetako biztanleen batezbesteko egonaldia, 2016ari begira, %44,2 bat jeitsi da, 7,4 ostatu gautik (azken bosturtekoan handiena), 2017ko 4,1era.


**7.5.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea**

Lanagatik edo salerosketengatik etortzen diren turisten batezbesteko egonaldiak, Euskadin eta Estatuan ez dituzte ezberdintasun handiak, Estatuan bi gau gehiago.

Aisiagatik datozen turisten artean da alde handiena aurkitzen den multzoa, 4,8 ostatu gaueko aldearekin Estatuaren alde eta baita ere beste arrazoiengan Estatuaren alde 4,9 ostatu gau gehiagorekin.

Euskadira datozen turisten egonaldiaren interurteko aldaketa positiboa izan da, %0,9 batean igoaz aisiagatik datozenen artean eta %5,2 lanagatik, eta negatiboa beste arrazoiengatik datozen turisten artean, %33,3 jaitsiz.

Aisiagatik batezbesteko egonaldirik handienak 2013, 2014 eta 2015ean eman ziren 3,2 ostatu gaurekin, lanaren arrazoiagatik ere 2013 eta 2015ean izan ziren 4,4 ostatu gaurekin eta beste arrazoiengatik 2015ean 9,4 ostatu gaurekin.




**7.6.- Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea**

Batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren arabera aztertzean, logikoki batezbestekoak atxiki egiten dira, eta Euskadin eta Estatuan ez dira hain beste desberdintasun azaltzen, 30 ostatu gau baina gehiagoko geruza baizik, tarte handiagoa jasotzen baitu.

Luzera gehieneko estratuetan, 16 ostatu-gau bitartekoak, Euskadin Estatuan baino batezbesteko egonaldi altuagoak ematen ditu.

16tik 30 ostatu-gau bitarteko zatian, Euskadi eta Estatuaren artean 1,2 ostatu gaueko aurkitzen dugu, Euskadiren alde. 30 ostatu-gau baino gehiagoko tarteetan, aldea 17 ostatu-gaukoa da Euskadiren alde.

Euskadiko batezbesteko egonaldien interurteko aldaketak 2tik 3ra ostatu gaueko tarteetan %0,9 jaitsi da, 4tik 7ra tarteetan %0,8 jaitsi da, 8tik 15era bitartekoa da %2,7 jaitsi da, 16tik 30era bitarteko turistaren tarteetan %2,2 igo da eta 30etik gorako estratuetan ere interurteko aldaketak gora egin du %9,0 batean.




**7.7.- Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea**

Erabilitako ostatu motaren arabera, Estatuako batezbesteko egonaldiaren jokabidea, eta Euskadiko turistena oso antzekoa da hotelen artean eta merkatuko beste establezimenduen artean eta desberdina merkatuz kanpokoetan, Euskadin hotelen eta merkatuko beste establezimenduen batezbesteko egonaldien tarteetan kokatzen direlarik eta Estatuan bi ostatu mota hauen gaitetik.

Euskadin hoteletan ostatu hartzen duten turistaren batezbesteko egonaldien interurteko aldaketek, gorakada minimo bat aurreikusten dute, %0,9koa, merkatuko beste ostatu motenek %13,5eko beherapen bat eta merkatuz kanpoko establezimenduenek %27,7koa.

Hoteletan edo antzekoetan, Euskadin, urtero 2,6ko batezbesteko egonaldia mantendu da 2016ean ezik, 2,5 ostatu gauera jaitsi zen urtea. Merkatuko beste establezimenduetan batezbesteko egonaldiaren iraupen



handiena 2015ean lortu zen 7,4 ostatu gaurekin eta merkatuz kanpoko establezimenduetan 2014ean izan zen 6,3 ostatu gaurekin.

**7.8.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2017. urtea**


Bidaiaren antolaketaren arabera, Euskadi eta Estatuaren arteko ezberdintasunak berriz ere oso nabarmenak dira, egonaldien batezbestekoen balioen gainean.

Estatuan batezbesteko egonaldia, 7,1 eta 8,0 ostatu-gaue artean dago (0,9 ostatu-gaueko aldea) eta Euskadi, 3,6 eta 3,9 ostatu-gau artean dago (0,3 ostatu-gauko aldea).

Pakete turistikoa gabe etortzen diren turisten batezbesteko egonaldien aldea Euskadi eta Estatuaren artean, 4,4 ostatu-gaukoa da gutxi gorabehera, Estatuaren alde, eta pakete turistikoa erabiltzen dutenena 3,2 gehiagokoa da Estatuaren alde.

Pakete turistikorik erabiltzen ez duten Euskadiko turisten batezbesteko egonaldia %14,9 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuz eta erabiltzen duten turistena proportzio handiagoan igo da, %47.1.

Pakete turistikoa erabiltzen duten turisten batezbesteko egonaldiaren iraupen luzeena 2017 honetan eman da, erabiltzen ez dutenena ordea 2015ean 4,6 ostatu gaurekin.



# **BASQUE TOUR**

*turismoaren euskal agentzia*  
*agencia vasca de turismo*